


KONTU ALAI

A.T.V.  
1932


TA

EGI MARDULAK





A.T.V.  
1932



A.T.V.

1932

Sarriena el Sabio


- 6369

- 2464



KONTU ALAI  
TA  
EGI MARDULAK







KRISTAU ZABARRAREN ONERAKO  
TA ZINTZUAREN SENDOPENERAKO


V. M. A. I. LIC. APAIZAK  
SORTETAN BILDU TA  
::ANTOLATU DITUAN::

KONTU ALAI  
==== TA ====  
EGI MARDULAK

EGI-SORTACHUA  
LENBIZIKO SORTA

OMNIA PRO SACRATISSIMO  
CORDE JESU

PER MARIAM  
INMACULATAM



DONOSTIAN:  
LOYOLA'TAR ENEKO DEUNAREN  
IDAZTEGIAN 1916



## OBISPADO DE VITORIA

Por las presentes, como Gobernador Eclesiastico de la Diocesis S. P., concedemos Nuestra licencia para la impresión y publicación de la obra que lleva por título «**Kontu alai ta egi mardulak**» toda vez que habiendo sido examinado de Nuestra orden no se contiene en la misma cosa alguna contraria al dogma católico, ni á la sana moral. Lo que participamos á V. para su conocimiento y efectos consiguientes.

Dios guarde a V. muchos años

Vitoria 27 de Octubre de 1916

DR. JOSÉ LEONCIO O. DE ZARATE

Sr. Dn. V. M. A. I.



## ON LIBORIO AZPIAZU

BITORICO KATEDRALECO KANONIGO TA APAIZGAITEGIKO  
(Seminariyoko) ERRETORE JAUNARI


### Eskeñiya

*Jatorriz artutako euskal-odol nastugabia, chikitan-  
dik ikasitako euskal-izkuntz garbiya, ta zure buruz  
osalutako asko-jakintz goragarriya, mardulduak eta  
alkarturik Zugan topatzen ditudan ezkeru, eta batezere  
sorta abetako egiyak (geyenak beintzat), Teologiko ikas  
urtietan zure agertzez eta leyaz ikasi nitualako, egoki  
bidez eta ordain-saritzaz, sorta aben eskeñiya egiten di-  
zut. Udaberriz kabiyan lumatutako chorichuaren antze-  
ra, egarako sasoi-ustian dauden garai ontan, señedetuta,  
euskaldun zure odolkidien echietaara joateko, ta ayetan  
oju osasungarriyak egiñ ditzaten, arrera biguñez eta be-  
giraldi sendokorrez sorta abek indartu itzatzu.*

*Alaşe eskatzen dizu zure zordun*

V. M. A. I.









## IRAKURLIARI

Bizidun arkitu orduko, bai jatorburuz oroituta, bai azkenari begiraturik, bere burubari gizonak galdetu biar liyoke «Ad quid venisti? Zertara etorri zera, zure eginkizunak zein dira?» ta bertatik leyatu biar lake Jangoikuaren, bere Jabe, Emalle ta Erabakilariyaren naya billatzen; laister arkituko litzake gizona Jaungoikuaren nayez biartua, kristautzako egi ta aginduen jakinle, egiyen siñisle ta aginduen gordezalle izatera.

Gaurko zenbait gizonak ordia, ez dute orrelakorik batere gogoratzen; beren ajolakabekeriz dala, edo gurasuen zabarkeriz dala, kristautzako jakin-neurriya betegabe lenagotik gelditu ziran; geroztik berriz, arinkeriya ez diye bestetarako betarik opatzen; oyen ondorenez, siñisgabekeriya edo sinismen okerraren aziyak beren barrenian ladaretuak eta sasi egiñik daude orain. Biyotza berriz zalekeriz betia ta griña charren larrez josiya daukate; onengatik abere gisako gizon atzegin-zale abek biziera makilgarriya daramate.

Euskaldunen artian ere zertarako ukatu? pisti orrelakotsuak topatzen dira: ala adierazten digute biñipiñ, zenbaiten abetik ateratzen diran esan zatar eta lasakak. Siñismen zuzenaren bidera gizonak ekartzeko, ta aginduak berai gorde-erazitzeko, oso artarakuak dira sorta abetan sartutako egiyak; egi pozgarriyak gizona pizkortzeko zuzi gartsuak baidira; egi samiñak ere chit kementsuak dira; Sarda Salvanik diyonez, obia litzake egiten dan baño ma-



izago egingo balitz inpernuaren aitapena liburuetan itz-alduetan billeretan. . . . bada akullu onen biarra askok daukate, asko esnaatu ta zintzotuko lirake inpernu bildurrez ta joaten diran aña gizon ez lirake inpernura joango, inpernu-egiya ezezik, gañerako egi samiñak ere guztiz esnagarriyak dira.

Kristau egiyak animai erasteko, nai bereziya azaldu zuan X<sup>en</sup>. Piok ta, bai karriketako, ta bai mendi egaletako kristabetaraño zabaltzeko, eman-alezko aginduak ipiñi zituan. Nai aben eraz egi osasungarriyak zabaldu nayian nator; sorta abetako egi utsak ordia, gordiñ-samarrak iruditzen zaizte gaurko gizon atsegiñtiyai. Gordintasuna nola samurtu? I<sup>ko</sup>. Napoleonek esaten zuan jotalluak bezelako biskarik etzala gizonak bereganatzeko; berak beintzat jostalluz erreñena gizonak irabazi omen zituan; guk ere esan generake, gizon kaskariñak egi-bidera ekartzeko, kontuak edo ipuiyak bidetzalle egokiyak dirala, naiz berez gauz ariñak izan; alaše egin zuten Morell A. eta beste animazale ernai batzuek gordintasuna samurtzeko bakarrikan ba ipiñi ditut argigarriyeta-ko irakur-gayak; ez litzake beraz bidezkoa izango egiyak utzita, kontuak bakarrik irakurtzia, batak bestientzat antolatuak dauden ezkeru.

Sorta abetako egiyak banaka argitaratzeko asmoz egiñ nituen; baña besteren iritzira makurtuaz, eta jakin-premiya obetoago estaliko dutelakuan, sortetan bildurik argitaratzen ditut.

Euskeraren biyurkera ta gayen azalkera egiterakuan, gizon guchi-jakiñen premiyari geyen-geyena begiratu diyot; euskeraz eta gayen jakitez goimallak daudenak, ez bitzayote beraz sorta abei geyegi eskatu. Asieratik oyecek esan-nayanzeukan.

EGILLIAC





## Liburu ontako irakurgayak

obetoago adierazteko aurrez jartzen

==== diran ====

erakuste batzuek

1) 72 Liburu Santu beregan dauzka Eskritura Santuak; oyetik 45, Jesukristo jayo baño lenago egiñak dira, ta LEGE-ZARREKO LIBURUAK izentatzen dira; aitatuenak dira Genesis, Josue, Salteriyua, Isaias, Jeremias . . . .

Jesusen jayotz-ekzeroko Liburu Santuak 27 dira, Mateo, Markos, Lukas eta Juanen Ebanjeliyuak, Pedro<sup>a</sup> ta Paulo Santuen idaztiyak (kartak), Apokalipsis . . . . LEGE BERRIKO LIBURU entzunenak izanik.

EGILLIA=Moises, David, Mateo, Markos, Lukas, Paulo, Juan eta beste gizon santu batzuek Liburu Santuak idatzi (eskribitu) zituzten; alaz ere ordia Jaungoikua bera da Liburu aben Egillia, bada eskribitzalliai Jaungoikuak almen garai-bereziz lagundu ziyen, berak agindutako guztiyak eta abek bakarrak, bai buruz zuzen ikasi, bai zintzo eskribitu, ta bai egoki oker-eziñezko egiz azaldu zituzaten (1)

Errege, Apaiz-nagusi (Obispo) ta beste gizon aundizki askok, ordezkuaeren bitartez eskutitzak (kartak) eskribitzen dituzte geyenian; alaz guztiz ere eskutitzak Erregiarenak, Obispuarenak dira; era ontan, gizon santuen bitartez Liburu Santuak eskribitu arren, Jaungoikuarenak dira, ta ala diralako, Liburu Santuetako esanai JAUNGOIKUAREN itza, Espiritu Santuaren itza deitzen zaye; Jaungoikuarenak diralako ez gezurrik, ez utzegiterik ezta eragabekeririk eziñ eduki dezakete Liburu Santuak; beraz nere lanchuan arkitzen dituzun Liburu Santuetako egiyak (Aita Santuen erabakiya erantsiya baldin badaukate beintzat) sendo siñistu itzatzu.

(1) Enc. Providentissimus



2) Bi eraz erakusten diye Aita Santuak kristau guztiyai; berak bakarrik batzuetan, eta orduan, Eliz guztiko maisu danez, fedeko edo oituretako egiya siñistekó agintzen badu, erabakitako egiya FEDEKO EGIYA da. Bestietan berriz Eliz guztiko apaiz-nagusiz (Obispoz) inguraturik, kristau guztiyai erakusten diye: ala 1869 garren urtian 9 garren Pio Aita Santuak Eliz guztiko buruzayai deituta, 75) Apezpiku Erromara bildu ziranian, Pio Aita Santua buru zutelarik BATIKANOKO ELIZ BILLERA egin zuten guztiyak. Eliz guztiko Apezpikuak Aita Santuarekin batian egiten duten billera onisse dei:zen zayo GOYENOKO ELIZ BILLERÁ edo ELIZ BATZAR NÁGUSIYÁ «erdraz CONCILIO ECUMÉNICO.» Florenzi, Letran, Trento ta Batikanoko Eliz-billera nagusiyak izan dira azkenekuak Billera abetan hereji-pian Aita Santuak erakutsi dituzten egiyak, SIÑIST-EGIYAK, SIÑIS BIARRÁK «dogma» dira. Kreduan eta Aita Santuen gañerako erabakiyetan daude siñist-egiyak. MARIA SORTZEZ GARBIYA DALA, SIÑIS-GAYETAN ETA OITURA GAYETAN AITA SANTUAK EZIÑ UTSEGIÑ DEZAKELA. . . . ta beste egi asko, bakarrian dala, edo Eliz billeran dala, Aita Santuak erabaki dituzte.

Zerura joateko, siñistegi denak, batere utzigabe, siñistu biar dira; batere siñisten ez duana siñisgabia da; egi bat edo beste siñisten ez duana berriz, SIÑIST-AUSLIA «herejia» Irakurgayetan arkitzen diran siñismeneko edo oituretako egiyak siñistu itzatzu beraz

3» Elizako guraso ta Santuen esan eta erabakiyak, berenez siñist-egiyak ez izan arren, maisu baten esana artzen dan begiramenez artu itzatzu, siñisgayetan asko-jakiñak ziran-da.

4» Argigarriyetan sartu ditudan gertaerak kondairetatik «historiyetatik» artuak dira; gizon-siñispena eman zayezu ba berai.

5» Argigarriyetan arkituko dituzun kontuak, gizonen buruak sortu ditu, ta geyenak gertatugabiak dira, garbi esatia obia da-ta

6» Euskerazko itzak eta joskera Gipuzkoako bet-erriyetan esaten diran eraz eta erress irakurtzeko ustez jarriyak daude,

7» Euskerazko gi ta ge ta erderazko gui ta gue berdiñ esaten dira, ta ala «egiya ta gezurra» irakurtzen dira eguiya ta guezurra bezela.



# EGI-SORTACHUA

## IRU EGI KEMENTSU



### I Egiya

#### Jaungoikua ba-da

Sarritan Elizak erakutsitako egiya (1), ta gañera Liburu Santuak ere maiz-asko aitatzen diguten egiya da au. Siñismenak ezezik, arrazoyak ere garbi adierazten digu Jaungoikua ba-dala; zentzudunak eziñ ukatu dezake orduan Jaungoikuaren ba-izatia

1) ZERU-LURREN ASIERARA GOAZEN. Begiyen aurrian dauzkagun zeru-lur eder eta aundiyak ¿nork egiñ zituen? Etziran berak egiñ, bada zeru-lurak lenago utsa ziran eta utsak eziñ dezake zerbait egiñ; arrazoi beragatik, utsak edo ezer-ezak etzituan zeru-lurak ez-izartetik izateraño igo; gizon denak pillatuta ere eziñ zezaketen zeru-lurrik egiñ, bizitzeko zeru-lurak aurrez biar zituzten-da: gañerako IZATIAK Jaungoiko-gabe ezin zezaketen zeru-lurrik egiñ, bada Jaungoikorik izan ez balitz, oyek etziran izango, Jaungoiko-gabe ezer ez legoke-ta. Zeru lurak Jaungoikuaren biarra zeukaten izateko; Jaungoikua ba-da beraz.

2) JAUNGOIKUA BA-DALA ZEDORREN IZATETIK ERE ATERA DEZAKEZU—Aitaren semia zera zu, zure aita aitonaarena . . . etengabeko errenkara onek aurrena ba-du,

(1) Ara aldi bat «Si quis unum Deum verum visibillum et invisibillum Creatorem et Dominum negaverit, anathema sit» C. Vat. Dei Filius



azkena duanak asiera eskatzen du-ta; mallaka jarraitu ezker, irichiko gera orduan aurreneko gizoneraño edo etor-bururaño, au ¿nork egin zuen? Berak ez, bakoitzak bere izatia eziñ sortu dezake-ta; bestek ere Jaungoiko-gabe ez, Jaungoiko-gabe besterik eziñ izan litekealako. Asieragabeko Izate bat «Jaungoikua» ba-da orduan, zu bazeran ezkeroz. Abere, pisti ta landare bakoitzetik, era berian atera dezakezu Jaungoikuaren ba-izatia.

*Geigarriya*—Zerutik zintzilika dagon erreztun askoko kattia ikusten badezu, erreztun bakoitza urren-guari erantsiya dagola, ta katiari eusten diyon zerba-it goyen ba-dagola, siñisten dezu, bera-gabe kattia lurrian legoke-ta; zintzilikako izaera ¿zerk ematen diyo katiari? Goiko eutsitzaliak; au ez balitz, zintzilikako katerik ez legoke; kate onek goiko eutsitzallia eskatzen duan bezela, gizon-errenkarak Egillia «Jaungoikua» biar du, bestela eustalle-gabeko kattia lurrian egongo litzaken bezela, gizon-errenkara Jaungoiko-gabe, ezer-ezian egongo litzake, bestela utsian edo izangabe egingo ziñake zedorri.

3) JAUNGOIKUAREN BA-IZATIA ZERU-LURREN EGOKITASUNETATIK—Uri alaitsuak, erri politak, eliz bikañak, eche lirañak, ol «fabrika» ederrak, makina egokiyak eta liburu aitatuak, badaude munduan; oyek ikusitakuan, ez degu esaten berak egiñ diranik, oyen pus-kak berak alkartu diranik, edo utsetik atera diranik, baizik egille burutsu ta trebia dutela aitortzen degu; askoz aundiyaguak, egokiyaguak, eta bikañaguak diran zeru-lurrak ikusita, egille obiagua ta burutsu-agua badutela aitortu biarrian arkitzen gera; ¿nor ote da ori? Jaungoikuaren ordecoren bat edo Jaungoikua bera; bi aldietatik Jaungoikuaren baizatia datorkigu beraz. Voltaire eliz-etsayarekiñ batian, esan dezagun ba, erlejugillegabe ordularirik «erlejurik» ez dan be-



zela, Jaungoiko-gabe zeru-lurrik eziñ izan litekela.

4) JAUNGOIKUA BA-DA BERAZ, bai gizonak, eta bai beste izatiak badiralako, au da: kriaturak «izakiyak» badiralako, bada danok dakigunez, egiñak egillia eskatzen du, ta izanak izan-emallia. Gañera zeru-lurrak nolanaiko egillia ez dute eskatzen; munduko egilliak, burnitik, zuretik edo beste gayetik beren egiñak ateratzen dituzte, ezer-ezetik zerbait ateratzia ordia Egille Guzi-aldunarena «Jaungoikuarena» bakarrik da; Jaungoikuaren izantza «ba-izatia» eziñ ukatu diteke ba.



## Iñozokeri ta kaikukeri batzuei erantzuetara

1) **NATURALEZAK** (izatiak) **ZERU-LURRAK** EGIÑ DITUALA diyonari, chuliatuaz galde zayozu: Naturaleza orrek galtzak edo gonak jazten ote dituan, echekoandria edo mirabilia aldan, nun bizi dan, zenbat urte dauzkan, eta oyei erantzuten lana pranko jarriko diyozu.

Noren naturalezak zeru-lurrak egiñ ditu ba? Gizonaren naturalezak ez, len esan degunez; zeru-lurren naturalezak ezta; beste norbaitenak, ere ez, bada oyek denak besteren biarra daukate izateko. Beraz ez iñozo orrek aitatu duan naturalezak, baizik Jaungoikuaren naturalezak bakarrik gauz oyek egiñ ditzazke.

2) **LUR PUSKAK ALKAR ARTUTA** zeru-lurrak egiñ dituztela diyote beste batzuek; Gizajo kirtenak! Puska oyek; nork egiñ ote zituan ordia?; Nork alkartu ditu ba? berak ibiltzeko kemenik eta alkartzeko ezagumenik ez dute-ta; zati oyek egillia edo Jaungoikua eskatzen dute beren izan-aurrez; Jaungoikuaren izatiaren agerkiya baizik ez dira beraz.

3) **ZERU LURRAK BETITIK EGIÑAK** daudela esaten badirazu, **EZETZ** erantzungo gizut, zeru-lurrak zatiyak «puskak» dauzkate ta puska-dun guztiyak pusken alkartzallia lenago biar du; ez dira ba betikuak.

4) **BETITIK EGIÑAK** baleude ere zer? Ala izanda ere, zeru-lurrak izateko ezezik, ibiltzeko ere Jaungoikuaren biarra leukakete. Kanoyak, bai izateko, bai ibiltzeko, gizonaren biarra beti daukan antzera, zeru-lurrak jaungoikuaren biarra daukate **BETI**.

Zoko guztiyak miatuta ez da ba arkitzen arrazoi sendorik Jaungoikorik ez dala esateko.

### GUZITAKO ERANTZUPENA

**KIRTENKERI OYETAKO BAT** DIYONARI aspertugabe galde zayozu: zuk aitatzten dezun ori nork egiñ du? Naturaleza ta gañerakuak nork egiñ ditu? Azkenian berenik, naita bai ez Jaungoikua badala aitortu biar-ko du; iñozo oyek onelase menderatu ta zampatako dituzu.



## Lengo Egiyaren zabalketa

*Zenbat Jaungoiko dira? Bat bakarra.*

Jaungoikuagan zenbat person arkitzen dira? Iru: Aita, Semia ta Espiritu Santua.

*Jaungoiko bat eta iru person nola izan ditezke?* Pagoch izpi batian landare bat eta iru ostu arkitzen dira; iru adarreko zubaitzian, zubaitz bat eta iru adar daude; gizonak iru almen «potentzi» ditu: oroimena, ezagumena, ta naimena; antz goibel oyen eran, Jaungoikuagan Jaungoiko bat eta iru person daude ta iruretako bakoitza Jaungoiko da; Jaungoikuagan iru person daudelako, misteriyo oni, erderaz TRINIDADIA, ta euskeraz IRUTASUNA, IRUBATASUNA deitzen zayo.

*Zeiñ person gizondu zan?* Bigarrena: Semia, ta gizondu tako semia *Jesukristo* izentatzen da.

*Jesukristogan zer alkartu ziran?* 1) Gizon korputza (Mariaren odoletik Espiritu Santuak egiña) 2) gizon anima (ezer-ezetik Jaungoikuak ateria) ta 3) Jaungoikuaren Semia (Irubatasuneko bigarren persona); gutako bakoitzak korputza ta anima bakarrik dauzka, orrengatik GIZON gera; Jesukristok ordia irurak dauzka ta onengatik *Jaungoiko ta gizona da.*

*Jaungoikua noiz gizondu zan?* Adan eta Eba izan ezkeroztik 4.000 bat urtera; lau milla urte oyen barruan igarleak askotan esan zuten Jesukristo noiz eta nola jayo ta illko zan.

*Zenbat urte igaro dira Jaungoikua gizondu zanetik edo Jesukristo jayo zanetik gaurdaño?* Guchi gora-berra 1916; urrengo urtian bat geyago. . . .

*Jesukristo nun dago oraiñ?* 33 urte munduan bizi ondorian, korputzez eta animaz zerura igo zan eta anchen dago oraiñ; baita ere Aldareko Sakramentu Santuan dago, Jaungoikotasuna ta gizontasuna bertan dauzkala; Jaungoiko dabez berriz, toki guztiyetan dago.



## IIgarren Egiya

### Jesukristo Jaungoikua zan

1) Jesukristo Belenen jayo zan Mariagandik; jayo orduko, gertatze arrigarriyak azaldu ziran; aingeruen esanez laister jakiñ zuten Belengo artzayak Jesusen jayotza, ta gañera aingeruen abetatik entzun zuten «Gloria in excelsis» en kantatze zoragarriya. Gaspar Melchor eta Baltasar erregiak, izar disditzari bat bidere-erakustalle zutela, Jesusi mendetasuna agertzera Sort-aldetik etorri ziran. Ogeita ta amar urte zituala, erriz-erri ibiltzeu asi zan, zeruko egiyak zabalduaz eta ill-arte artan jarraitu zuan.

2) *Jesus gizona altzan?* Bai; gizona zala agiriyan daukagu, bada lurrian bizi zan bitartian, orduko gizonak ikusi zituzten bere arpegi, esku-oin ta bere korputzeko beste zatiyak; gizona zalako, gosetu, egarritu ta nekatzen zan, eta gizona izan ez balitz etzan illko.

### Jesusen Jaungoikotza

*Jesus beraren aitortzia.* Asko aldiz esan Jesusek berara Jaungoikua zala; (1) ez bakarrik esan, baizik esate orri erantsi zion egiten indarra; berak zion «Nere esanai sinistu nai ez badiyozute, nere egitiai sinistu zayezute.» (2)

*Jesusen mirari batzuek* = Kanako ezta yetan, batere mayetik alcha-gabe, ta itzik esan-gabe, nai utzez, sei

(1) Ego et Pater unum sumus Joann 10-30 «Qui loquitur tecum ipse est» Joann 9-37

(2) «Si mihi non vultis credere operibus credite» Joann 10-38



tiñikutako ura ardo biyurtu zuan; jura zan mirariya! bada mai-buruan zegon gizona ta tochado gañerako maikidiak arduaren gustotasunez arrituak gelditu ziran.

—Bere ondoren zebiltzan bost milla gizaseme «emakume ta guzi amar milla orche-orche ziran», bost ogi ta bi arrai ubariturik, ase zituan bein batez basamortuan; mirari au egindakuan eta jaliak bera errege egin nayian zebiltzala Jesusek sumatu zuanian mendi baterajoan zan—Jayotzez ichua zan eskale bati, ikusmena eman ziyon onela: ehista lurrera botata egin zuan loyez begiyak igurtzi ta urez garbituta; arriturik batzuek ichuaren ikustez eta mirari au eziñ eramanik bestiak, ichuzanari galdetzen ziyoten, Jesusek ikusmena eman ziyola egiya ote zan; ichuzanak ordia lotsatugabe guziyen aurrian ziyon: «Ondo dakit neronek lenago ichua nitzala ni, ta orain ikusten dedala» — Jeriko inguruan beste ichu bati ere, ikusmena Jesusek eman ziyon—Kafarnaun-en, Simon Pedroren echian ostatuz zegola, guztiz gaitz-dun zegon Simonen amagiyarreba sendatu zezala eskatu ziyotenian, berialase gaitza korputzetik kendu ziyon, osasuntsu biyurtzen zuala; sendapenen ondorian sendatuak berak, Jesusi ta gañerako maikidiai otordua mayera ekarri ta eman ziyen.

Arratsalde batez, baziduriyen Kafarnaunen bizi ziran guztiyak, Simon Pedroren eche-aurrera bildu zirala jainbesterañokua zan gaišo ta elbarriyen taldia! Jesusek orduan gaišo bakoitzaren gani eskuak jarriyaz, danak osasundu zituen.—Andik egun batzuetara, ikasirik Kafarnaungo biztanliak Simonen echera Jesus osterata etorri zala, erruzko jende destechen eche-aurrera bildu zan, Jesusen itza entzuteko zalez; Jesus itzaldiyan ari zala, lau gizon irichi ziran perlésiz jotako gizaseme bat angarilletan zekartela; Jesusek perlesidunari esan ziyon: «Alcha zaite, anga-



rillak artu itzatzu ta ibilli zaite» guztiyak begira zeudela gaisua bat-batetan alcha zan eta angarillak bizkarrian zeramazkiyela izkutatu zan; orduan jende-sallak arriturik alkarri ziyon «orrelako gauzik orain-daño ez degu ikusi»—Jende-taldiaren bultzadaz lertzeko zoriyan Jesus zijoan batez, amabi urtian odol-jariyoz gaiso zegon, eta bere ondasunak senda-aldiyetan aitu zituan emakume bat, Jesusen soñeko-ertza ikututa, chit osasuntsu gelditu zan.—Beso illa zeukan bati, besoko biziya beso-luzetzez Jesusek ekarri ziyon, juduen batzar edo Sinagogan.—Diabruaren billaukeriz emezortzi urtian ajiatua zegon emakumiari, Sinagogan osasuna eman ziyon.—Fariseo baten echian ur-miña (*tropesiya*) zeukan gizona, iknuitze utsez gaitzgabetua utzi zuan.—Amabi ezkabitik (*lepradun*) Jesusi ojutzen ziyoten esanaz: «guzaz kupitu zaite» Jesusek esan bezela, apaizetara juan ziranian amarrak lenegarra (*lepra*) korputzetik ayenetu zuten. Itsaso asarretuak eta aize-bolarak Jesusen itzera mendetu ziran Jesus chanelan zijuan batez. Itsasolatu gañian lurgañian beziñ legor eta seguru ibilli zan beste batez. Pedrok eta beste arrantzale-lagun batzuek arrairik eziñ arrapatu zutela ikusirik, Jesusen aginduz sariak botata, bi chanel betetzeko aña arrai bereganatu zuten; Pedrori esan siyon orduan, gizonen arrantzale izango zala (*ádierazi ziyon Aita Santu egingo zuala*)—Diabrutuak zeuden gizon-emakumiak, ez beñ bakarrik baizik askotan, atera zituan diabruaren mendetik.

**FISTUTZIAK.** Jairo Sinagogako buruzayaren amabi urteko alaba-bakarra ill zanian eta onengatikan bere ochekuak negarrez zeudelarik, Jesus jende-salla atzetik zuela, illdakuaren echera juan zan, eta «neskacha, alcha zaite, nik agintzen dizut-eta» esanez-bat pistu zan. Naingo alargunaren seme-bakarra ill-oyian



angarilletan) ill-zulora zeramatela, Jesusek korputz illa jechi-erazi ta «galaya nik agintzen dizut-eta, alcha zaite» esandakuan, pistu zuan, galayak bere korputza bizidun arkitzen zuela—Lazaro ill ondorian, bere korputza ill-obiyan sartua ta usteltzen asiya zegon; laugarren egunera zulo-gañeko estalkiya kendurik, «Lazaro atera zaite» Jesusek esan zion, eta berialaŕe ill-jantziz ta loturaz estaliya, atera zan Lazaro bizirik.

*Jesusen cri ot-aurreko ta eriotzeko mirariyak* Jesus lotzera zijoazen lareun soldadu, Jesusen itzez bat batetan kordegabetuak zerraldo lurreratu ziran Getsemaniko baratzaren sarreran; Malkori berriz, Pedrok moztutako belarriya itsasi zion.

Jesus gurutzian josirik zegon iru ordu osuetan, (*au da; eguardiko amabiyetatik irurak arte*) eguzkiya illundu zan munduaren luzeera denian, odeyez eta lañuz, beñere ez bezela, mundua bete zan, lur-ikarez munduak dardar egin zuan, eta arriyak alkar juaz chirchillatu ziran; eriyotzeko unian berriz illak zuletatik atera ziran pistuak, eta Jerusalengo Elizaren erdiyan zegan oyala bi zatitan erdibitu zan.

*Jesusen pistutzia.* Mirari guziyen artian aundiyela auŕen da; bere eriyotzetik irugarren egunera pistuko zala, asko aldiz Jesusek esan zuela, etzayak bazekiten; orrengatik Jesusen korputza obiyan jarri zuten, arri galantez eztarriya, arreta aundiz obitegiya lotu ta ichiyaz; oyek guchi balira bezela, egunez ta gabez soldadu-taldia jarri zuten obitegiyari zintzo kontu artzeko aginduaz; lur-ikarak ordia soldaduak zentzugabe lurreraturik, irugarren egunez, pistua atera zan Jesus obitegitik; goiz berian, Jesus pistua azaldu zitzayen Magdalena, beste emakume Jesuskoi ta Pedrori; Emaus-a zijuazen ikasliai ta amar apostol'i ere egun berian agertu zitzayen Jesus: zerura igo-arteko berrogei egunez, sarritan Apostoluen ar-



tian Jesus ibilli zan, eta azkenik, ikasle ta Aposto-  
luak begira zeudela, zerura jgo zan.

ARA BADA MIRARI-ERRENKARA UBARIYA? uste al de-  
zute ordia, Jesusek egindako mirari denak bildu di-  
tugula? Ez, batzuek bakarrik aitatu ditugu; Jesusen  
egite denak banaka ipiñita osatuko liraken liburu  
sallarentzat, munduan tokirik ez legoke, Juan Santu-  
aren ustietan(1)

*Jesusen igarpenen «aurrez-esandakuen» betetzia.*  
Gertakizun askoren berri Jesusek emana zeukan; be-  
te ote ziran ikusi dezagun.

1) JESUSEN BIZITZAN ETA ERIYOTZIAN BETETAKO IGAR-  
PENAK. Aspalditik etsayak izan baño lenagotik, Jesu-  
sek aurrez-esanak zeuzkan, *Judasek salduko zuela,*  
*Pedrok ukatuko zuela, Jerusalemarrak bera zauritu ta*  
*gurutzian illko zutela* (Joan 3), *irugarren egunian be-*  
*ra pistuko zala* (Mat. 2 Mar. 10) ta *beste berri olako-*  
*tsuak.* Oyek denak ziara bete ziran danok dakigunez.

2) JERUSALENGO URIYAREN ONDAPENA. Jesusen illtza-  
lliak «*Jerusalendarrak*» zer kastigu izango zuten, au-  
rrez esana zeukan Jesusek; gizaldiya bukatu baño  
len «*au da: Jesusen denboran bizi ziran denak ill baño*  
*len*», etsayak Jerusalem inguratuko zutela, arri gañi-  
an arririk utziko etzutela, Jerusalemgo Elizak lur-jo-  
ko zuela, Eliz onen tokiyan beñere eliz berririk al-  
chako etzala, Jerusalemarrak biziya galduko zutela;  
*itz batian:* Jerusalem-en ondapena aspalditik esana  
zeukan Jesusek.

Igarpen au era ontan bete zan: Jesusen eriyotzetik  
berrogei urtera Jerusalem-en ondamendiya gertatu  
zan; lenchiagotik ezagunbidiak «*siñaliak*» izan ziran,  
bada gau batez meteoru batek «*argi berezi batek*» diz-  
diaziyua zabaldu zuan Jerusalemgo Elizan; beste me-

Sunt autem et alia multa quae fecit Jesus quae si scribantur per sin-  
gula, nec ipsum arbitror mundum capere posse eos qui scribendi sunt  
libros. Cap. 21 vers. ult.



teoro bat urte osuaren luzaruan Jerusalem-en gañian egon zan, denak ikusten zutelarik; ogei gizonak iriki eziñ zuten Jeruzalengo Elizeko atia. berez iriki zan gau batez; Jesusen esana siñistu zutenak, siñale oyetatik aztarrena artuta, Jerusalemendik urrutira joan ziran; igarle gezurtiyen esanetara jarriyak zeuden judaak ordia, uriyan geratu ziran eta beste judeatar arrotz asko, eriyotz-aldiyetatik igesteagatik batzuek, eta Pazkuak jaitziagatikan bestiak, Jerusalem-a bildu ziran: ordu ezkeroztik iru eisa-taldek alkarren kontra guda egiñaz, erruzko millakak uriyan ill zituzten, asko gurutzian josten zituztela; garai artan, Tito erromatarrak, 60.000 soldaduz Jerusalem inguratu zuan Apirillaren amalautik asita Uztaren aurreneraño bitartian. Bi muru-illara artu ezkeroztik, egu nero bost-eun gizon gurutz-illtzatzen zituen, eta bi milla juduri sabela iriki ziyoteneko egunak ere, izan ziran; Jerusalemendarrak gosez biartuak, ez bakarrik lastua ta sinorra, baizik gurasuak beren semiak jateraño ere irichi ziran; gaitz itzaskorrek ere erruzko juduak ill zituan; Jerusalem zeuden ba: gosetiya, guda ta izurriya, ta ango eche, karrika ta zabaltokiyak, korputz-illez betiak zeuden; irugarren murru-illara artutakuan, laister menderatu zuan Titok, ANTONIA zeritzan gaztelua: orduan soldadu erromatar batek, sutu zuan Jeruzalengo judu-eliz bikaña; eliza aguro erre zan eta bertan kiskali ziran sei-milla judu: geroñiago Titok erre zuan uri dena ta onen aztarrenik gelditu etzeliñ, uriyaren lurra goldetu zuan.

Garai artan ill ziran Jerusalem-en 1.100.000 (*milloi bat eta eun milla*) judeatar; bizirik geratu ziran oraindik eunda zortzi milla, bañan oyetatik, amaika milla gaitzez ill ziran eta gañerakuak, salduak izan ziran batzuek eta Egipto eramanak bestiak, lan neketsue-



tan ari zitezen.

Kastigu berdingabia! Ze zuzen bete zan Jesusen esana, arririk arrigañian geratu etzan-da. Emendik irureun urtera, Juliano agintari kristau-etsaya, lengo tokiyan Eliza alchatzen asi zan, Jesusen itza ankapetzeko asmoz ¿Zer gertatu zan ordia? Lur-ikarak langilliak dardarizatu zituan, lurretik ateratako suak lan-tresnak (erremidak) urtu, ta langille asko kiskali zituan, Juliano enperadore gaistoaren nayo betegabe gelditzen zala.

3) ELIZAREN IRAUPENA. Jesusek esan zuan *inpernu-ko atiak* bere Eliza etzuetla menderatuko, au da, etsayak etzutela Eliza ondutako.

Igarpen au bete alda? Oraindañokuan bai ta gero ere beteko da; Apostolu ikarati ta guchi jakiñiak zabaldu zuten erlijiyua, indartzen zijuan; aurrenetik Elizak eta eliz-gizonak eraso latzak artu zituzten, Bautista Santuari lepua moztu ziyoten; Juan ez beste Apostoluak, odolezko eriyotzez ill zituzten guste aldezute Eliza galdu zala orrenbestez? Ez, baizik eta geyago zabaltzen eta indartzen zijuan; erlijio gezurti denak, agintariyak eta baita kristau fede-ausliak (herejiak) alkar artuta, Eliza ondutu nayez zebiltzan, bañan *emezortzi milloi* martiriren odolak, isurtze ongarriz Eliza pizkortu zuan; geroago, ekaitz bildurgarriyak Eliza balantzatu arren, etzuten ondutu; garayak izan dira, Eliza iya galdua zegola, etsayak uste zutenekuak; 16<sup>garren</sup> gizaldiyan protestantiak edo Lutero-tarrak galdu-garaya Elizari mais-azko jarri ziyoten; 18 gizaldiyan Voltaire franzitar arruak ziyon, *amabi arrantzalek* jarritako Eliza, berak bakarrik galduko zuela, ta andik ogei urtera Elizaren aztarrenik etzala geldituko; 19<sup>garren</sup> gizaldiyan VI Pio illdakuan, *Aita Santurik geyago etzala izango*, eliz-etsayak zabaldu zuten; oyek denak ill ziran eta Eliza zutik! Geroztik



ere, kristau zabarretatik siñist-auslietatik, paper debekatuetatik, eta agintariyetatik, jipoi pranko Elizak artu ditu; batez ere, *erragetza-gabe* Aita Santua utzi zutenian, Eliza betiko galduko zala uste zuten elizetsayak.

Eraso denen ondorian ordia zutik eta pizkortasunez betia dago Eliza; alde guztiyetan elizak, apaizak eta kristabak badaude *Aita Santua buru dutelarik*; toki batian gure erlijiyua argaltzen baldiñbada bestian indartzen da.

Oraindañokuan ba, bete da Jesusen esana; ara bertan mirari arrigarriya! Kristau ikaratiyak! geyegi ez izutu, aurrera ere Jesusek bere itza beteko du-ta

4) AZKEN JUIZIYUA—Azken juiziyua izango dala Jesusek esan zuan; igarpen au oraïndik ez da bete, baña bestiak bezelaše bere garayian, munduaren azkenian beteko da, Jesusek esan bezelaše.

## Esandakuen bilduera

Mirari-egitiak eta igarpenen betetziak ¿zer adierazten digute? Jesus Jaungoikua dala, Jaungoikuak bakarrik mirariyak *bere izenian* egiñ ditzake-ta, Jaungoikuak bestek ez lezake etorkizunaren berri jakiñda; beraz Jesusen mirariyak eta igarpenen betetziak Jesusen *Jaungoikotza* agertzen digute.



## ERANTZUPENAK

1) JESUSEN ERIYOTZAK BERA JAUNGOIKUA ETZALA ERAKUSTEN ALDU? Ez; Jesusen eriyotzak, GIZONA zala adierazten digu; oraindik geyago: Jesusen eriyotzak bera JAUNGOIKUA zala ere erakusten digu.

ZERGATIK? Len esan egunez, Jesusek lendik esandako Judasen salketa, Pedroren ukatzia, bere zatitzia, eriyotza, pistutzia, eta gañerakuak, berak esan bezelasse gertatu ziralako.

SANTUAK ERE MIRARIYAK EGIÑ ZITUZTEN BA JAUNGOIKO IZAN GABE; BERAZ JESUSEN MIRARIYETATIK EZ DA ATERATZEN BERE JAUNGOIKOTZA.

Ori diyonari berezigarri au jarri zayozu; Santuak egiñ zituzten mirariyak, baña Jesusi laguntza eskatuta, Jesusen indarrez ta birtutez; Santuak mirariz Jesusen Jaungoikotza azaldu zuten; Jesusek ordia bere izenian, bere indarrez ta almenez, eta Jaungoiko bezela egiñ zituan.

HIZ BATIAN Jesusek mirariyak egiñ zituen Jaungoiko zanez, eta Santuak Jesusen ordezeko bezela; Jesusek bere mirariz Jaungoikotza azaldu zuan, eta Santuak ere mirariz Jesusen Jaungoikotza azaldu zuten.



### IIIgarren Egiya

## Aita Santua Jesukristoren ordezkua da

1) Arrantzale izandako Pedro Santua Jesusek berak *aurreneko* Aita Santu ipiñi zuela fede-egiya da(1) Jesusek Pedrori esan zizkiyon «*Pedro (arriya) zera zu ta arri onen gañian nere Eliza alchako det*» (2) «*Zeruko erridiko giltzak zuri emango dizkiztut*» (3) «*Lurrian zuk lotzen dezuna zeruan ere lotua izango da ta lurrian askatzen dezuna zeruan ere askatua izango da*» (4) «*Nere bildochak bazkatu (mantendu) itzatzu, nere ardiyak bazkatu itzatzu*» (5) (*Bildochen* sallian Jesusek sartzen ditu kristabak, ardiyenian berriz eliz-maisu ta eliz-agintariyak) «*Zuzaz erregutu det nik zure fedian argaldu ez dedin eta noizian bein (beretara) bihurtuaz, zure anayak (fedian) sendotu itzatzu*» (6) Esan eta agindu aben eran Jesusek goi-agintia (agindumena) Pedrori eman ziyon, bere ordezko jartzen zuela; argatik Aita Santutzan egon zan denboran, orduko kristabak eta Apostoluak goi burutzat eza gutu ta eduki zuten, beraren aginduak zintzo betezen zituztelarik.

2) Pedro illdakuan Aita Santutza bukatu al-zan? Ez; Jesusek Pedro Aita Santu ipiñi zuanian, jarri zuan Pedrok eta Aita Santu bakoitzak Aita-Santu-

(1) «Si quis dixerit beatum Petrum Apostolum non esse à Christo Domino constitutum Apostolorum omnium principem et totius Ecclesie militantis visibile caput anathema sit» C. Vat.

(2) «Tu es Petrus et super hanc petram œdificabo ecclesiam meam.»

(3) «Tibi dabo claves regni cœlorum.»

(4) «Quodcumque ligaveris super terram erit ligatum et in cœlis et quodcumque solveris super terram erit solutum et in cœlis. Math. 16-19

(5) «Pasce agnos meos, pasce oves meas.»

(6) «Ego rogavi pro te ut non deficiat fides tua et tu aliquando conversus confirma fratres tuos.» Luc. 22-32,



tzan ondorengiak izan zitzala (1); onengatik Aita Santu bakoitza *Pedroren ondorengua* da, bere erabakiya *Pedroren erabakiya bezelakua* da (2) ta gañera bakoitza *Kristoren egitako ordezkua* da (3)

(3 Aita Santua nork aukeratzen dute? Gaurko egunez, Kardenalak bakarrik aukeratzen dute, bañan obetoago esan genezake *lengo Aita Santuen legiak* Aita Santua aukeratzen dutela Zergatik? Kardenalak aukeramenik (*eskubiderik*) ez daukate aukeratzeko berenez, aĩn guchi elizako agintariyak diranez, ezpada bakar-bakarrik *lengo Aita Santuen legiak* aukeramen ori berai eman diyelako; lengo Aita Santuak erabaki izan balu, Erromako apaizak aukera zezatela ta bestek ez, Kardenalak aukeramen-gabe egongo ziran; Kardenalak aukeratzia bidezkuena ta egokiye-na izanik, lengo Aita Santuak aukeramena berai eman diye, bere ustietan obeena ta artarekuena aukeratzeko aginduaz, beraz Kardenalen aukeramena lengo Aita Santuen legietatik dator.

*Emendik datorrena au da:* Jesusek Pedro *aurreneko* Aita Santu ipiñi zuan; Fedroren legien eran aukeratuako Aita Santua Lino izan zan . . . . eta onela gaurko 15<sup>garren</sup> Benedicto-raño; ara ba, Pedro Santutik Benedicto-raño ze zuzen agiri dan Aita Santuen errenkara.

4) *Aita Santuari agindumena (autoridadia) nork ematen diyo?* Fede-egiya da Jesukristok *ber-berak* Aita Santuari agindumena eman diyola; ala erakusten digu Batikanoko Eliz-billerak. (4)

Aita Santuaren agindumena noraño zabaltzen da? Elizaren onerako diran gauz guztiyetaraño; legegiti-

(1) «Esse ex ipsius Christi Domini institutione ut beatus Petrus in primatu super universam Ecclesiam habeat perpetuos succesores» C. Vt.

(2) «Petrus per Leonem locutus est» C. Chale.

(3) «R. Pontificem succesorem esse B. Petri Principis Apostolorum et verum vicarium Christi» C. Flor.

(4) «Jurisdictionis primatum ab eodem D. N. J. C. directe et inmediate accepisse» C, Vat. Past. ælter.



llia danez, Eliz guztirako lege berriyak jarri, lenguak aldatu ta kendu ditzazke. Agintariya danez Kardenal, Obispo ta bezte eliz-gizonak ipiñi ditzazke; Elizako erakuslariya danez fedeko ta oituretako ganyian siñisbiarrak (dogmak) jarri ditzazke; gai ontan berriz iñolaz ezin utsegiñ dezake, Batikanoko Elizbillerak erakusten digunez; onela beste gayetan ere.

5) Bi belaunen iru makur-aldiz Aita Santuari agur egiten zayo; soñeko zuriz jazten da; iru koru daukan *tiara* da bere burugañeko estalki bereziya; egun jakiñetan *Aita Santuen alkiyan* bizkarrez elizara eramaten dute; oñetakuen ganyian daukan *gurutziari* muñ egiten zayo; oyek denak adierazten digute Aita Santuaren aunditasuna zenbatekua dan.

## 15garren Benedicto

Gaurko Aita Santu Benedictok Batayoko izena SANTIAGO DELLA CHIESA du; Genovan jayo zan 1854 garren urtian; 1907garren urtian, Boloniko (Italiko) LEN-APEZPIKU (arzobispo) X-garren Piok jarri zuan; andik zazpi urtera Piok KARDENAL autu zuan; urte berian (1914garren urtian) Agorreko irugarren egunez AITA SANTU aukeratua izan zan; ill beraren San berriz AITA SANTU koroitua izan zan.



# LENGO IRU EGIYETATIK AGERTZEN DA

## FEDIAREN (sinismenaren) bidia

1) Jaungoikua baldin ba-da, Jesus Jaungoikua baldin bazan, Aita Santua Jesusen ordezkua baldin ba-da, Jaungoikuagandik gagana jēsten dan siñis-bidia garbi agiri da; beraz gure fedia zuzena da.

2) Fedia edo siñispena zer da? Ikusi ez dana siñistia; begiyen aurrian mai bat ipiñtzen badizute, maya zure aurrian dagola ez siñistu, baizik ikusi egiten dezu; zedorrek ikusi-gabia esaten dizutenian, egibide onetik badator biñipin, siñistu egiten dezu; ala Jesus jayo zala, Amerikak badirala, ez ikusi arren siñisten dituzu, siñiste oriñe da ba fedia; gizonak esandakua siñisten badezu GIZON-FEDIA daukazu; Aita Santuren bitartez Jaungoikuak esandakuak siñiten badesu JAINKO FEDIA daukazu.

3) Fede egiyak zergatik siñisten dituzu? Jainko-egiyak diralako, Aita Santuaren bitartez Jaungoikuak guri agertuak diralako.



# ERANTZUPENAK

BATZUEN ABETIK APIKA ENTZUNGO DEZU «IKUSITAKUAK BAKARRIK SIÑISTEN DITUT NIK; JAUNGOIKUA, INPERNUA . . . EZ DITUT IKUSI; OYEK DIRANIK EZ DET BA SIÑISTEN.»

Oyei galde zayezu. Aizia, usaya, agiñeko miñaj ta eletrizidadia beñere ikusi al dituzu? Ez alegiya, ori begiyen egitekua ez da-ta Oyek badirala siñistuko dezu noski? Bai; IKUSIGABIAK SIÑISTEN dituzu orduan Zure gibela ta biyotza ikusi aldituzu? Amerikak badirala, zure ama egitako ama dala, zu jayo ziñala, zedorrek ikusita aldakizkitzu? Ez, baizik bestek esan diskitzulako; egibide one-tik datorrena siñisten dezu beraz Jaungoikua badala, inpernua badala ta gañerako fede-egiyak, Aita Santuari Jaungoikuak agertu dizka, ta Aita Santuak guri erakutsi dizkigu. EGI bera dan Jaungoikuak egi-ezarik ez diyoz azaldu Aita Santuari; Aita Santua berriz (Batikanoko Eliz-billerak diyon bezela) fede ta oitura gayetan eziñ dezake utsegiñ edo gezurrik esan. Siñis-bide egitsuagorik eziñ arkitu diteke; fede-egiyak siñistu ditzagun ba.

2) Egiya da misteriyuen (siñisgai izkutuen) ezagutze OSORIK gizonak eziñ bereganatu dezakela çitsasuetako urak katilluan nola sartuko dira ba? era ortan fede-egiyak osotasunarekiñ, gizonaren buru chikiyan eziñ sartu ditezke, Agustin Santuari aingeruak adierazi ziyonez; ezagutze oso ori Jaungoikuarena bakarrik bai-ta

## AITA MORELLEK DAKARREN ATERAKAYARI BEGIRA:

Morroi arrosko batek nagusiyari esan ziyon lañezaz «Konprenditzen ez dedan edo ez dakidan gauzik ez det siñisten nik argatik fede-egiyak ez ditut siñisten» Nagusiyak ordia yayo zirikatuzuan galdera oye-kin «SUBAK BURNIYA NOLA BIGUNTZEN DUAN ETA KONTRARA ARROLTZA NOLA GOGORTZEN DUAN, BA-ALDAKIK? Morroyak ezetz erantzun ziyon; nagusiyak ekiñ ziyon esanaz «emendik aurrera ez dek ba nere echian ez arroltzik eta ez arroltz-kirik jango» Nagusiyak chuliatu zuan oste-ra galdetuzaz «JANDAKO OGIYA IRE ODOL ETA ARAGI NOLA BIYURTZEN DA BA-ALDAKIK? Morroyak oni ere ezetz erantzun ziyon; nagusiyak eraso ziyon «ez dek ba nere echian ez ogirik, ez ogikirik jango» igarri zuan morroyak jaki guztiyak banaka banaka kenduko zizkala, lotsaturik eta larriturik nagusiyari esan ziyon «nagusi jauna, naikua da; konprenditzen ez dedana ere emendikan aurrera siñistuko det-eta» nagusiyaren arrazoï motzak zampatu zuten ba morroyaren arrokeriya ta gizarajaak etzuan berriz aitatu orrelakorik nagusiyaren aurrian,

Nagusiyaren esanak asko erakusten digute, bada munduko gauz izkutuen ezagutze osorik ez daukagu, ta çgoi mallako izkutapenen



ezagutze osua gureganatuko degu? Eziñ diteke.

3) Fede-egiyak sinistu ba Jaungoiko egiyak dira-ta.

Aurrez jarri dedan sarrera oni bukatara emanda, fede-egi batzuetara sartu gaitzen.






KONTU ALAI

TA

EGI MARDULAK

LENBIZIKO SORTA



GRAZI SANTUTZALLIA—ZERUA

PEKATU LARRIYA—INPERNUA

PEKATU ARIÑA—GARBILEKUA  
(PURGATORIYUA)







# EGI POZGARRIYAK

## I

### GRAZI SANTUTZALLIA

#### Argigarriya

AITA SANTUEN ELIZA — Erroman [BATIKANO deritzayon jauregiyan bizi da Aita Santua; jauregi oni itsasiya dago munduko elizik aundiya ta aitatuen; aurreneko Aita Santu Pedro illdako tokiyan jasua dagolako. eliz au PEDRO SANTUAREN ELIZA izentatzen da; elizaren gaya aukeratuene; akua da; arri sillare ederrak landutako zurak egoki tajututako burniyak, pillarietako, aldarietako ta oñazpiko nabarriyak (marmolak), aldietakoa mosaikuak, denak eroso sartuak, baliyo aundiya bere gayez ematen diyote; eliz-egitura eman ziyotenak izan ziran eliz-gille yayuenetakuak: Bramante, Urbino, Miguel Angel eta Bernini; millaka langille chit artarakuak, lanian geratu-gabe ari arren, asi ta bukatu arte, 120 urteko lana izan zuten. Pillarez eta arrizko santu-irudiz inguratutako zabaltoki borobill bat eliz-atariyan dauka; atetik azkeneko ertzerano (LUZERUAN) 187 metro dauzka; lurretik tontorreko gurutzeraño berriz 138 metro; 260 leyo, 144 nabarrizko pillare galantak, beste 604 pillare chikiyaguak, 44 aldare, 387 santu-irudi, denak edergarri apainduak daude elizaren barrenian ta emen eun milla gizonentzat toki erosua ere badauka.

Bukaeraren garayian, 1626 garren urtian, 8-garren Urbano Aita Santuak Eliza donkidatu (konsagratu) zuan, ordutik Aita Santuen eliztat jarzen zuela.

Gaurko elizgilliak 235 milloi pezetan baliyua elizari jotzen diyote; gañera bera ikusten dutenak, (batezere artarakuak diranak) bere egokitasunaren gañian zer esan ez dakite; arrigarritasun onengatik mundu zabalian eliz asko alchiak daude bere egitura begiyen a irrian artuta Elizkizun nagusiyak diranian bakarrik, josten da Aita Santua eliz ontara; bizkarrez eseri-alkiyan ekartzen duten egun bereziyetan, soñu gozuen artian, Kardenalez, Obispoz eta goiko beste elizgizonez inguratua dagonian, eta elizak berriz jai aundiyeetako apaintasunak azaltzen dituan egunetan, ango elizkizunak zoragarriyak dira, elizak berriz zerua dirudi.

#### Erantsiera

1) Aita Santuen Eliza ta munduko gañerako elizak baño eziñ esan-al-bider eliz egerragua, galantagua, baliyo aundiyeagokua ta zoragarriyagua badakizute zeñ dan? Graziyan dagon anima; au



Espiritu Santua bizi dan Eliza (1) gizon-neurriyak igarotzen dituan eliza da, ta ez gizonak baizik gauzak ondo ezagutzen dituan Jaungoikuak diru-gañeko baliyua eman diyo.

## I

## Grazi santutzallia

1) Anima ta korputza dauzka gizonak beregan; korputza illkorra da, anima berriz illezkorra; korputza, batzuetan osasuntsu ta bestietan gaitzez ajiatua (edo baita ill-zulora aurki joateko zoriyan) arkitzen da; era ontan pekatuan dagon anima, oso gaitz-dun dago; graziyan dagon anima ordia osasuntsua ta guttiz ederra da; grazi santutzallia animan daukana *justa* izentatzen da; pekatuan bizi danari berriz *pekatariya* (*obenduna*) deitzen zayo.

2) PEKATUAN DAGON ANIMÁ ILLA ALDAGO? Ez; bestela ez luke korputzik erabiliko; illa dagola esaten da alaere, zerura eziñ joan ditekelako; uño bati lumak erre edo eguak moztutzen bazaizka, uñua illa ez dago oraindik, bañan egarako illa dagola esan diteke; pekatuan dagon anima ere bizirik dago, baña Jaungoiko-zko bizirik ez dauka ta zerura joateko illa dago; onengatik liburuetan sarritan irakurtzen da, ta guk ere esango degu: *Pekatuan dagon anima illa dagola*, grazizko bizirik ez dauka-ta.

3) GRAZIYÁN EGOTIA (graziyan bizitzia) ZERI DEITZEN ZAYO? Grazi santutzallia animan edukitziari; aberastasunian bizitzia aberastasunen jabetza edukitzia dan bezelase, graziya<sup>u</sup> bizitzia grazi santutzalliaren jabe izatia da.

4) GRAZI SANTUTZÁLLIA ZER DA? Pekatariya Jaungoikuaren seme ta zeruaren jabegai biyurtzen duan

(1) «Nescitis quia templum Dei estis et Spiritus Dei habitat in vobis»  
1 Cor. 3=16.



Jaungoikozko doai bat. Doai au *Jaungoikozkua* da, animak bere aldetik merezi gabe, Aita Jaungoikuak egiña, Seme Jaungoikuak irabaziya ta Espiritu Santuak animetara zabaldua dalako.

### GRAZI SANTUTZALLIAREN ALMENA (KEMENA)

GRAZI SANTUTZALLIAK ANIMAN ZER EGITEN DU? Espiritu Santuak animara isurtzen duan beziñ laister, grazi santutzalliak 1) pekatu larriyak animatik kendu, ta oyen kutsu, erdoi ta tortikak desegiten ditu, subak lastua austutzen duan baño errezago; une artan bertan, graziyak anima ta onen alde guztiyak antolatu eta chukuntzen ditu; baita ere birtute ederrez (batezere siñismenez, ichodo-menez, maitetasunez. Trid 6=7) ta Espiritu Santuaren beste doai ubariz eta arrigarriz apaintzen du anima; graziya sartu orduko ba, anima gelditzen da eziñ-esan-al baño ederragua ta zoragarriyagua, burni gorituaren aldian askoz disdiatzalliagua, baratzloretsua bañoaskoz apañagua, ta eliz bikañenak baño arrigarriyagua 2) gañera diabruaren seme zan animari, fede—egiya ez balitz siñistu eziñ liteken mesedia, grazi santutzalliak egiten diyo; ez bakarrik Jaungoikuaren lagun, baizik Jaungoikuaren seme biyurtzen du (1); aita aberatsagorik, jakintsuagorik, dezakeanagorik eziñ arkitu diteke; semetza onek animari erasten diyo Jaungoikuaren izatia (1); Jaungoikuaren ondasunen jabegaitza ere ematen diyo (2); onengatik beren garayian, gurasuen ondasunen jabetza semiak artzen duten erara, justuak graziyan irauten badu, egunen batez ondasunen ondasuna (zerua) irichiko du.

3) Grazi santutzalliarekiñ batian Espiritu Santua animara etortzen da, ta bizitokitizat eta eliz-tzat ani-

(1) «Divinæ consors naturæ» 2 Petr. 1=4

(2) «Si autem filii et hæredes.» Rom 8=17.



ma arturik, bertan dago.

Graziyan dagon animan Espiritu Santua bizitzen dala, siñistu ditekera al-da? Bai; Trentoko Eliz-billerak diyo Espiritu Santuak animara graziya ekarzen duala (1), ta guztiz egitsuak diran Liburu Santuak diyote, justuaren animan Espiritu Santua bizi dala (2), bertan eliza jarririk, (3) eta Jaungoikuaren erreinua dagola justuaren barrenen (4). Justuaren animan dago beraz Espiritu Santua, erregia bera erridiko jarlekuan bezela, maisua bere erakus-lekuan dagon antzera, anima zuzentzen, antolatzen, edertzen eta berari erakusten. Bizilari obiagorik gure animan egon alditeke? Ez, inolaz ere.

Begira ba, ¡ze berdiñeztasuna dagon pekatari izatetik justu izatera.!

KRISTABA: Eliz ederragua billatzen sayatu ezker ere, obiagorik ez dezu topatuko; lurreko elizetan arkituko dituzu bai urrezko apaintasunak, nabarrizko egiturak arri ederrak, zura bikañak, burni kementsuak eta apaingarri ubariyak; graziyan dagon animan (*Espiritu Santuaren elizan*) ordia, gauz guztiyen Egillia bera dago aingeruzinguratua ta doayez eta apaingarriz betia. Edertasun zoragarriagorik, baliyo goikuagorik inon ez dago; arrazoiz ba ziyon Blosiok, graziyan dagon animaren edertasuna ikusiko bagendu, geyegizko dizdiazioyoz ichutuak geratuko giñakela: Pazisko Magdalena Santuak ziyon berriz, ezagutuko balu justuak, ze aberats, ze ondasuntsu ta ze ederra dan bere anima Jaungoikuaren begiyetan, pozez urtua geldituko litzakela.

KRISTABA: Zure begiyetako kandua kenduta, fediak

1) «Per S. Sanctum charitas Dei diffunditur in cordibus eorum qui justificantur.» ses. 6 cap. 7

2) «Spiritus ejus qui suscitavit Jesum a mortuis habitat in vobis propter inhabitantem Spiritum ejus in vobis.» Rom. 8 = 11

3) «Nescitis quia templum Dei estis» 1 Cor 3=16

4) «Ecce enim regnum Dei inter vos est» Luc. 17=21



diyonari bakarrik begiratuta grazi-bizitza ze eder eta ze baliyo aundikua dan ezagutu ezazu; graziyan ba-zaude, Jaungoikuaren seme zera, bere ondasunen jabegai zaude, ta Espiritu Santua zure animan bizi da. Grazi santutzallia maite ezazu ba, beste gauzak baño zintzuago gorde ezazu, ta zerura joango zera. Echeko abere, ondasun, korputz eta osasunari kontu egiñ, eta graziyari berriz kontu ez artzia, iñozokeri ta ajolakabekeri ziorgarriya izango litzake.



## Galde-erantzuerak osagarriak

1) GRAZI SANTUTZALLIA ANIMATIK ZERK BIALTZEN DU? Jatorrizko pekatuak animara sartzen, graziari ez diyo uzten; pekatu larriak, batek bakarrak ere, grazi santugillia animatik bialtzen du, egiten dan unetik; pekatu benialak animatik ez dute grazirik botatzen, bañon anima itsusitu bai; onengatik oyek dauzkala illtzen danak, Purgatoriyoko oñazez zorra kitotu biarko du, zerura joan baño len.

2 GRAZI SANTUTZALLIA ANIMARA EKARTZEKO ZER EGIN BIAR DA? au da, grazi santutzallia animara zer ekartzen dute?

1 Batayoko Sacramentuak (beste batayuak ere bai) graziya animaratzen du; baña bein bakarrik ekarri dezake, bein bestetan eziñ artu diteke-ta.

2 Konpesiyoko Sacramentuak grazi santugillia animara ekartzen du ta ez bein bakarrik, baizik ondo artzen dan bakoitzian.

3 Kontriziozko damuak, gero konpesatzeko asmoz egiñezkero, bertatik jartzen du anima graziyan; damu au Konpesiyoko Sacramentuaren ordezkua besterik ez da.

Batayoko ta Konpesiyoko Sacramentuak illen Sacramentuak izentatzen dira graziyan illdako anima bizidun jartzen dutelako.

Iru ekar-bide abetako edozeinek ba, grazi santutzallia animaratzen du, ta beste ekar-biderik ez dago; onengatik besteren billa ibiltzia alperrikakua da. Batayoz artutako graziya galdu duanak grazisantzallia ostera bereganatzeko, edo konpesiyoko sacramentua artu biar du, edo au artzeko asmoz kontriziozko damua artu biar du; biyetako bat egiten ez badu inpernura joango da.

3 GRAZI SANTUTZALLIA GEITZEN AL DA? TA ZEREZ? Bai; ibayetako urez itsasua azitzen dan erara, baita grazi santutzallia ere geitzen da, ta beste bost sacramentuak: Konfirmaziyoko, Jaun-artze, azken-igurtzi (extremaunziyo) Orden eta Ezkontzako Sacramentuak, orisse bera egiten dute: grazi santutzallia geitu; berez eziñ dezakete grazi santutzallerik animara ekarri, dagona azi bai; onengatik bost Sacramentu abek biziyeen Sacramentuak dirala esaten da; Konpesiyoko Sacramentuak ere anima graziyan badago, lengo graziya geitzen du; atera zazu ba emendik maiz konpesatzia ze osasungarriya dan eta graziyaren eran gloriya saritzat emango dan ezkeroz, graziya geitzen sayatu zaite, ontan irabazkizun aundiya daukazu-ta

4 GRAZI SANTUTZALLIA ANIMAN EDUKITZIA, ZERURA JOATEKO NAI-TA-NAI-EZKUA ALDA? Bai, ta ausse bakarra da zerura joateko biar dana; graziyan illtzen dana, lenchiago edo gerossiago zerura



joango da; grazi santutzallerik ez daukan gizon batayatua berriz, kondenatuen inpernura joango da, ta jatorrizko pekatuak bakarrik ematen duan grazieza daukan gizon batayatu-gabia AURREN INPERNURA (aurren limbora) joango da.

5) GRAZIYAN EZ DAGON ANIMA PEKATUAN AL DAGO? Bai gizon denak edo pekatuan edo graziyan bizi dira, bi egote aben artian beste bizierarik ez dago; gizon-korputz guztiyak edo bizirik edo illak dauden eraz, anima denak ere edo pekatuan edo graziyan daude; onengatik gizon bakoitza edo pekatari edo justu dago.



## GRAZI LAGUNTZALLIAK

1) *Grazi santutzallez gañera, beste grazirik ba-alda?* Bai laguntzalliak (aldizkuak, eginkorrak) izen-tatzen diran beste grazi batzuek ere badira.

2) *Grazi laguntzalliak zer dira?* Animaren bizirako Jaungoikuaren laguntzak; bizidun izateko gizon-korputzak Jaungoikuaren laguntz bereziya biar du; bizidun irauteko janari, asnas-gai, eguzkiyaren bero-argi ta Jaungoikuaren beste laguntzak biar ditu gizonak, bestela bizigabetuko litzake ta; onelatsu, animaren biziya dan grazi santutzallia bereganatze-ko, Jaungoikuaren laguntz bereziya biar du gizonak, berak eziñ irichi lezake-ta; animaren biziyan irau-teko berriz borondateko berotasun, ezagumeneko argi, animaren janari eta Jaungoikuaren beste laguntzak biar ditu; laguntz abetako bakoitza *grazi laguntzallia da*.

3) *Grazi laguntzalliaren biarra gizonak badauka beraz?* Bai; grazi laguntzalle-gabe animaren grazi-biziya ez luke gizonak irichiko; grazi laguntzalle-gabe, grazi-biziyak ez liyoke animan iraungo; zerurako egitiak asi, jarraitu eta bukatzeko ere, kemenik ez luke izango, gizona laguntza-gabe eziñ ibilli dan elbarriyaren antzekua da-ta; arrazoiz ba diyo Espiritu Santuak : « Ni gabe eziñ dezazukete zerbait egiñ (1).

4) *Grazi laguntzalliak animari zer-en bitartez ematen dízka Jaungoikuak?* Korputzaren bizirako, bero-argiyak eguzkiyaren bitartez, asnasgaya aidia bide dala, janariyak lur-itsasuak bitarteko dirala ematen dituan eraz (arlotiak berriz janariya iristen du es-

(1) «Sine me nihil potestis facere» Joan 15=5



kiaren bitartez), animaren bizirako grazi laguntzalliak ematen ditu, lagun on, liburu on, misiyo Santu, eliz-izkuntza, batetako eriyotz eta beste grazi-iturri batzuen bitartez batzuetan; geyenian eta zuzenago berriz eskari (oraziyo) Sakramentuak ta Meza Santua bide dirala.

5) *Grazi laguntzalliak iristeko zer egiñ biar da?* Aitaturako grazi-iturriyatik frutu ona artu; lenchiago esan degunez, lagun on, liburu on, misiyo Santu eliz-izkuntz eta batetako eriyotzak grazi-iturriyak dira; animako gauzetan arlotiak geran ezkeroz, grazi-iturri chit emalia dan oraziyuari ekitia ta jarraitzia bidezkoa da; Sakramentuak eta Meza Santua grazikuchak dira; oyetatik denetatik eta beste grazi-iturriyatik graziyak bereganatzen leya bedi ba gizona, ta sayatu ezkeru, grazi laguntzalliak irichiko ditu; onela janariz gizon-korputza indartzen dan antzera, animaren biziya sendotuko da, onela grazi santutzalliak gure animan iraungo du ta gizonaren egitiak zeru-garriyak izango dira.

6) Grazi santutzallia daukala illtzen danari, beñ edo beñ emango zayon zera, burnratu dezagun.







# EGI POZGARRIYAK

## II

### ZERUA

#### Argigarriya.

**GUZMAN ONARI EMAN ZITZAYON SARIA.** Kastillako Sanchoren kontra gudan (gerran) zebiltzan 13-garren gizaldiyan, Juan Sanchoren anaillaba ta Amir mahomatarren (moruen) agintariya; biyak alkar ari tuta, zaldizko 5000 gerrariz inguratu zuten Guzman Onak bere gudamutillakiñ artua zenkan. Tarifa-ko uri gaztelutua, au artu nayerz alegiñak egiñ arren, alperrikakuak gertatu ziran beltzen sayaketak; beren eziña ikusitakuan, diruz Guzmani erosi nai ziyoten gaztelua; onek ordia erantzun ziyen: « Biar bezelako zaldunak garaitzik ez du erosten ezta saltzen ere », beltzak eziñez aserreturik, eraso-aldi latza gazteluari ostera eman ziyoten, alaere gaztelua artu-gabe geratu zan; orduan beltz biyozgabiak sorketa galgarri bat atera zuten; beren mendian katez lotua zeukaten Guzmanen seme zarrena, aitari urrutitik agertuaz, esan ziyoten gaztelua emateko, edo bestela semia illko ziyotela; semiarekiko nayak negar-malkuak Guzmani atera-erozi zizkan, bañan erregiari emandako itzak eta sort-erridiaren (« patria ») onak gazteluari eustia eskatzen zuala gogoraturik, gizon oso arrek etsaya! eja-egiñ ziyen: « Zeruan arkituko du nere semiak egitako zoriona, zuek berriz mundu onetan eta bestian kastigua ta madarika-ziyua besterik ez dezute topatuko, ta nere semia illtzeko labanik ezpaldiñ badezute, neria torizute »; esate onekiñ batez labana bota ziyen; aguro-asko ill zuten orduan Guzmanen semia, bañan ekiñaldiz aspertuta sei illabete alperrik igaro ondorian, inguru ayetatik beltzak izkutatu ziran.

Biyotz-zabaleko Guzmanen egite sarigarriya Erregiaren eta kastillatarren belarriyetara laister irichi zan; argatik bai ununtzian, bai bideko erriyetatik, bai baztar-erriyetatik, zar eta gaztiak, gizaseme-emakumiak, sail egiñikan bidera ateratzen ziran Guzman Ona ezagutzera; etorri-alian berriz chaloz eta ojuz ongietorri ta jarrai-aldi sutua egiñ ziyoten. Sancho erregia ta erridiko gizonik goratuenak ere jai-soñekoz jantziyak soñu alayak juaz agurtzeia atera zitzaizkan. Erregiak Guzmani denen aurrian eskerrak eman zizkan eta zaldunai esan ziyen: « Zaldunak, egite chalogarriyak zuetatik ateratzen ikasi ezazute, erakustallia bertan dankazuten ezker »; egun berian eta ur:engöetan, Alkala-ko errege-jauregiyan eta uriyan jai alaitsuak eta ubariyak egiñ ziran; bertatik Erregiak Guzmani saritzat eman zizkan bere erreinoko ondasunik obeenak: Guadalkibirko ta Guadaleteko



ibayen tartian dauden lur gizen, luze, zabal, loretsuak, echez eta jau-regiz apainduak ehetarrakin batian bizi-aldi guztiya anegen igarozuan, ondasunak, erosotasuna, alaitasuna, gizonen onginaya Jaungoikuaren bedeinkapenak beregan zeuzkala, ta oyen jabetzaz zoritzu zan.

## Erantsiera

Batayatu giñuenian, kristau geranok agindu genduan aita-jauen (jasotzallien) abez, grazi santutzallia animan gordetzia; graziyan dagon animari, pekatu larriyak, munduarekiñ, diabruarekiñ eta aragiyarekin alkar artuta, eraso latzak ematen dizka; animako gaztelua etsayai ematen ez badiyegu, egunen batez, ongi-etorri gartsua egingo digute zeruan, bai zeruko Erregiak, bai zerutarrak, ta zorientsu biziko gera bertan, ondasun ubariyen jabe beti-betiko.

Mundu, diabru ta aragiyak beren jarraitzalliai gezurrezko atsegiñ galkorrek beenik ematen badizkiye, Jaungoiko leyal eta emal-liak bere serbitzari ta seme izan diran justuak sari-gabe, atsegin-gabe utziko alditu ba? Ez emango dizte egizko atsegiñ iraunkor-rak « atsegingetziya » dan zeruan.

### I

## Zeruaren Edertasuna

1) Zeru ederraren errañu pitin bat beenik, munduko egokitasunetatik atera ditekoe; munduan bertan zenbat edertasun dagon! belar usaitsuen, landare politen, zubaitz garayen jantziz estalitako ta margo (color) askotako lorez apaindutako soro, zelai, belardi, chara, baratz eta basuak udaberri alayez begi-aurrian dauzkagu; noiznai ikusten ditugu zerura begira dauden mendi garai ta senduak, lurraren begiyak diruditen iturri garbiyak, munduaren zañen ichura duten ainbeste ibai ta erreka ibilkariyak: itsaso zabalak, bere luzetasuna erakutsiyaz, Jaungoikuaren aunditasuna adierazten digu; lur-azpiya miatu ezkerro, urre-zillarren miatzak (minak), artuki (diamante) disdiatzallien, eta beste arri edergarriyen egon-toki-



yak topatuko ditugu, lur-azpiya ondasun-kacha arkiturik.

Lur-gañian dabilta suma arrigarriya duten ainbeste abere ta bizidun aundi ta chiki, denak chit artarakuak, bakoitza bere eginkizunak zintzo betetzen; egaz eta lurreko ibilliz arintasuna ta alaitasuna azaltzen duten pisti lirañ eta egazti apañak ere, ubariasko agiri dira. Arrayak berriz beren leuntasunez eta trebetasunez ur-azpiyan bidia ebakiyaz, bana-ka edo sall egiñik itsasuan aisa dabilta.

Denen errege dan gizona nagusitza egiten dabill; onek gañera Jaungoikuak emandako yayotasunez eche, jauregi, ol, erri ta uriyak alchata, mundua ge-yago edertu du.

*Gora begira* : munduaren sapayian izar disdiatza-lliak agiri dira, ta agintari antzera, argiya, berua ta poza ematen dituan eguzki bikaña anchen ikusten degu; illargiya berriz, bere apaintasuna erakusten bezela batetik bestera dabill.

2) Orregatik diyo Agustin Santuak : munduko negartegiyan ainbeste egokitasun ipiñi dituan Jaungoikuak, zeruko atseginteyan zer ez ote du jarri? Fisti, abere ta gizonentzat, edertasun aiiñ miragarriyak jarri ditu Jaungoikuak, bere etsaidiran pekatariyentzat ere ainbeste egiñ du, erbeste ta negarrez ko ibar eta leku onetan, erosotasun alaigarriyak jarri dituta ¿zeruan zer ez ote du eratu Jaungoikuak bere jarraitzalle ta seme diran justu ta santuentzat? Itz batez mundua egin zuen, nai ezkeru millaka mundu berriyak erreñ egingo litukian, bere seme justuak erruz maite dituan guraso-Jaungoikuak, bere jakinduriari ta kemenari dagozkiyon edertasun eta atsegiñ berdingabiak zeruko zoriontegiyan eratu dituala jakiña dago.

1) *Zeruaren ikustaldi bat.* — Juan Ebanjelari San-



tuak Apokalipsis-ian zeruaren ikustaldiya dakar; aingeru batek, mendi-tontor batera espirituz eramanda, Juani zerua erakutsi ziyon; Juanek orduan zerua ikusi zuan eta ikusitakua onela agertzen du: « Zerua da uri (ciudad) guztiz luze-zabal, goitsu, aundi, eder, eta zoragarriya; gose, egarri, geyegizko bero ta izerdirik ez dago zeruan (1); malko, negar, miñ, gaitz eta eriyotzak ez daukate an sarrerik (2); odei, lañu, itzal eta gabak inguru ayetatik urrutira-kuak daude (3); gizon bildurti, fedegabe, zikiñ, illtzalle, aragiti, gezurrezko jaungoikoti ta gezurtirik alde ayetan ez dago (4); zeruaren muruak arri ederezkuak eta guztiz goidunak dira; ikusgarrizko gayer antolatutako amabi ate dauzka zeruko uriyak (5); ate oýek irikiyak daude beti (6) ta bakoitzian aingeru bat dago; zeru-barrengo ibai ta iturriyak ur guztiz bizigarriyak ematen dituzte (7); ango zubaitz, baratz, zelai eta loretegiyak osto ta frutu osasungarriyak ematen dituzte (8). Uriko eche, bizitegi, jauregi ta karridak guztiz ubariyak dira ta edergarriz estaliyak daude (9), zabaltokiya ezezik uri dena uric garbizkuak eta berezizkuak, eta bai azaletik bai barreridik disdiatzalliak dira (10); usai gozoz betiak

(1) «Nec cadet super illos sol neque nullus aestus. Apocal 7=16.»

(2) «Absterget Deus omnem lacrymam ab oculis eorum et mors ultranon erit, neque luctus neque clamor erit ultra», 21=4.

(3) Nox enim non erit illic 21=25.

(4) Timidis autem et incredulis et execratis et homicidis et fornicatoribus et beneficiis et idololatrís et omnibus mendacibus pars illorum erit in stagno ardenti», 218.

(5) Et habebat murum magnum et altum habentem portas duodecim et in portis angeli duodecim», 21=12. Et erat structura muri ejus ex lapide jaspide 21=18. Et duodecim portæ duodecim margaritæ sunt».

(6) Et portæ ejus non claudentur 21=25.

(7) «Deducet eos ad vitæ fontes aquarum», 7=17.

(8) Ex utraque parte fluminis lignum vitæ afferens fructus duodecim per singulos menses reddens fructum suum et folia ligni ad sanitatem gentium, 22=2.

(9) In domo Patris mei mansiones multæ sunt Joan, 14=2.

(10) Platea civitatis aurum mundum tanquam vitrum perlucidum 21=18.



daude gañera (1); Zeruairen aunditasunak neurri arri-garriyak iristen ditu (2); luzerua, zabalerua ta goi-neurriya berdiñak dira (3); argatik chimistaren az-kartasunak erruzko denbora biarko luke berak igarotzeko, alaere zeru-tarrak Jaunaren doayez erres eta aguro zeruko edozeiñ tokitara joaten dira.

Zeruan ez dago eliz berezirik, Jaungoikua ber-bera ertz-gabeko eliza da-ta (4); argiya izateko eguzki-illargiyen biarrik ez dago, Jesukristok oyek baño bi-ziyago zerua argitzen du-ta (5).

Zeiñ baño zeñ ederrago diran zeruko bizitzalliak, eziñ zenbat-u (*kontatu*) ditezke (6), aingeruak, goi-aingeruak, Serafiñak, Aitalenak (*Patriarkak*), Igar-liak (*profetak*), Apostoluak, odol-emalliak (*martiri-yak*), aitorliak, mirabe garbiyak (*birjiñak*) eta gañe-rako zerutarrak, apañ, eder, pozdun eta zoriontsuak, mintzu ta kanta alaigarrikak darizkiyotela, soñuba juaz saill-egiñik dabilta; bakoitza zuriz jantziya dabill; (7) eskuetan (*palmak*) jasuz, urrezko koroyez burua apaindurik, errege-alkiyaren jabe dala bakoit-zak daukan goiko malla azaltzen du; (8) bakoitzak munduko erregien aldian aberats purrakatua dago; ala ere alkarren espagabe, alkarri naitasuna ta leyal-tasuna ezkeñiyaz eta batak bestiaren zoriona geituz bizi dira; gañera eguzkiyaren argiyak intz-ta-tuak disdiatzen duan bezela, Jaungoikuak zerutarrak dis-

(1) «Plenas odoramentorum quae sunt orationes sanctorum»

(2) «Mensus est civitatem de arundine aurea per stadia duodecim mi-lia 21—17

(3) Longitudo et altitudo et latitudo ejus aequalia sunt

(4) Templum non vidi in ea; dominus enim Deus omnipotens templum illius est. 21—22

(5) Civitas non eget sole neque luna ut luceant in ea, nam claritas Dei illuminat eam et lucerna ejus est agnus.

(6) Vidi turbam magnam quam dinumerare nemo poterat . . . stantes ante thronum et in conspectu Agni amicti stolis albis et palmae in manibus eorum 7—9

(7) Vestietur vestimentis albis.

(8) Diadema speciei de manu Domini. Sap. 5—17 Qui vicerit dabo ei sedere mecum in throno meo 3=21



diatzen ditu, bakoitzari Jaungoiko-doayak erantsiyaz. (1)

Maria, Ama maitegarriya ere anchen dago, eguzkiz jantziya, oñpian illargiya daukala, amabi izarrez koroitua ta Jesusen eskubiyan jarriya (2); Maria da zerutarren erregiña, santuen betetasuna, aingeruen zorientasuna ta zeruaren apaingarriya. Jesus zeruko errege ta gure anaya ere anchen dago zeruan soñeko bereziz jantziya (3), koru askoz estaliya, su-garraren gisako disdiaziyuak begiyetatik darizkiyola (4) ta jantzi-gañian itz abek dauzkala «*Rex Regum*» *Erregien Erregia* (5); zerutar denak Bera agurtzendute intzentsu usaitzuak ezkeñiyaz, bera goratuaz eta sutu maitatuaz

Arpegiz-arpegi Jaungoikua ikusten dute zerutarrak (6); Jaungoikuaren aurrian urrezko aldaria dago (7); zeruaren erdiyan berriz Jaungoikuaren errege-alkiya agiri da; bertatik Jaungoikuak dena argitu gloritu ta asetzen du.

Ikusi-aldi onen ondorian kordegabetua bezela geratu zan Juan; orduan entzun zituen itz abek: «*Eccc tabernaculum Dei cum hominibus*», «Jaungoikua gizonakiñ dagon bizilekua ausen da».

4) **BESTE IKUSI ALDI BAT** — Teresa Santuak diyo Jaungoikuak berari eman ziyola beiñ batez, *Agur Mari* bat esaten dan bitarteko denbora laburrian, zerua ikusteko graziya; zerua ikusi zuanetik munduko atzegiñ eta aundizkitasunak nazka ematen ziyoten; gañera ziyon gizonaren animak eziñ asmatu dezakela zeruaren edertasuna zenbaterañokua dán,

(1) *Similes ei erimus* 1 Joan. 3—2 *Dii estis.*

(2) *Mulier amicta sole et luna sub pedibus ejus et in capite ejus corona stellarum duodecim. Astitit regina a dextris tuis.*

(3) *Et erat vestitus veste aspersa sanguine.*

(4) *Oculi autem ejus sicut flamma ignis et in capite ejus diademata multa* 21=12

(5) *Et habebat in vestimento scriptum «Rex Regnum».*

(6) *Et videbunt faciem ejus.*

(7) «*Altare aureum quod est ante thronum Dei*» 8—3

(8) «*Quam magna est domus Dei*» Baruch. 3—24



eta zerutarren disdiaziquaren aldian eguzkiyak zirudiyela.

Èsan dezagun beraz; *Ze aundiya dan Jaungoiren bizilekua.*

## II

### Zeruko atsegiñak.

1) Iru Apostolu: Fedro, Juan eta Santiago Taboroko mendira Jesusek eraman zituan beiñ batez bere Jainko-aldatzia ikusi zezaten; irurak ikusi zuten Jesus zeruko doayez jabetua; orduan azaldu zituzayen Jesus eguzkiya baño disdiatzallego, elurra baño zuriyago, itz batez: Jaungoitzaren agergarriz apaindua; iru Apostoluak guztiz arrituak zeuden ikuste orrezaz; Pedrok berriz Jesusi eskatu zion iru chabola bertan egiñ zitzala beti an bizi zitezen.

2) Eriyotz-aurrian zeruak irikiyak Esteban Santuak ikusi zituanian, arrikadaz eta oñazez oartugabe zegon, ta guztizko poza beregan zeukala. Zeruarien errañu goibel batek onenbesteko poza iru Apostolui ta Estebani eman baldiñ baziyen zenbateraño atsegintasuna izango ote da zeruan bertan egotia ta ango atsegiñ osoz jabetzia.

3) Zerura joaten bagera gure begiyak ikusiko dituzte, ez bakarrik zeruarien edertasuna, baita ere ainbeste zerutarren apaintasun, asetasun eta zoriontasuna; aingeru bat ikustia aiñ zoragarriya baldiñ bada, zer izango ote da zerutar ubariyen edertasuna ikustia? Ze atsegingarriya izango dan Maria gure Ama ikustia, berak bakarrik gizonen ikusi-zalia bete dezake-ta. Ze naigarriya Jesus Erregien Erregia ikustia. Ze asegarrriya Jaungoiko guzialduna arpegiz-arpegi ikustia! Belarriyak zeruan entzungo di-



tuzte milloika aingeru ta santuak ojututako mintzu ta kantu pozgarriyak, eziñ-esan-al zerutarrek jotako doñu alayak; munduko kantolari obeenak, doñulari aitatuena eta soñu egokiyenak bereziko bagiñu, denak batian kantatutako ta doñututako kantagayak, gogaikagarriyak izango lirake zeruko kantu ta soñu zoragarriyen aldian.

Usai aukeratuak gure usaimena aseko dute zeruan.

Èsku oñak ikuitzezko ta ibiltzezko naiko atsegiñak bereganatuko dituzte zeruan. Korputzaren gañerako zatiyak ere atsegin berdiñ-gabiak arkituko dituzte. Korputz dena ba zeruko doayez asia ta atsegiñ berdingabien jabe azalduko da; urez inguratua dabillen arrayaren antzera, gloriz inguratua ta betia egongo da korputza.

4) ANIMAREN ATSEGIÑAK—Zerura joan orduko justuaren ezagumenak ikasiko ditu gauz izkutatuena eta jakingai zallena. Irutasunaren, Jainko-gizontziaren, Erospenaren eta beste gayen izkutapena (misterioak) zerutarrari garbi agertuko zaizka.

Naimenak (borondatiak) Jaungoikuagan topatuko du Ondasun Azkengabia, ta berak aseko du naimenaren zaletasuna. Jaungoikuaren antzera egindako animari Jaungoikozko doayak erantsiko zaizka, *dii estis*; Jaungoikuaren Izatian, ispilluan bezela, agertuko zaizka munduaren luzeera ta borobilltasuna, zeruaren edertasuna ta apaintasuna, Jaungoikuaren ontasuna, zuzentasuna, begiramentasuna ta azkengabeko beste osotasunak (perfecciones).

5) ITZ BATEZ. — Korputz-animak biyak bereganatuko dituzte atsegiñ eta zorientasun oso ubariyak(1).

Zeruaz asko mintzatu naizela uste al dezu? Oso

(1) «Satiabor cum apparuerit gloria tua. Replebimur in bonis domus tuæ. Ps. 54=5. Inebriabuntur ab ubertate domus tuæ». Ps. 35=9.



guchi esan det ba; esandakua zeruaren antz goibela besterik ez da; itsasuaren aurrian ur-tanto bat dan baño guchiyago da azaldu deguna zeruaren edertasuna ta ango atsegiñak espiritzkuak dirata; espiritzko ondasunak berriz, azaldutakuak baño eziñ esan-al bider goratuaguak dira; onengatik zerua ikusi zuan Paulo Apostolu Santuak ziyon gizonaren begi, entzumen eta biyotzak eziñ ikusi, entzun eta jakiñ ditzazkiala zenbaterañoakuak diran justuentzat eratutako erosotasun eta zoriontasunak (1).

### III

## Zeruaren betikotasuna

Munduko ondar-izpi, lur-izpi, eta landare-aliak pillatzen baditugu, izpi-sall aundiya osatuko degu; oyek aña urte igarotakuan ere, asteko bezela legoke zera, ainbesteko urte salla milloika aldiz bukatu-ta ere, len beziñ urruti legoke zeruaren azkena, zeruak beti-aldiya dauka-ta.

(1) \*Oculus non vidit nec auris audivit nec in cor hominis ascendit quæ præparavit Deus in qui diligunt illum \*. 1 Cor. 2=9.



## Galde-erantzuera osagarriyak.

1) ZERURA JOATEKO ZER EGIÑ BIAR DA?—Grazi santutzallian anima euki eriyotzeko garayian; graziyan illdako gizona beriala edo gerossiago (Purgatoriyoko zorra kitotutakuan) zerura joango da; len esan genduan ez grazi santutzallia animara Batayoz ekartzen da ta, Batayo ezkerro pekatu larriyak egiñ badira, konpesiyoko Sakramentuz edo bestela kontriziyozko dāmuz gero konpesatzeko asmoz.

2) ILL DA BERIALA, AU DA, PURGATORIYORA JOAN-GABE ZERURA JOATEKO ZER EGIÑ BIAR DA?—Grazi santutzallia animan eduki; gañera pekatu benialak egiñ badira, oyek animatik kendu biar dira; barkatutako pekatu larriyen zorra oso ordaindu-gabia barkamenez (induljentziz) kitotu; itz batez, pekatu danak bai larriyak bai benialak animatik kendu ta pekatuen zorra kitotu biar dira.

3) Gizon-korputza ere zerura joango alda? Bai, azken-juiziyo ondorian « justuaren » korputza betiko zerura joango da; beraz justu illtzen bazera, zure begiyak, zure belarriyak .... zure korputz osua ber-bera zeruratuko dira.

4) Zerutar denak sari berdiña izango aldute zeruan? Ez; denak zoritsuak izango dira, denak betiko zeruan egongo dira, bāñan batak bestiak bañō sari geyagua izango du sarigarriyen eran; beko urak goyik ez du arrapatzen; mendiyan sortutako urak berriz, beste mendiyan lengo mendiko goya iristen du; autz ontara, pekatuan ill danak zeruko goyik ez du irichiko; graziyan ill danak berriz bai ta gloriko goya justuari emango zayo graziyaren eran.



# EGI SAMIÑAK

## LENBIZIKO MORDOSKA

### PEKATUA (obena)

#### Argigarriya

Eche-kalte atanundarrak alderdi char pranko beregan bazeuzkan; moskor, gizachar, zital, gorrototsu biyotz-gogor, billau, charkerizale, maltzur, naspillari, arrapari, ehekalte ta guraso-galtsallia zan; erriz-erri ibilli zanian gaistakeri ubariyak agertu ta makiñabat naspilla jarri zituan; oyek guchi balira bezela, Ehekalte chit itsusiya zan, bada musna zuldarrez eta bastanga-zuloz eta kokoz-pia laban-sastada ichiz betiak zeuzkan; esan leike ba Ehekalteren barrena gaistakeri guziyen bizileku madarikagarriya zala, ta beren larru-azala itsusikeriya ber-bera zala; alde onbat omen zeukan beregan; mokou gozuak jarze-ko yayotasuna sukalkiñ (kozinero) trebia zan aldetik.

Ehekalte soldaduskara joan zanian, taldeko mutill-nagusiya (kapitana) aren gaiztakeriz ondo-asko oartu zan, bai bestek esanez, bai berak ikusiz; alaere Ehekalketek jarri zizkiyon mokou gosuai bakarrrik begiratuta, beretzat morroi-mutuli (asistente) artu zuan; aurreneko etorri-aldiyan mutillari nagusiyak onela itzegiñ zion: «Mokou gosuak eratu bear dizkiak; ire beste lankizunetan ere zintzua izan biar dek; gañera itz-guchiz esandakotik, nik nai dedana ateratzia ta egitia agintzen diyat; ala, esaten badit «gosiak nachioik» mayian jarriko dizkiak janez eta edanez betetako platerak, botillak eta basuak. Esa'en badit «eskribitzera niak» ekarriko dizkiak papera, sobria, pluma ta tinta; nere naya dek beste ganzetan ere onelasse egitia; oraiñ ik bazkariya eratu bitartian oyera niek, ez tul pizka bat zeukaat-eta. Nagusiya oyeratu orduko Ehekalte echetik irten zan; amabiyak baño lenchiago echeratu zan, baño gnola uste dezute? Mutilla etzan motel ibili; asnaska ta katazka Ehekalteren ondolik igo ziran nagusiyaren lagun eta aidiak, eskribaba (testamentu egiteko zalantzatua) sendalariya (medikua) estuasuneko sendagayak zekazkiyela) jostuna ill-jantziyaren neurriya artzeko ustez; zulogillia berriz arripian edo lurpian korputza sartu biar zuten galdezka, korputz-eramantzalliak illkucha (caja) bizkar-gañian zekartela. Ikusgai beltza! Gelara (kuartora) sartutuz nagusiyari Ehekalketek esan zion «Nagusi-jauna; bedorrek itz guchiz esandakotik nai duana asmatu ta egiñ det; ona bertan gaitzian eta ill ondorian biar diranak; orra ba, bedorren aginduak zintzo bete ditut. Esangabe atera diteke emendik zenbatekua izan zan nagusiyaren izu, dardaiza ta nastu-aldiya; eskerrak esnaa zegoala, bestela apica ill-zulora eramango zuan morroi ajolakabiak. Ehekalteren aterakayez



nagusiya oso aserretu zan eta eche artakuak laister egin zituen, bada soldadutegiyo gaistotegira (\* calabozora \*) eraman zuten.

Nagusi arretagabia! Zergatik sartu zenduan Echekalte zure echian, nolakua zan jakinda? ¡Ara mokou gozuen orde zere naigabia eman zizun!

## Erantsiera.

Animako soldaduskan asistente ataundarra baño askoz gais-toago, illtzalliago ta itsusiyagua dan animakalte bat badago. Badakizute nor dan? Pekatu larriya; goso-antzian animan sartzen baldiñ bada, grazi santutzalliari eriyotza ematen diyo ta anima jartzen du chimistak ikaztutako enbor baten tankeran, inpernuko su-gai egiñik, diabru su-nastutzalliaren mendian, susko leiza-zuloko (\* inpernuko \*) atian zintzilika, bertara erortzeko zoriyan; pekatuan illtzen bada berriz berialase inpernurutzen du; ez chanchetakuak baizik benetakuak dira ba pekatu larriyak egiten dituan kaltiak.

### I

## PEKATU LARRIYA

(mortala, eriyotzkua, eriyotz gillia, illtzallia).

1) Pekatua zer da? Ezagueraz eta nayez Jainkolegia austia; Jaungoikuaren legeko amar aginduak eta Elizaren bostak Jainkolegia dira; oyek austia beraz pekatu da; ala' Jaungoikuaren legeko bostgarren aginduak diyo « iñor ez illtzia »; bat illtzia pekatu da ba; bi bider eriyotza egiten duanak bi pekatu egiten ditu, geyagotan ill ezkerro berriz pekatu geyago; beste aginduetan ere ber-bera gertatzen da.

2) Pekatu larriya zer da? Ezagueraz eta nayez Jaungoikuaren edo Elizaren agindua *gai larriyan* austia; *gai ariñian* agindua austen duanak pekatu *ariña* egiten du (*pekatu ariña, beniala edo barkagarriya ere izentatzen da*); ala guchi ostutzia pekatu ariña



da, asko ostutzia ordia pekatu larriya; pekatu benialak ez dute animatik grazi santutzallerik kentzen, aninra itsusitu bai; pekatu larriyak animatik grazi santutzallia kentzen du.

3) Edozeñ pekaturen, baña batez ere pekatu larriyaren gaistakeriya obetoago ikusteko, aurrena begiratu ditzayegun Jaungoikuaren aunditasunari ta bere nagusitzari.

4) JAUNGOIKUAREN AUNDITASUNA — Guchiyenaz 18 milloi gizaseme-emakume Españiyan bizi dira; sall orren onduan zertzera zu? Eze-asko ez. Mundu zabalian berriz 1.600 milloi giz-emakume badaude; abek denak pillaturik zúre onduan jarri ezkeru, zer ziñake zu? Lau edo bost milla gizonek geyeneko eza gutzen zaituzten gizon koskor bat, eta amar-bat gizonek geyeneko benetan maite zaituzten bat, itsasoko ur-tantuaren antzeko bat.

Aingeruak askoz ubariyaguak eta ederraguak dira oraindik; ayen aurrian zertzera zu? Aragi galkorrez eta ustelkorrez antolatutako gizon tatar bat.

Jakintsuen neurriyetan lur-itsasuak luzeeran berrogeimilla kilometro badauzkate; zabaleruan ere beste ainbeste bai; lur-itsaso aín galanten aurrian zertzera? Bi-bat metro-ren neurriya daukazun bat, urrengo kilometrotik begiratuta gauz tatarra azaltzen zeran bat, iru-bat kilometro aruntz joan ezkeru aurreneko-tik agiri ere etzeran gizon aul bat.

Zure onduan, guztiz tokidunak diran lur-itsaso o-yek eguzkiyaren onduan zer dirala uste dezu? Izarlari jakintsuak diyotenez arkaitz kankallu bat eguzkitik botako balitz, 25 urte guchiyenaz igaroko lituke arkaitz orrek lurreraño jēsten; aín urruti dagolako chikiya dala dirudi, ala ere lur-itsasuak alako milloi bat aldiz aundiyagua da.

Eguzkiya zer da berriz? Jakintsu berak diyote 50



millói (bakoitza eguzkiya baño aundiyagua) badaude-la goyetan; Neptuno izentatutako izarretik, len aita-tutako arkaitzak 800 urte biarko omen lituke lurrera iriŕsten; zenbaterañokua dan bere aunditasuna zalla da esatia.

Eguzkiyak gure tokitik su-tanto bat dirudi; eguz-  
kitik lurreia begiratuko bagendu lur-itsaso osuak  
tanto chikiyagua dala emango luke ¿ta zuk? Etziña-  
ke ikusiko ere. Urrutiyagoko izarretatik lurraazaldu-  
ko litzake geyelez izpi tsikiyagua ¿ta zu? Utsa bazi-  
ña bezela. Chingurriyak mendiyaren onduan daukan  
chikitasuna daukazu ayen onduan.

ERANTSIERA—Gizon guztiyak Jaungoikuaren  
inguruan zer dira? Nai ezkerro bizigabetu edo errez  
chirchillatuko lituzken ale batzuek. Aingeruak ere  
alatsu dira.

Lur-itsasuak, eguzkiya, izarrak eta beste izate de-  
nak zer dira? Itz batez ezer-ezetik Jaungoikuak ate-  
ra zituan gauz batzuek, munduko trenak eta chimis-  
tak bañon azkarrago, jostalluak beziñ ariñ eta aiŕa al-  
kar jogabe Jaunak erabilltzen dituan gauz pitiñak,  
oyek baño ez milloi bat aldiz, baizik eziñ-konta-ala  
aldiz aundiyagua da Jaungoikua; Bera zure barre-  
nen dago, izaki guztiyetan dago, toki denetan dago,  
ta oraindik bere aunditasuna azken-gabetasunerañ  
iriŕsten da. Ez bakarrik aunditasunez, baita ere ja-  
kinduriz, ontasunez, zuzentasunez, alduntasunez.....  
azkengabia da. Jaungoikuaren onduan zertzera be-  
raz? Eziñ esan nezake nik; zedorrek zeretzako kontu  
atera ezazu.

5) JAUNGOIKUAREN NAGUSITZA TA JABETZA.—Jaun-  
goiko aiñ aundi ta ongilliak zer mesede egin diski-  
tzun bururatu zazu; gurasuen bitartez izatia ta ez  
nolanaiko izatia baizik gizon-izatia eman zizun; ala  
nai izan balu, etziñan izango, edo abere izango zi-



ñuan, edo zure ordez beste bat egingo zuan.....; eziñ-konta-ala gizon egiñ zitzakian; berak ordia gizon jakinak egitia erabaki zuan eta oyen artian sartutako bat, zu izan zinan, batere merezi ez arren; asnas bakoitzian oraingo asnaserano biziya luzetu dizu; osasuna ta ondasunak eman eta luzetu dizkitzu; buruko illietatik oñeko azkazaletaraño guztiyak berak eman dizkitzu; une batez zuzaz aztuko balitz berialase ezerezera biyurtuko zinake, zure izatia bere nayetik, ari batetik zintzilika dagon arriyaren antzera bere nayetik zintzilika dago-ta.

Ez ori bakarrik : gizon eginda, Jaungoiko errukitsuak diabraagandik erosi zinuuan, ez urrez baizik bere zañetako odol biziz! sakramentu, grazi, ainbeste bizigarri ta pizkorgarri, animaren grazi-bizirako eman dizkitzu.

ERANTSIERA. — Zure gayez mai bat egiten badezu, mayaren jabe zera; zure diruz aberia erosten badezu, au zuria da; Jaungoikuak bere gayez egiñ zinuuan, bere nayez bizitza luzetu dizu, ta odolez erosi zinuuan; alde guztiyetatik ba zure jabia da; bakoitzak jabetza osoko gauzez zer nai ura egiñ dezake; nai badu puskatu, surtaratu, edo edertu dezake; nai badu mendetasuna eska litzayoke. Jaungoikuak gugandik zer eskatu du? Beraganako mendetasuna ezagutzia ta azaltzia; gizonari esan zion « aginduak bete itzatzu »; esan ez baliyo ere gizona biartua legoke aginduak gordetzera, biyotzian aginduak gorde-biarra jarri diyo-ta; aginduak betetzia bidezkoa da beraz. Bai, egiña egilliaren mendeko da beti; morroyak nagusiyaren aginduak diru-mordoskagatik gordetzen ditu, ta egiñ gaituanaren, ainbeste eman digun Jaungoikuaren aginduak bete biar ditugu, guchiye-naz biñipiñ eskerdunak geranez; Jaungoiko Egilliarri ta Emalliarri, ta bere ordeko Elizari aginduak betiaz mendetasuna azaldu ditzayogun ba.



## Pekatu larriyaren billaukeriya.

1) Fekatua zer da? (*Diyot berriz.*) Jakinda ta nai dala Jaungoikuaren edo Elizaren agindua austia; amar dira Jaungoikuaren legeko aginduak; bots berriz Elizarenak (*Aita Santuarenak*); oyen kontra zerbait egitia edo egin-gabe uztia oriſe da pekatua; ta gai larriyan autsi ezkeru pekatu larriya egiten da.

2) Pekatu larriya egiten duanak, itzez ezpada ere, biyotzez edo egitez diyo «*Jaungoikua, zuk agindu didazuna ez det egin nai, ta ez det egiten, baizik zuk nai ez dezuna, zuk debekatzen dezuna, zuk gorrotatzen dezun lujuriya, lapurreta..... gai larriyan egiten det, zure aserrez, inpernuz batere ajolik ez dit.*»

Auſe da pekatu larriya: Jaungoikuari *gai larriyan* ez obeditzia, bere agindua ez egitia, bere kontrako okerra egitia, bere legia ankaperatzia.

Pekatu egiten duana Jaungoiko aundiyaren mendeko chiki bat da. Pekatariyak pekatu egiten du, azkengabeko aunditasuna daukan Jaungoikuaren kontra, bere Egillia ta Emallia dan Jaungoiko leyalaren kontra.

Pekatu egin du une batzuetako goſo pozoitsu batetatik.

Pekatu egin du toki denak zorrotz zeletatzen dituan Jaunaren aurrian.

Pekatu egin du Jaungoikuaren nayetik biziya zintzilika daukan garayian, eta nai ezkeru bere izatia beriala kenduko liyoken unian.

## Pekatu larriyen gaistakeriya.

1) Pekatu larriya egitia lotsagabekeri ta gogorkeri aundiya izango ez da ba? Eſpañiko gizonak Erregia buru dutela, gizon-illtziak, lapurreta aundi-



yak legietan debekatuak dauzkate; lege-austia au larriya da, ta ala dalako urratzalliar zentz-aldi samiña ematen sayo gaistotegi (*presondegi*) gogorrian; gizonak jarritako legiak gai larriyan austia oker aundiya baldiñ bada, Jaungoikuaren, zeru-lurren Erregiaren legia gai larriyan austia gaistakeri ika-ragarriya dala jakiña dago.

2) Erruz maite ta asko egiñ digun gurasuak, ontartien ordañetan, mesede ariñ eta erreñ bat eskatuko baligu, bera ukatzia biyotz-gabekeri ta eskergabekeri aundiya izango litzake. Ta gurasuak baño erosuago maite gaituan Jaungoikuak, aginduen betetzia eskatu digun ezkeru, biyotz-gabekeri ta esker-gabekeri zentzagarriya ez-alitzake izango agindu larriyen austia, au da, pekatu larriya egitia? Bai.

3) Oraindik geyago: erregiari labanazuak eman dizkan gizon gaizkillia urkamendira daramate; erregiaren semia gizon orren zorion-ezaz kupiturik, jau-regitik jēsten da, gaitzkilliaren soñekua jazten du ta onen ordez urkamendira joanik odola ematen du, gaizkilliaren okerra kitotuz ta gaizkillia askatua utziyaz; onek okerrak erregiaren semia ill du beraz, ta oker bera berriz egingo balu errege-semiaren illtzia bere aldetik egingo luke. Errege-sume ori nor dan ba aldakizu? Jesukristo: Aita Jaungoikuaren seme gizondua; zerutik jechita gizon-aragiz jantzita, zañetako odola išuriyaz, pekatariyaren zorra kitotuzuan, pekatuaren eta diabruaren katietatik gizona askatuaz; pekatu larriya osteru egitia, Jesusen odola ostikopetzia, bere eriyotza berritza da; bai, egiñ dezun edo egingo dezun pekatu larriya begiyen aurrian zeukala ta arengatik Jesus illtzan; beraz pekatu larriya egitian, Kalbariyoko eriyotza zure aldetik berritzen dēzu; alaše diyo Paulo Santuak ere (1).

(1) « Rursus crucifigentes sibimetipsis Filium Dei », Hob. 6=6.



4) GEIGARRIYA. — Soldadu batek *kabo* bat illtzen badu, oker aundiya egiten du; *kapitana* illtzen badu aundiyaagua, *general*a edo erregia illtzia oker gogorragua litzake oraindik. Zer esan nai du onek? Zenbat-eta aundigua izan ofenditutako persona, orduan-eta aundiyaagua dala okerra; Jaungoikua, Erregien errege ta azkengabeko Jaun aundiya da; beraz Jaungoikua ofenditzia, ta batezere pekatu larriya egitia, azkengabeko oker larriya, eziñ-neurrialako gaistakeriya ta billaukeriya da.

### Pekatu larriyaren ondorenak.

1) Pekatu larriyaren billaukeriya ta gaistakeriya obetoago ikusteko, begira zayezu Satanasen eta aingeru pekatugillien ondorenai. Pekatu larriya egiñ zutenian jaingeru bikañak diabru nazkagarri biyurtu ziran! ¡Jaungoikuak orduan egiñ zuan inperua! ¡Milloika aingeru betiko surtara inperura Jaungoikuak bialdu zituan!

2) Adan eta Ebaren pekatu larriyai ere begira zayezu; ayengatik datozen gizon denen gaitz eta eriyotzak; berengatik, Jesus eta Maria ez beste guztiyak, jatorrizko pekatuz kututsuak jayotzen gera.

3) Pekatu larriyak gizon-animara ekartzen dituan kaltiak, ikaragarriyak dira; grazi santutzallia, bere doai ta edertasun ubariyakiñ batian, animatik berialase botatzen du; Espiritu Santuak ere animatik alde-egiten du; animako eliz ederrak lur jotzen du; anima nazkarritua gelditzen da; Espiritu Santuaren eliza zan animara diabruak datozen, bera diabrutegi ta pekatariya diabruaren seme biyurtuaz (1); animaren egite sarigarriyak saribidia galtzen dute;

(1) « Filii diaboli ». Joan 3=10.



gañera pekatu larriyak anima jartzen du inpernuko atiaren ertzian, inpernura erortzeko zoriyan, ta inpernuko sugai; ta biziyaaren ariya etengo balitz, zuzen inpernuratuko luke.

KRISTAU PEKATARIYA: 9 garren Luis, Frantziko Errege santuari, Blanka, bere amak, maiz esaten zion «Seme, erruz maite zaitut, eta milla bizi banitu, zure biziyaगतिक denak emango nituzke; alaere ordia nayago nuke zu illa ikustia, zuk pekatu egitia baño» Jaungoiko gurasuak zuri orise esaten dizu; «erruz maite zaitut»; asko zugatik egindu ta egingo du; ala ere bizigabetua ikusi nayago ziñuzke, pekatari ikusi baño; pekatu larriya egitia oker guztiyak baño aundiya, gaitz eta eriyotz guztiyak baño kaltegarriyua da-ta.



## Galde-erantzuerak osagarriak.

1) PEKATU LARRIYA EGITIA TA PEKATUAN (LARRIYAN) EGOTIA BAT ALDIRA? — Ez; eliza erretzia ta erria egotia ez dira bat; itsas-ontziya ondatzia ta ondatua egotia ez dira gauz bera; arrayak amuari eldutzia bat da, ta elduta egotia berriz bestia; pekatu egitia ta pekatuan egotia « bizitzia » ere ez dira gauz bat; pekatu egitia une batzuetako charkeriya « ofensa » da; pekatuan egotia berriz, ordutako, urtietako, pekatuan dagon bitarteko charkeriya da; pekatu larriya egitia, Jaungoikuarekin aserretzia da, pekatuan egotia Jaungoikuarekin aserre egotia. Pekatu egitiaren aldirian askoz ikaragarriyagua da pekatuan egotia; Bernardo Santuak diyoenez (« Pekatu egitia gizonena da, pekatuan egotia berriz (irautia) diabruena ») (1) Ez da ba ze arritu pekatuan dagonari Jaungoikuak betiko inpernua ematia, pekatuan dagon animak, (eriyotzak artan arrapatzen badu) beti pekatuan iraungo bai-tu « quia in inferno nulla est redemptio » ta betiko iraupenari betiko kastigua ematia bidezkoa da.

2) PEKATUAN NOR BIZI DA? Pekatu larriya « naiz bat bakarra » egin duana, alik-eta grazi santutzallia bereganatu-arte pekatuan dago; jatorrizko pekatua daukana ere pekatuan bizi da; pekatu arinak grazi santutzallia animatik ez dute kentzen; oyek egiñ dituana ez dago beraz pekatuan.

3) AGINDU BAT AUSTEN DAN BAKOITZIAN, PEKATU LARRIYA EGITEN AL-DA? Gai larriyan austen baldin bada, bai, gai arinian austen danian pekatu arina egiten da: ES BAT bere buruari osasunian kalte chikiya egitia pekatu arina da, bere burua illtzia berriz pekatu larriya; bultzada urko-lagunari « projimuari » egitia pekatu arina da; gogor jotzia edo illtzia pekatu larriya; gucni ostutzia pekatu arina da, chanpon asko ostutzia pekatu larriya; urko-lagunaren utsegite chikiya zabaltzia arina da, aundiya azaltzia, larriya; erdipuerdi moskortzia pekatu arina da, zentzua galdu-arteraño edatia pekatu larriya da; alassen beste gayetan ere.

4) PEKATUAK, LARRIYA IZATEKO, ZER BIAR DITU 1) GAI LARRIYA. — ES. BAT. pezeta bat ostutzia « sarritan ostutzen ezpada edo arlotiari ostutzen ez bazayo biñipin » ez da pekatu larriya; ezta ere jayez ordu osuan lan egitia, gai oyek arinak dira-ta; asko ostutzia ordia edo jayeko ordu askotan lan egitia larriyak dira, gayak ala bai-dira. 2) « pekatariyaren aldetik » pekatu egiten du ala EZAGUTZIA alde ontatik ba, ez aurrak eta ez eruak pekaturik ez

(1) « Humanum est peccare . . . sed diabolicum perseverare » S. Bern.



dute egiten, legia urratu arren; erbiya illtzen dual kuan, gizona illtzen duanak pekaturik ez du egiñ; larunbata dalako ustian jai osoz Meza entzun ez duanak, arrai-egunian (bijili-egunian), ala danik jakin-gabe, aragiya jan duanak pekaturik ez du egiñ jakin-egatik, ezagutze-egatik. 3) pekatu NAI-IZATEZ egitia; onengatik debekatutako zerbait « indarrez » bakarrik egiten duanak pekaturik ez du egiñ; ala gogorreko Moskortzia edo osotasun galtzia ez dira pekatu, indar utzez egiñ badira beintzat.

Oyek irurak egite batian biltzen diranian, pekatu larriya osatua dago, bestela berriz ez

5) GAI ARIÑIK EZ DUTEN PEKATUAK BAI-ALDIRA? AU DA, GAYAREN ALDETIK BETI LARRIYAK DIRAN PEKATUAK BA-ALDIRA? — Bai, gezurrezko juramentu-egitia, fede-egiyak ez sinistia edo ukatzia, birauak (« blasfemiak ») botatzia, piska bat jan ondorian Jaunartzia, lujurizko edozein pekatu egitia, beti dira pekatu larriyak, jakinda ta naita egiten badira, gaiabek ariñtasunik ez dute-ta.

6) BEREZ PEKATU EZ DANA EDO PEKATU ARIÑA DANA EGITIA, PEKATU LARRIYA IZAN AL DITEKE? — Bai, pekatu ez dana edo ariña dana larrizat artu, ta alaere egiten danian; EZ. BAT. uste du batek gaur arrai-eguna (bijili-eguna) dala ala izan ezta; aragiya jaten badu pekatu larriya egiten du; igandia dala usteta egun artan mezik entzuten ez duanak ere pekatu larriya egiten du; aundiya dalako ustian pekatu ariña dana egiñ duanak, pekatu larriya egin du bere ustietan Jaungoikua larri « ofenditu » dualako.

7) PEKATU ARIÑ ASKOK PEKATU LARRIYA OSATZEN AL DUTE? Pekatu ariñen gayak alkartzen diranak badira, gai larrira irichi orduko pekatu larriya osatzen dute; alkartzen ez diran gayetatik gai larrira ez da iristen; ESATE BATERAKO ostutze ariñ asko egiñ dituan licharreruak, gai larriya osatzen dan beziñ laister, pekatu larriya egin du, bada ur-tanto askok itsas-ontziya ondatzen duten eraz licharreru askok anima galtzen dute, gayak alkartzen dira-ta; beragatik pekatu larriya barkatuko bazayo ostutakuaren biyurketa egiñ biarrian dago.

Kontrara, gezur-ariñak esan dituanak, milla ta geyago aldiz esango balitu ere, ez luke pekatu larririk osatuko, baizik bakoitza chiki geratzen da; beren gaya alkartzen ez dana bai-ta.

8) PEKATUA NOLA SARTZEN DA ANIMARA? Geyenian onela: zirikaziyua «tentapena» burura etortzen da denbora pusska batez bertan ibilliyaz; tentapenari tokirik ematen ez bazayo, ez pekatu, baizik irabazi sarigarriya egiten da. Tentapenari toki eman zayonetik buruzko pekatua sortzen da «pensamentuzko pekatua»; sarritan, burutik biyotzera joaten da tentapena, ta gauz debekatuak zaletu ezkeru, biyotzeko pekatua egiten da «deziozko, gogozko pekatua»;



geroago, batzuetan biyotzetik mingañera edo korputzeko beste zatiyen batera zabaltzen da egitezko pekatua, «obrazko pekatua» osatuaz; gai larriko pekatuan ba pensamentuzko atiak irikitzen zaizkionetik, pekatu larriya egiten da, ta naiz aurreragoko atiak ichi, pekatu larriya egiñ da, lapurra barrenara sartu da-ta; geroko zaliak edo egitiak pekatu bera dira, baño aundituaguak; bai t bareen sagar-jatian, bai beste askoren pekatuetan, era ontanche animara pekatua sartu izan da.

9) PEKATUARI TOKI-EMATIA ZER DA? Pekaturako erabakiya artzia au da: pensamentuko atiak irikitzia; ESATE BATERAKO, bere burua illtzeko zirikaziyua etorri zayonian «ez det nere bururik illko, ezta orrelakorik pentsatuko ere,» bere artian diyonak, pekatuari tokirik ez diyo eman, ezezko erabakiya artu dualako, ta sarigaya egiñ du; kontrara «nere burua illko det edo illtzia pensatu dezadan» erabakiko balu, pekatuari toki emango liyoke, pekaturoko erabakiya artu dualako: fediarene kontrako zirikaziyuai «ez det ba siñisten» erantzuten diyonak ere, pekatuari toki eman diyo; onelasse beste pekatuetan ere; Tentapena menderatu ezkeru, asko irabazten da; Paulo, Benito, Asistar Pranzisko, Jeronimo, Senako Katalina, Maria Egipziaka ta beste Santu askok, lujurizko tentapenak ussatuaz, erruz irabazi zuten.

10) PENSAMENTUZKO PEKATUA TA DESIOZKO PEKATUA BAT ALDIRA? Ez; ostutzeko asmo-gabe dendako gossuai begira dagonak, pensamentu utsa dauka, gossuai begiratuaz, ostutzeko zalia daukanak berriz, desiua dauka; bat da ba begira egotia, bestia berriz zalia edukitzia; gauz debekatuari buruz begira egotia bat da (pensamentuzko pekatua), ta aren zalia edo irrikiya edukitzia bestia (deziozko pekatua)

11) Pensamentu utsezko pekatua ere larriya al da? Gai larriyari toki eman ezkeru, naiz gero ez desiatu, naiz ez egiñ, pekatu larriya da; pensamentu utsezko pekatuagatik, diabru biyurtu ondorian, inpernura joan ziran milloika aingeru; geroago ere, loikeriko, fede-austeko. . . . pekatuak makiñabat gizon inpernuratu dituzte, Santuak diyotenez; gañera geruago ikusiko degun bezela, pensamentu utsezko ere pekatuak bizkiyak edo iruzkiyak izan dituzke.



## PEKATU NABARBEN BATZUEK

Korputzeko gaitza, edo korputz-barrendik sortzen da, edo azaletik sartzen da; gaitz-aldiya sarritan berritzen danian, ajia (gaitz-zaña) barrenen dago, ta korputzetik ateratzen ezpada, gaitza ostera berrituko da; azaletik (au da: erretokitik, erortegitik, pozoyetik, person gaitzkilletik, edo beste zerbaitetik) gaitza, zauriya edo oñazia sarritan baldin badator, oyetako bakoitza gaitz-emallia da, ta beretara ez joatia bidezkoa da. Bi edo iru ortzeko labanak, bi edo iru zauri sartze batian egiten ditu; bi gaitzen zañak ere bi gaitz sortzen ditu. Gaitz kutsudunak izaten dira. Pekatuakiñ alatsu gertatzen da: pekatu bat sarritan barrendik sortzen baldiñ bada, oitura charra (*pekatu zaña*) barrenen dago; artatik sortutako pekatua berriez *oiturako pekatua* da. Gure animara pekatua maiz sartu-erazi duan azaleko gaitz-emallia, erorbidia da, ta artatik datorren pekatua *errrbideko pekatua*. Egite batetik pekatu bat baño geyago sortu ditezke; orduan egiten da pekatu *bizkiya*, edo *irukiya*.....; pekatu kutsuduna da *eskandalozko pekatua*. Oyetako bakoitza banaka ikusi dezagun.



## OITURAKO PEKATUA

## Argigarriya.

KONTUA.—Okertzio andoaindarrak anak okerrak izatez gañera ezpañak ere okerrak eta biyurriyak zituan. bañan ezpañ okerretik eran arren, zurrut eta mamaut egiten zuanian, urdaillera (sabelera) ardua zuzen bialtzen zuan; egun batez, ardoz talakatu (ase) ondoren, Okertziok mokollua arrapatu zuan; echera abiatu zanian, Andoaingo Kale Chikiko malda biziya jessten asi zan; maldaberakuan, pauso batzuek pizkor-shamar eman arren, asko kostata berenik, gurdi bati elduta, geratu zan; garai artan goora biyurtu zeikian, berriz ere ordia goitik beera burrundara biziz abiatu zan. An zijuan gure Okertzio sieskaren antzera balantzaka, abetik lerdia zeriyoia, pipa ortzetan zuela, gerrikua arrastaka zeramala; geratu nai zuan, ezin zuan ordia; orregatik begira zeudenai mingañ totelez oju egiñ ziyen esanaz; «Traba..a..a traba.a..a traba eman zaidazute»; an zeudenak traba emateko ordez algara ia kirkiriza lasaya egin ziyoten; andik laisster pausuen burrundarak, kale barreneko errollaren paret-ertza joerazi, ta putzura amildu zuan, elbarritua utziyaz; putzutik ateratzera joan ziran gizonak, Okertziori galdetu ziyoten, miñik artu al-zuan; arek erantzun ziyen Miñik artu dedan galdetzen dirazute? Trabik ez-emanak elbarritu nau; zergatik traba eman ez dirazute? Salleko batek arrazoï motza eman ziyon esanaz «Traba biar baubau ceorrek artzia uken. Zergatik abiatu aiz aifñ azkar? Polliki jechi izan baitzan ez itzan noski elbarrituko, ta Praiskuk eskeñi diken gurdiyaren gañian jechi izan baitzan, ozitzan putzura eroriko.» Erantzuer a egokiya.

## Erantsiera.

Pekatar i batzuek pekatuaren gossokeriz zentzugabetu balira bezela, ekiten diyote gai bateko pekatuak egitiari; maiz-egi ta ubabariyegi egiñaz oitura charra artzen dute; gelditzia zalla da, ta burrundarako pausuen eraz, oiturako pekatuak inpernura amiltzen ditu.

## Oitura charra.

Oitura charra zer da? Gai bateko pekatua sarri egitetik, pekatu ura bera egiteko gizonak bereganatu duan errezkeriya.

Oitura charra zenbat pekatuk osatzen dute? Jakintsuen guchi-goraberako erabakiz, gai bateko sei-bat



pekatu illian egiñ ezkeru, oitura charra osatua dago; ta andik aurrerako gai artako pekatua, oiturako pekatua da; ala, illian sei-bat bider birau gorriyak (blasfemiyak) esaten dituanak blasfemizko oitura dauka; pensamentuz edo egitez bere buruarekiñ loikeriyak illian sei-bat bider egiten dituanak, loikerizko oitura dauka. Oni begira : besterekiñ loikeriya urte osuan illero egiñ duanak, oitura charra beregan badauka jakintsuak diyotenez.

## Oiturako pekatuaren kaltekeriya.

Pekatu egiñ danian, kontzientziyak pekatuaren garrazkeriya adierazi du, pekatariyaren barrena imurtziyaz; oiturako pekatua egiten duanari ordia kontzientziya mututzen zayo; ta onen trabikgabe, pekatu batek bestia dakar Gregorio Santuak diyonez Zenbat pekatu datozen emendik; ura esaten dan beziñ errez pekatuak egiten dira-ta!

Oiturako pekatuak ezagumeneko argitasuna itzaliyaz, anima uzten du illundi egiña; onengatik, pekatariyari iruditzen zayo, pekatuak pekatu ez dirala, ta inpernuko atian dagola esaten bazayo ere, ez da batere plametitzen! Gogorkeri ta ichumen negargarriya!

Bitartian oitura charrak zañak luzetu ditu ta zubaitz zartuaren antzera, zañ indartuak daukazki.

Zañetik ateratzia zalla izan arren, Jaunaren laguntzez eta konpesiyo onez oitura charra animatik atera diteke jobia litzake alasse aterako balitz! Zenbaitek ordia asmogabeko konpesiyo z zañak oraindik geyago indartzen dizkiyo; konpesatuta, urrengo konpesiorako pekatu berak dakazki, zazpi urte zituala egindako pekatuak irurogei dituanian dakazki, oiturako pekatuak berak aña urte ditu iya; jau bai dala negargarriya!

Barrengo pozoyak sendagayez korputzetik botatzen dituzu, barrengo gaitzak, edo zañetik ebakita, edo sendagayez korputzetik ateratzen sayatzen zera, ta oitura charra animatik ateratzeko ¿zer egiñ dezu? oitura charra kendu biarrian, griña charra azitzen zer zabilta?

Oiturako pekatua berritu dezunian ¿zer egiñ dezun badakizu? Len konpesatu ziñanian pekatuak barkatzez batera, grazi santutzallía bere doai ubariyakiñ Jaungoikuak eman zizun; aren orda-



ñetan, bai Jaungoikuari, bai apaizari agindu ziñezun pekatu ura etzenduala egundaño egingo; ez dezu itza bete, baizik Jaungoikuari zitalkeriya ostera egiñ diyozu; ta onen bidez Jaungoikuak laguntzak guchitzen dizkitzu.

Diabruak berriz, bere mendetik len iges egiñ zenduala oroiturik, kate kementsuaguak erasten dizkitzu oraiñ, eta lengo iges zuloan diabru geyago ipintzen ditu (1).

Ara ba lujurizko, blasfemizko, moskorkerizko edo beste pekatuko oiturak zure animari egiñ dizkan kaltiak; Jesusekin batian esango dizu t « Ez dezazula geyago pekaturik egiñ » (2), bestela galduko zera-ta.

## ARRETAZ BEGIRA

*Oiturako pekatua konpesatu ondoren, pekatu bera konpesatzeko dakarrenari, barkaziyorik (absoluziyorik) eziñ eman litzayoke, oiturako pekatuak ez egiten edo guchitzen sayatzen ezpada: ala agindu zuan 11 garren Inozenzio Aita Santuak; au egiñ zuten Bernardo, Jabbierko Franzisko, Salesko Franzisko Santuak eta beste barkatzalle (konfesore) aitatuenak; pekatuak ez egiten edo guchitzen sayatzen ez dan oituratigak egizko damu ta asmorik ez dauka, ta abzoluziyua nola emango za-  
yo alperrik dala jakiñik? Onengatik, blasfematzen dezun bakoitzerako, moskortu zeran bakoitzerako. . . . edoze ñ oiturako pekatu egiñ dezun bakoitzerako jarritako « Agur, Maria » edo Limosna edo zerbait esaten edo egiten ezpadezu, zuretzat absoluziyorik ez dago, ta artuko bazendu, okerragua litzake zuretzat.*

(1) « Assumit septem spiritus nequiores se ». Luc. 11=12.

(2) « Noli amplius peccare. »



## ERORBIDEKO PEKATUA

## Argigarriya

KONTUA. — Iñrogei urte zeuzkala Donostiko korridara aurreneko aldiz joan zan Astigarragako Pontzio (Prudenzio); biyotz biguñekua zan eta toria (zallia zezen-adar-onduan ikusi zuanian jaren bildur eta zarrarak! Eskubiko biatz aundiyari ondotik elduaz lagunari esan ziyeñ «ORRA G ZARAJUA IYA IYA ARRAPATU ZIKEN, ETZIKEN OINBESTE (biatz bat) palta»; geroago toriatzallia arrapatu zuelako ustez, diadarka lagunai esan ziyeñ «Emendik guazemazute, gauz onik etziok-eta, bada orainguan adarra sartu ta illdik». Toriatzalliak yayuak eta trebiak ziralá, ta ze zenakarrapatzen etzituala esan ziyotenian, poz-bolara Pontzioren barrenera sartu zan eta andik laister lasaitasunez beterik challo-jotziari ta oju-egitiari ekin ziyon; korridaren azkenerako zezen-zale amorratua biyurtu zan Pontzio; echeratutakuan, zakiuz eta chiminiko zapiz noiznai ta nolainai sukaldian emastia toriatu zuan; urrengo igandez ¿zer egin zuela uste dezute? Cherritegira jechi, sei arrobako cherriya bizkarrez gel-nagusira (salara iyo, karlista denborako soñekua jantzi, pasodoble bat pazi-otsarekin batian kaniatu, oi gañeko oyal gorriya (sobrecama) artu ta «je torito» ujutuaz toriaketari ekin ziyon; ontanche aspertu-gabe sayo galanta egin zuan eta bere ustietan yayo toriatu zuan ¿ez altzan zalla!

EMEN ASTEN DA PONTZIOREN ERORI-SALLA Obetoago bere irrikiya (zale biziya betetzeko, mendi-zezen bat iarretik echera ekarri zuan; ikulluan asko aldiz mendi-zezena toriatu zuan; aldi bakoitzian beriz mendi-zezenak elbarritu zuan; zezen ura cherriya beziñ prestua ez baitzan, nork ezan Pontzio erua erzalá, bada elbarri-aldi ta oi-aldi bakoitzaren ondorian zezenetara osterá zijuan-da.

«Zarraren sistema seta ta tema» omen da; Pontziorena ala zan biñipiñ; Hernaniko, Martuteneko, Errenteriko ta beste erriyotako zezen jolasetara joan zan oraindik; zezenak ordia al i nene, a, a adarkatu edo ostikopetu zuan; zezenketan asi zanaetik emaztiaren erretolika ta misttuak trapu-zarra beziñ «ikiñ jartzen zuten Pontzio, jonek ordia isitlik egon eta beria egin! echejabiaren esanak eta kopeta beltzak geyago estutzen zuten; a aere agure se atsuak beria irauten zuan; Agutzuko Ama Birjiñ egunian Astigarrako festetan, ara zer gertatu zitzayon; arratsaldez erriko jostategiyan (plazan) azaldu zan Pontzio arroskua, kolkua chiriaz, gerrikua babe eta chapeta artalez be eta; lepotik berriz zintzilika zeukan arto-buruz antoiatutako kattia (kollaria); berriz ere zezenak arrapatuko zuala esan ziyoten lagun batzuek; Pontziok maisu antzera erantzun ziyen: «Ain kirtenak zinatetik eniken uste; chirta, baba, artale eta arroburuak ibili ezkeru, zezenak elbarritzen ez duala ez a dakizu? Uste onekin zezena toriatzen asi zan; BERONIKAK egiterakuan o dia zezenak Pontzio ziribirika bota ta elbarritu utzi zuan; orra gure Pontzioren artallak eta beste allak; janchen zabaldu ziran!: atzetik bakallua agiri zitzayon eta bere kolkua galbariya beziñ zulotsua agertu zan orduan. Angarillez echeratu zuten Pontzio. Noizbait berenik osasundu zan eta indartu orduko eche saria (errenta) eramanaz, zezenketak aitortzeko asmoz eta barkaziyua ar-



tzeko ustez, eche-jablairengana Donostira joan zan; ustegabeko choriyak kantatu ziyon ordia! Pontzioren pasaiztuak aditu zituanian eche-jabiak esan ziyon : « Mendi zezenak askotan elbarritu zaituala ta alaere echian daukazula », aurreneko aldiz orainche entzuten det, bestegabe nere echetik bialtzen zaitut, maistar eruaren biarrik ez daukat eta. Mendi-zezena echian edukiko ez bazendu ere, berdiñ-berdiñ echetik botako zifuzket, bada elbarri-aldi bakoitzian adierazi nizun, zezentegiyetara joaten jarraitu ezkeru, echegabe utziko zifuala; alaere ordia berriz eta berriz zezenketara joan eta elbarritu zera; zure itz-jatiak eta zezenketak nere errukiyaren neurrigaña bete dute; joan zaite ba nere aurretik eta echetik ». Negar-bolarez biartuta laister irichizan Pontzio echera; egun berian mendi-zezena echetik larre-mendira bialdu zuan. Santo Tomaserako Donostiko ta beste erriyetako zezen-jolasetara joangabe geratuaz, zezenketenganako gorroto biziya azaldu zuan.

Mendi-zezenaren bialdu-aldiya ta zezenketara geyago ez joateko benetako asmua eche-jabiarri agertu zizkanian, eche-jabia oso limurtu zan eta maistartza ostera eman ziyon. Pozaren-pozez far-irudiya zeriya bazetorren Pontzio echebidian; sagardotegi batetik, batek eta bestiak oju egin ziyoten : « Zezenketara noiz joango gaituk? » « Cuándo toreas? » Pontziok erantzun ziyen ; « Nere erokeriyak bukatu ituken » ; « en jamás de los jamases ». Eta ala, Pontzio etzan joan beñere ez toriatzera ta ez zezenak ikustera ere; ordu-ezkeroztik erritarrak berriz Pontzioren ordez Prudenzioren izenez deitu ziyoten.; Pontziok ba echeko-elbarri-bidia bialdu zuan! zezenketako elbarritegira joatiari utzi ziyon.;

## Erantsiera.

Pontzio toriatzallia setatsua ta burugabia zan noski? Bai, ta galanta gañera. Mundu onetan makiñabat Pontzio badaude; zenbaiti gal-urriya (arraiskua) ikuste utsak bildur ematen diyo; geroago ordia, pekatuaren gossokeriz lochinchatuta, bildurra ito ondorian, erorbidian bizitzen da; beregan edo bere echian pekatu-bide kementsua daukaten erorbidedunak, Pontzioren antzeko kirtenak dira. Pekatu-bidera maiz dijuazen erortiyak ere Pontzioren antzeko zaleti setatsuak dira. Errukarriyak batak eta bestiak konpesoria ren aginduen eran erorbidia bialtzen ez badute edo erorbidera joatiari uzten ez badiyote.



## ERORBIDIA (1)

Erorbidia zer da? Sarritan pekatu egiñ-erazten duan toki, person edo beste zerbait; batzuentzat erorbide ez dan toki, person edo gauza, beste batzuentzat erorbide izan diteke; *esate baterako*, ardandegira joanda moskortzen ez danarentzat ardandegiya moskorkerirako erorbidia ez da; pekaturik egingabe lagunarekiñ ibiltzen danak, laguna erorbide ez du; kontrara, igandero eraritegiyan moskortzen dan erarentzat, eraritegiya erorbide da; billerako-tokiye-tan, dantzatokiyan, antz-tegiyan (teatruan) edo beste tokiren batian pekatu maiz egiten badezu, toki-ura zuretzat erorbide da; zure lagunarekiñ itzez dala edo ibiltzez dala, edozeiñ pekatu sarritan egiten badezu, lagun ori zuretzat erorbide da; echian daukazkitzun liburu kaltetsua, albistari pozoitzua, echeko pekatu laguna, zuretzat erorbide dira; *itz guchitan* geyenetan pekatura amildu zaituan person, toki edo gauza zuretzat *erorbide* dira.

Zerbait batentzat erorbide izateko zenbat pekatu biar dira? Erabaki batez eziñ erantzun diteke; bidian askotan jarrita, askotan pekatu egiñ badezu, edo banaketan jarrita banaketan beenik pekatu egiñ badezu, bide ura zuretzat erorbide (pekatu-bide) da; ala urtian beiñ adiskide batekiñ ibilliyaz urtero. pekatu egin badezu adiskide ura erorbide da. Zeibat bider illian ardandegiyan moskortzen danaz, beste-gabe geyenian esan diteke, erale arentzat ardandegiya erorbide da la ta; onelañe beste gayetan ere.

---

(1) Erorbidiaren izen ontan sartzen ditugu pekatu bide kementsuak bakarrik.



**ERORBIDEKO PEKATUA.** — Erorbideko pekatua zer da? Erorbidiaren galmenez (indarrez) egiten dan pekatua.

**ERORBIDIAN JARTZEN DANAREN IÑOZOKERIYA.** — Espiritu Santuak esana dago gal-ingurua (arraiskua) maitatzen duana, bertan galduko dala (1); erorbida arraiskuz josiya dago; beraz an jartzia iñozokeriya da.

Erorbideko tokiya, subetokiya ta suzko labia bezela da, erorbideko persona, gaitz itsaskorreko persona bezela da; oyetara joan ezkeru pozoitu, kiskali edo kutzutzen zera, baita erorbidiak ere pekatua amiltzen du gizona; onengatik diyo Bernardo Santuak erorbide kementsuetan jarri ta ez erortzia ila pistutzia bano mirari aundiyagua dala (2).

Jesusek esana daukazu. zure begiyak erori-erazten badizu, aterata zugandik bota dezazula (3); esan nai du: begiya beziñ maite dituzun erorbidiak utzi edo urrutira u biar dituzula, naiz asko kostatzen; korputzaren onerako besua edo beste zati bat moztutzen dan bezela, animaren osasunagatik erorbida ayenatu biar dezu; bestela, konpesiyo charrak egingo dituzu, pekatuan biziko zera, ta azkenik inpernuratuko zera.

Erorbida utzi biar degu pensamentu utsezko pekatuak egiñ-erazten dizkigunian ere.

### ARRETAZ BEGIRA

*Ayenatu edo bialdu dezaken erorbida (au da: maiz pekatu egiñ erazten diyon liburua, ardua, ostutako dirua, emakumia, gizasemia edo beste pekatu-bidieren bat) beregan edo bere echian daukanari, ez aurreneko aldiz, ezta geroago ere (naiz eriyotzeko orduan arkitu) absoluziyorik eziñ eman lezayoke barkatzalliak (konfesorialak), geyenian biñipiñ, erorbida edo bere echian daukan artian; au beressitzen duanian absoluziyorako gai jartzen da.*

*Beste nunbaiteko erorbidera (au da: sarritan pekatu egiñ erazten diyoten dantzatokira, jokutegira, ardan-*

(1) \* Qui amat periculum in illo peribit \*. Ecc. 3=27.

(2) \* Majus miraculum est inter vehementes ocasiones non cadere quam mortuos suscitare. \*

(3) \* Si oculus tuus, tec. \*



tegira, lagun gaistueta, pekatuko personetara edo beste erorbidietara) *bere nayez dijuanak, absoluziyua artu baño len, erorbidera joatiari utzi biar diyo, ta irubat konpesiyo ezkeru erorbidera osteru joango baltz, absoluziyorik eziñ eman leitzayoke, lengo asmua baño eragilliagua agertzen ez badu biñipiñ.*

## ERORBIDE NĀBĀRBENENĀK

### Eraritegiyak.

Euskal-esaera da «Sabelak eta subak zenbat eman ainbeste eramā»; geyegi eranda moskortzen da gizona: gizon oraiya (moskorra) aberiakiñ berdiñdu diteke; oraindik geyago: gizon moskortutua aberiak baño beerago dago, bada aberiak egarriya ase-arte bakkarik eraten dute, moskorrak berriz, askotan, zentzua galdu arte-raño; eran ondorian, aberiak ibiltzeko gai dira; gizon moskorra ordia lau ankian jarrita ere, ibiltzeko gauz ez da; abek ala izanik, moskorkeriyak nazkatu biar giñuke, baña naigabez beenik aitortu biar degu, euzkaldunak gai ontan chit atzeratuak eta fedegabien mallan gaudela, bada lotsagarritzat eta zentzagarritzat artu biar liraken moskorrak farragarritzat geyenez Euskal-erriyetan artzen dira-ta.

Morkortzez gañera, batzuetan apaizen edo erlijiosuen kontrako gaizki-esakaka, blasfemiyak, aserriak, burrukak, beste batzuetan gizon-illtze, osasungaltze, ondasungaltze (1), alper-biyurtze, berandu-echeratze, echeke pake-galtze, loikeri edo beste pekatuak ardandegiyetan eta beste eraritegiyetan gertatzen dira edo andik sortzen dira.

Oyetako pekatoren bat eraritegiyak sarritan egiñ-erazi badizu, eraritegiya zuretzat erorbide da, ta eraritegira joatiari, lenbailen utzi biar diyozu.

### Dantza-toyiya.

Maria Moisesen arreba, Dabid eta beste Santu batzuek dantzatu izan ziran; dantz abek onak ziran ordia; euskal dantzak ere

(1) Spirago zan jakintsuak diyonez tisiss-tik illtzen diran eun-etatik 96 zurrutagatik gaitzdun jarri ziran; eritegiyetan (hospitaletan) daudenetatik, eunetatik 75 eraliak izan dira.



(erriko dantzatokiyan egiten diranak beintzat) garbi ibilli ta garaiz echeratu ezkeru, « berez » gaizgabiak dira; onengatik eldu-tako dantzak edo billeretako dantzak gallenduak dauden erriyeta-n, euskal-dantz chukun eta ariña ontzat ematia, ta zabaltzia ere bidezkoa dala dirudi.

Lotutako dantzak (baltsiua) ta billera dantzak ordia kaltekorrak dira; Dan izentatutako diabrua izan zan dantz debekatuen sortza-llia. Antziñako denboretan, gure Españiko erriyetan, dantz lotuak egiten ziran; baña kristautu ziranetik, españitarrai dantz itsusi abek nazka eman ziyen, eta beragatik laister utzi ta aztu zituzten. Españira dantz lotuak nork ekarri zituan ostera? Moruak (beltzak) ekarri zituzten. Euskal-erriyeta nortzuek eta noiz sartu zituzten? Kastillatarrak ekarri zituzten azkeneko guden ondorian; orduti-kan erdal oitura ori zabaltzen asi zan, eta ardosaltzalliak zirikalari izanik, guraso arretagabiak eta agintari zabarrak bide edo buru zirala ta dirala, geruago ta geyago Euskal-erriyetan gallentzen ari da; kristau elizkoyen artian ere bai! ¡batzuetan gabeko ez-orduak arte iraunaz gañera!



## Irakurgai osagarriyak. (1)

Noiznai, nunnai, toki agiriyan eta ichiyan ere egiten diran dantz aben kaltez egiten sendo batzuek emen jartzeko, bildurrez biñipiñ ez naiz egongo; zenbait emakume lotsagabek ezkontziagatik zelemo egin eta mototsa saldu ere egingo luke; abek dantzetan jarriya daukate uste osua, Baltsiotokiya «emakume amorratuen periya» dala ziyon jaun batek. Gezurrik etziyon, bada dantz lotuetara dijuazen emakumiak, chimaz eta kalparrez ollo-kolka bañon arruago, buruz kanabela beziñ utsak eta ariñak, aragizko griña charren karobiya pisseturik, eta pichikulez bereñ machurak eta itsusikeriyak estalirik, dantzategira biltzen dira; abere salgaya diruditela ta bizibide zoritsu arrapatzeko edo garisti saltzeko ustez choratuak dantz-orduaren zai irikitzen dande; lujurizko amorrasiyo sututa, eltzen diye beren osotasuna autsi edo lizundu nairik dabiltzan etsai maltzurrai, ta «aizia kurruñ eta ibilli munduñ» anchen dabiltza, zentzugabekeriz artza ta chimua diruditela, ta abek bañon itsusiyago; lujurizko garrakibo ibilliyak bañon geyago masalla gorritu ta asnasa larritzen diye; bitartian artzayetik urruti, otsuen atzaparretan gañera, choro-choro jostatzen dabiltza ardiyak !gazte amesleri! choro ta kupigarriyak!

Bai gizasemiak, bai emakumiak, begiraldi ta kiñu pistugarriyak, eldualdi lizunak, gezur-itx galgarriyak, isill-esan nazkagarriyak, zalekeri likisskeriyak maiz-asko egiten, dituzte dantzategiyan; alkarbide lasakak ere emendik asten dira geyenian; ondorengo echera-laguntziak askoz obiak ez dira; familiya lotzez betetzen duten erori negargarriyak dantz abengatik eta dantz-aldiyaren ondorenian gertatu ziran; osasun-gabetziak eta aitapen ona galtziak sarri-egi sortu izan dira dantzenatik.

Periya zertan geratu zan ordia? Morell A. diyonez, edozeñen atzaparretan sarritan dabillen emakumia, edo saldugabe, edo merke saldua geratzen da. ;Jakiña zegon! erostun traketsak eta erosgai tachadunak bildu bai-ziran! Emakumiaren aberastasunik obiena, dago garbiya, lotsaduna ta ehekoya izaten; neskach dantzariyak berriz garbitasuna, lotsa ta echerako zaletasuna galdu zituan; gañera barren ajiatua, birtutegabia ta amorrasiyoz betia dauka; perira maiz dijuan aberia inork ez du nai; dantz lotuetara maiz dijuan neskach ere dantzarako ta lotsagarrituta uzteko bai (eroriz lotsagarrituta baztartuak !zenbat gelditzen diran!), bañon gerorako inork ez du beretzat nai, edo bestela gizaseme zarpall, arlote ta alpeña batek, edo geyenez gizaseme kaskariñ eta galdu batek artzen du. Onelakuak ezkondu ondorian makilla yayo dantzatzen dute, ;Dantz iraunkorra!; lenago choro-dantza orain makill-dantza, beti ba dantza ta diabruaren arrantza! Ara dantz lotuen zoricharrak ta atarramentua. Euskal-erriyetan bertan ikusten ditugu aitatutako ondoren char abek guztiyak. Kontrara emakume zintzo ta garbiyak, biziara egokiz jabetzeko, abere gisa saltokira joan biarrik ez dauka; inora ibilli-gabe ehetik bertatik topatzen du, dagokiyon biziara.

(1) Erorbide onen eta urrenguren gañeko irakurgaiyak J. M. T. osatu ditu; egi galantak eta ikasgarriyak esaten ditu; gogoz ba toki eta an liyet nere sortan.



**BILLERETAKO DANTZAK.** — Aspo soñulariya (pilarmonika) juaz baxerri-echietan egiten diran billera-dantzetan eta aben ondo ondorian, lasakeri nabarbenak, naikeri lujuritsuak, izketa loyak eta echeratze galgarriyak askotan egiten dira; billera echiaren auzuetan pekatuko frutuak maiz-egi agertzen dira; dantz abetatik sortzen diran kaltiak baltsiotik datozenak bañon aundiyaguak dirala oraindik esan ditekete.

**ERANTZUPENA.** — Dantzetara dijuazen gazte loitsuak ¿zer diyoten badakizute? Pekaturik ez dutela egiten. Berai galdetuko niyeke nik ¿Jaungoikuari dantz-aldiya eskeñiko altziñozuteke? Dantzatokitik beste mundura, konpesatugabe zuzen joaterik nai al-tzenduteke? Ez noski; dantzak biziro onak ez diran siñaliã!

## MAITEKERIYAK eta LENGU ERORBIDIA

(MAITASUNA GARBIYA DA; MAITEKERIYA ORDIA EZ)

¿Pekaturik ez dezutela egiten? Begira zayezute datorren esan-errenkarari; Santu batek diyo emakumia lastua dala, gizasemia berriz sua, ta diabruaren aizematez alkarren animen erreketak, au da: pekatua sortzen dala. Bernardo Santuak ziyon neska-mutillak alkarrekiñ sarritan ibilli, ta pekatuan ez erortzia, ilia pistutzia baño mirari arrigarriyagua dala.

Alfonso Ligorio Santuak esaten du, alkarrekiñ dabiltzan eun neska-mutilletatik, bi edo iru ez bestiak, guchiyenez pekatu egiten dutela. Krisostomo Santuak esaten du dantzak dirala animak inpernuratzeko diabruarensorketak. Efren Santuak ziyon dantzak dirala gizasemientzat illundiya, emakumientzat galera, aingeruen naigabia ta diabruen poza.

Agustin eta Krisostomo Santuak diyote dantzatokiyaren erdiyan diabrua egoten dala. Basilio Santuak esaten du korputzeko garbitasuna, edo guchiyenez animako garbitasuna emakumiak galtzen dutela dantzetan. Basabe Aitak esaten du eun baltsiozaltetatik, lau ez dirala arkitzen pekatu larrigabe.

Pekatuan erortzen etzerala? Arkaitza altzera ba? Aingerna ere etzera ba izango noski? Sanson baño indartsuagua. Dabid baño santuagua. Salomon baño jakintsuagua etzera ba izango? Ez alegiya; abek maitekeriz pekatuatu ziran; beraz zu erresago pekatuatuako zaituzte maitekeriyak.

Galayari Espiritu Santuak esaten diyo: «Emakume dantzariyarekiñ etzaitte sarritan ibilli ta bakarrian etzayozula berari entzun, bere leunkeriyen indarrez betiko eriyotza arkitu ez dezazun» (1).

(1) Eccl. 9=4



Dantz lotuetan e'lo billera-dantzetan sarritan ibiltzen diran neskachak ez dira, ez echekoyak, ez lotsadunak, baizik erriko emakume ergel, nabarben eta arrunenak; Etak bezela emakume abek bere senarra ta bere burua denboraz galduko dituzte; orrelako neskachak, edo neskazar geratzeko, edo ijituakin uztarriyan lotzeko obiak dira, emazte onak izateko baño.

KRISTAU EUSKALDUNA. — Ez uste izan dantzen gañian geyegi esan dedanik, bada egi batzuek garbi esan besterik ez det egiñ. Kristaba zeran aldetik, fedegabien dantz nazkagarriyetan ez ibilli; euskalduna zeranez, erdal-dantz urde ta kalhetsuetan etzaite nastu. Guraso euskaldunak: seme-alabai dantz oyetara joaten galerazi. Agintari euskaldunak: geyegizko lasaikeriyak kastigatu itzazute ta obia litzake baltsiozaliak dantzatokiko zoko charrenera bialduko baziñukete, toki obeena euskal-dantz garbirako gordiaz; onek eskatzen du berriz dantzarako soñu-gayak lotugabe dantzatzeko gai izan ditezela; guchiyeneko ausse egiñ biar litzake euskalerriyetan; arretarik artzen ez badezute, gaztechuetaraño loikeriya zabalduko da, ta Jaungoikuari kontu estua eman biarko diyozute.



## Antz-tegiyak, iruditegiyak.

Emen sartzen ditugu teatruak, zinematografuak eta beste orrelakotsuak.

Antz-tegiyak « berez » ez dira gauz charrak, baño gaurko egunez egiten diran eran, geyenian erorbide dira, bada entzungai ta ikusgai ipiñtzen dira griña charrak, pekaturako zalekeriyak, mai-tekeri debekatuak, denak itz leunez apainduak ta estalkiz izkutatuta.

Agustin, Krisostomo ta Zipriano Santuen iritziz, antztegiyak dira Jujuriaren ikastegiya, griña charren erakuslekua ta erridiyaren (erreinuaren) izurriya.

## Lagun gaistuak.

Kayoleko choriz choriya erressena arrapatzen dan antzerà, lagun gaistuaren bitartez gizon ona pekatu an erresena erortzen da, bada gaistuak zomorrokeriz lan egiñaz, anima galdu-arte ez du etsitzen.

Bernardo Santuaren esanian, lagun gaistuak lapurrak dira, animako garbitasuna, graziya, birtutiak lotsa, ta zintzotasuna lapurtzen dituzte-ta.

Lagun gaistuaren pozoya itsaskorra da; sagar-pilla usteltzeko sagar-ale ustel bat asko dan bezela, gizon-salla gaistotzeko gizon gaisto bat naikua da.

Espiritu Santuarekiñ batian esango dizut « gaistuagandik aldegiñ zazu » (1), bestela beren antzeko bihurtuko zera (2). Lagun gaistua aserretzen baidin bada, aserretu dedilla; lagun gaistuen gorrotagarri izatia obia da berakiñ ibiltzia baño (3).

## Irakurgai charrak.

Basilio Santuak diyonez irakurgayak (lekturak), animen janari (cibus animarum) dira; janari osasungarriyak korputza indartzen duan bezela, irakurgai onak anima indartzen du; kontrara janari

(1) « Discede ab iniquo ».

(2) « Amicus stultorum similis efficietur ». Prov. 13=2.º

(3) « Melius est habere odium malorum quam consortium. »



pozoidunaren antzera, irakurgai charrak gure fedia ta anima pozitzen ditu.

Irakurgayak oraindano egin dituzten kaltiak, aundiyak izan dira; askoren artetik bakarrik izentatuko dizkitzut Eutiques animazalia, Zuinglio animazaya, Bardasano fedetsua ta Bullinger Jaungoikokoya; santutasunaren pillariak ziruditen lan gizon abek, irakurtze charrak egin ondorian, fede-etsa; biyurtu ziran. Antzina den bertan irakurgai charrak, lujuriya ta fedekabekeriya zabalduaz, makiñabat erri ta erridi osuak naspillatu ta galdu izan dituzte. Gaurko egunian bertan gizon asko fedegabetuak daude, irakurgayen pozoyagatik. 13 garren Leon Aita Santuak diyon bezela, gizondiyan gaur arkitzen ditugun gaizki-bizitze ta naspillak, batezere irakurgai charretatik etorri dira; abek dira zorigaiztoko uraldiak sortu dituzten iturriyak.

Irakurgai kaltegarriyenak zein dira? Periodiko ta nobela charrak.

(PERIODIKO) ALBISTARI CHARRAK. = Paper charren kaltekeriya uste baño aundiyagua da; Jainko-legien eta eliz-legien autsitziak ontzat jarriyaz, lege autsitzia ez ez balitz bezela agertuaz, batzuetan nabarben eta bestietan zomorro pozoya erantsiyaz, piska-banaka fedia auldu ta geroago fedia galdu-erazten dute.

«*Euskal-erruyan zer gazeta ditugu kaltegarriyenak? La Voz de Guipúzcoa, el Noticiero Bilbaino ta oyen antzeko beste batzuek.*

*La Voz de Guipúzcoa gaisto nabarbena ez da ba? Bai sobraere ala da. Ikusi-gabe sinistu eziñ zitekian, berri batzuek lenchiago jakiteagatikan katoliko euskaldunak jarri biar zutela gazeta aín gaistoa irakurtzera eta dirua ere berari ematera dotriña posoitzuak eran trukara» (1).*

«*Katoliko onak zer izengoiti jarri ziyoten La Voz de Guipúzcoa-ri? Ain gaistoa da bolaretan gazeta ori ere beste izenik egokitzen etzayo Inpernuko otsa edo Voz del Infierno*» (2).

(1) «Bai: pekatu da liberalkeriya».

(2) «Satanasen bandera edo liberalkeriya izentatzen diran liburutatik artuak».



Paper au ze pōzoitsua dan jakiteko, paper orren irakurtzalliai begira zayezu; abek dira erriko kristau otzenak, eleiz-aginduen gordetzalle zabarrenak, eta guraso lasayenak; erriz-erri, fediarren kontrako aziya zabaldu du, frutu malkogarriyak emanaz.

NOBELA CHARRAK. — Gaitz-egitiak, bere-buru illtziak, maitekeriyak, loikeriyak, alkar-illtziak (duelua) eta beste gaistakeri asko dakazkite nobela charrak; obetoago kutsu charra erasteko, gaistakeri oyek estalki leunez antolatuak eta gauzik bidezkuenak balira bezela agertzen dituzte, ta ausse da okerrera: pozoya urrezko jan-ontziyan ematia; nobela charren irakurtzalliak pitink i fedegabetzen edo fedian aultzen dira; buru-arintziak ere sortzen dituzte nobela charrak; chorakeri oyek utzi itzazu ba (1).

Irakurgai charrak bere mendian dauzkanak, zer egiñ bear du? Ez irakurri; obeena da berriz puska-puska egiñ eta surtara botatzia; Paulo Santuaren aginduz efeso-tarrak kiskali zituzten 140 milla errial baliyo zituzten liburu gaistuak. Nizako Eliz-billerak Arrioren liburuak erre zitezela agindu zuan; Zipriano ta beste Santu askok ere orisse egiñ zuten; zuk ere surtaratu itzazu-ba.

## Galde-erantzuerak batzuek.

1) Jaungoikuak gizonari legia ipiñi ziyonian, eraritegi, teatro, periodiko, dantz edo oyetakorik etzan; beraz Jaungoikuaren legez debekatuak ez daude oyek.

Denbora aytan izan ezta ere zer? Jaungoikuaren legiak gizon-illtzia debekatzen du, ta naiz fusillez, naiz kōñoz, naiz pozoyez (abek lenāgo etziran) gizona illze i oada, ilk ta ori laungoikuaren legez debekatua dago; era berian Jaungoikuaren legiak debekatzen ditu zentzua galtzia, loikeriya egitia ta fedia galtzia; ardoz dala, patarrez dala, zentsua galtzia pekatu da; dantzez dala, papezez dala, edo beste pistugarriz loikeriya egitia, pekatu da; mitiñez dala, paperez dala, liburuz dala edo beste bidez fedia galtzia, pekatu da; debeku oyek ba Jaungoikuaren legian sartuak daude.

2) Ez aldegu ba jostatu biar? bai, baña biar bezela; Jaungoikua ofenditu-gabe.

3) Dantz lotuetara, billera-dantzetara.... ta beste erorbidieta bestiak joaten dira ba, ta zergatik joan biar ez det nik? Zure galararako danian bestietatik ez atera zuretzat kontua. Eman dezagun auzokuak, erritarrak edo bestiak pekatu bidera joaten dirala;

(1) «Ineptas autem et aniles fabulas devita.» Espist. S. Pauli



alaere zuk orrelakorik ez dezu egiñ biar. Zergatik? Ara bertan zergatik; aguztu charra bestiak izaten dutenian bestiak bere burua putzura bota dutenian, bestiak gerrara joan diranian, bestiak gaistotegiyan daudenian, bestiak ill diranian, bestiak arlote daudenian, bestien zoricharra zuretzat etzenduke naiko noski? zori charreko tokiyetara etziñake joango noski? Ez alegiya, ta ondo egingo zenduko, ta? bestiak pekatu-tokira dijuazelako, pekatuan erortzen zerala jakinda zergatik zuaz pekatu-bidera zure anima zorigaiztoko egitera? Bestiai begiratzen diyezu eta zure animari ez aldiyozu begiratzen? Bestiak baño geyago eman dizun Jaungoiko ongilliaren nayari ez aldiyozu begiratu biar? Bai; ez ba bestiak autaratu, abek oker dabilzanean.



## PEKATU BIZKİYAK, IRUZKIYAK.....

## Argigarriya.

KONTUA. — Urrietako baserri batian, bi gorringo arroltz prejitua mayera ekarri zuten beñ batez; inozo ta ergei ssamarra zan seme gazteenari ait-amak galdetu ziyoten, plateran zenbat gorringo zeuden; gaztechuak erantzun ziyen « bat » zegoala; ¡Erromako zubiya etzan onen burutik sortu! erantzuera onengatik apari gabe oyera bialdu zuten gurasuak.

Balujan, filosofiya ikasitako beste seme zarraguak, bere burua asko-jakiña agertu nairik, gurasuai esan ziyen; « Platera ontan iru gorringo daude ta alassa daudela beriala adieraziko diyet. Bi gorringo dauden tokiyan bi gorringo badaude noski? Bi gorringo dauden tokiyan gorringo bat ere badago: bi ta bat, iru dira; beraz platera ontan iru gorringo daude ». Filosofirik ez ikasi arren, ama tuntuna etzan ordia ta zer egiñ zuan badakizute? Gorringo bat senarrari eman ziyon, beste berriz beretzat artu zuan; orduan Balujani esan ziyon; « Aizak, Balujan, irugarren gorringua, gorringo fillosofiko ori edorrek jantzak, irugarren gorringo orren biarrik ez digu-ta ». Balujani, amak ederra sartu ziyon! ¡Churi jo ziyon bere jakin-ustiak! Amaren filosofiya zan egizko filosofiya; bada platera artan, ez « bat », ez « iru », baizik « bi » gorringo zeuden arroltz batenak bañon.

## Erantsiera.

Egite batzuekiñ ausse gertatzen da; egite batetik bi pekatu batzuetan sortzen dira, ta bi pekatuko egitian, ez pekatu bat, ez iru, baizik bi arkitzen dira; beste egite batzuetatik iru pekatu sortzen dira bakoitzian. Ama batetik batian jayotzen diran bi semeri « bizkiyak » esaten zaye; egite batetik ateratzen diran bi pekatuak ere « bizkiyak » izentatzen ditugu, iru pekatuko egitiak berriz « iruzkiyak ».....

## PEKATU BIZKİYAK

Egite batetik bi edo geyago pekatu noiz sortzen dira? Egite batez bi edo geyago Jaungoikuaren edo Elizaren agindu, autsitzen diranian; pekatua agin-



duren bat autsitzia zala esan genduan; bidezko gauza da beraz, egite batetik, zenbat agindu autsi ainbeste pekatu sortzia; beregatik pekatu bizkiyak edo iruzkiyak egiten dituanak, bi edo iru zauri animari batian ematen dizka, iru ortzeko labanak sar-aldi bakoitzian korputzari iru zauri batian egiten dizkan bezela.

Pekatu bizki edo iruzki batzuek aitatuko al dizkit? Bai: ara batzuek.

PEKATU BIZKIYAK — Gaizki konfesatuta Jauna artzen duanak, bi pekatu egiten ditu: Jaungoikuaren legeko aurreneko aginduaren kaltez (kontra) bat aurrenekuaren kontra bestia ere, gauz sagraduak ajolagabe pekatuan artu ditualako (1).

Etsipenez bere burua ill duanak, bi pekatu batian egin ditu: aurreneko aginduaren kontra bat, icharopena (esperantza) galdu dualako: bost-garrenaren kontra bestia, ill dualako Elizatik ostu duanak, edo gauz sagraduak (kalizak, kopoyak . . . .) ostu dituanak, bi pekatu egin ditu: aurreneko aginduaren kontra bat, gauz sagraduak eragabe ibilli ditualako: zazpigarrenaren kontra bestia, ostu dualako. Gezurrezko ziña (jurementua) egin duanak bi pekatu egiñ ditu bigarren aginduaren kontra bat, jurementu gaizki egin dualako: zortzigarrenaren kontra bestia, gezurra esan dualako. Igandez mezako denbora guztiyan pensamentu loyak eduki dituanak, bi pekatu egin ditu irugarren aginduaren kontra bat; meza entzun ez dualako: seigarrenaren kontra bestia, lujuriko pekatua egiñ dualako. Gurasua jo duanak, bi pekatu egiñ ditu: bost garren aginduaren kontra bat, jo dualako: laugarren aginduaren kontra bestia, gurasua onratu ez dualako. Apaiza, prailia edo beste eliz-gizonen bat jo duanak: pekatu bat egin du bost-garren aginduaren auzteaz, jo dualako: aurrenekuaren kontra bestia person sagradua begirapengabe erabili dualako. Bere odoleko ehetarrarekin, edo lengusuarekin edo bestengusuarekin edo ezkontz-aidiarekin edo beste aideren batekin aragizko pekatua egiñ duanak, bi pekatu batian egiñ ditu: laugarren aginduaren kontra bat, aidetzari begiratu ez diyalako seigarrenaren kontra bestia,

(1) Pekatu abek biyak egite batetik ez baizik bitatik sortzen dira; ez dira ordnan bizkiyak; alaere bi Sakramentuak askotan batetsuan artzen diralako, bizkiyen antzekuak dira; onengatik bizkiyen artian sartzea ditugu.



onen austez. Zentzugabeko bizidunarekiñ egin duanak ere, bi pekatu batian egin ditu : bostgarren aginduaren kontra bat, gizon goitasuna beeratu dualako : seigarrenaren kontra bestia.

Eskonduarekiñ nastu dan ezkongayak, ego ezkongayarekiñ nastu dan ezkontz-ausliak, bi pekatu egiñ ditu : seigarren aginduaren kontra bat : bederatzigarrenaren kontra bestia, ezkontza urratu dualako. Garbitasuneko promesez (aginduz) Jaungoikuari lotua dagona loitzen bada, bi pekatu batian egiñ ditu : aurreneko aginduaren kontra bat, Jaungoikuarekiko lotura autsi dualako : seigarrenaren kontra bestia. Pazkuazkua egiñ ez duanak bi pekatu egiñ ditu : Elizaren bigarren aginduaren kontra bat : Elizaren irugarren aginduaren kontra bestia.....

PEKATU IRUZKIYAK. — Lengusu ezkonduarekiñ aragikeriya egiñ duanak, iru pekatu batian egiñ ditu : laugarren aginduaren kontra bat, aidetzari begirapenik izan ez diyolako : seigarrenaren kontra bestia, onen urratzez : ta bederatzigarrenaren kontra bestia, eskontzari begirapenik eduki ez diyolako. Aitatutako pekatua bere koñata ezkonduarekiñ egin duanak, iru pekatu egiñ ditu : laugarren aginduaren kontra bat, aidetasunari begiratu ez diyolako : seigarrenaren kontra bestia; ta bederatzigarrenaren kontra bestia, besteren emaztiarekiñ egiñ dualako.

Galbidiak ere pekatuak bizki edo iruzki egiten ditu; pekatu oni toki bereziya jarriko diyogu.



## IV

# GALBIDEZKO PEKATUA

(ESKANDALOZKO PEKATUA)

## Argigarriya.

**GERTATUA—FRANZIKO NASTUALDIYA (REBOLUZIYUA).** — Satanasen antzeko gizon eliz-etsai ta billabak, lapurreta, illketa, ta gaistakeri galanki egiñ zituzten Franzian, 18 garren gizalduaren bukaera-garayan. 16 garren Luis Erregia urkamendira eramán zuten; emendik itzegiten asi zan Luis esanaz: « Franzitarak; barren garbiya daukaldala illtzera nakarte; nere etsayai barkatzen diyet, nere eriyotza,.... » erregiaren itza entzun etzediñ, danbor-otsa jo ziyoten; andik laister gillotinez lepua moztu ziyoten; Maria Antonieta, Luisen emazte ta Franziko erregiña ere, egun guchiren barruan ill zuten.

Errege aben orde, 1793 garren urtian, Danton, Marat eta Robespierre, iru gizon odolzale, agintez jabetu ziran; aginduak betetzeko beren gisako gizon eriyotz-gilliak autu zituzten; orduan asi zan Franzian odol-isurtze ubariya, bada gizonik zintzuenai nolanai biziya kentzen ziyen; tribunal-aren aurrian okergabiak azaldu arren, onek minutu batzuen buruan, batere okerrik billatu-gabe, eriyotza agintzen zuan; gizaseme, emakume, aundizki, langille, arlote ta aurak era askotara illtzen zituzten; Paris-en 50 gizoni guchiyenez, eta geroago 150-ri, eguneroko GILLOTINEZ lepua moztutzen ziyen, beren odolak erreten zabala beretzen zualarik; beste asko berriz FUSILLEZ ill zituzten; Vende-en sailka ta eunka, kañoyez zala, putzura botatzez zala, bizigabetu zituzten; gurdiyetan, jendiaren chistuz, istilluz eta kirkirizaz inguraturik, gizon kupigarriyak illtzera eramaten zituzten; ill ondorian berriz, moztutako gizon-buruak makill luzien tontorrian denen parragarri ibiltzen zituzten; bi urteren barruan, 2.000 apaiz, 21.000 emakume, 300 erlijioso, 24.000 aur, 174.000 gizaseme, Paris, Bende eta Nantes-en ill zituzten; Bersalles, Abadia, Abiñon, Tolon eta Marsellan bizigabetuak, erruzko millakak, osatzen dituzte, baña illdako aben banakako errenkarak (listak) galdu ziralako, erri oyetan illdakuak eziñ zenbat-u (kontatu) ditezke.

Orrenbeste gizon zergatik ill zituzten? Errepublikak ta libertadia (la-saikeriya) biar omen zituzten, eta berak ziyoten oyeke iristeko asmoz, ainbeste gizon ill zituztela.

Odolez eziñ ase ziran Danton, Marat eta Robespierrek ze atarramentu izan zuten? Karlota Karday-k burniz Marat ill zuan « illtzen det gizon bat, eun milla gizon ill ez ditezen », esanaz. Danton ill erazi zuan lenago illketako lagun zan Robespierrek; onek ere bukaera odoltsua izan zuan, bada matral-ezurra berietakuak atera ta begi bat zintzillika jarri ziyoten; dantzariyak aurretik zijoazela, jendiaren chalo, ta ojuen artian Robespierre odola zeriyoala, urkamendira eramán zuten; emen lepua moztu ziyoten Robespierri, ta onekiñ batian beste ogeita bat lagun ere burugabetuak geratu ziran.



Ara ba iru gizon gaistok egin zuten ondamendiya; Errege-erregiñak. 222.000 pranzitar okergabe, eta beste asko millakak ill zituzten; iru illtzalliak ere azken kupigarriya izan zuten; ¡bestiak galdu ta beren burua galdu!

## Erantsiera.

Franziko nastualdiyaren antzera, galbide (eskandalo) nastutza-lliak, gizon diabrukoí, gizon aragikoí ta gizon mundukoyen bitar-tez, makiñabat eriyotz, egiten ditu; gizon galbidetiyak (eskandalo-suak) Jesus Erregien Irregia, ta Maria zeruko erregiña bere alde-tik illtzen ditu; au ez du naikaa; batzuetan banaka, ta sailka bes-tietan, mundu zabalían anima asko illtzen ditu; bere anima ere galtzen du. Orra zera arrementua.

## Galbidia (eskandalua).

Jendiaren zalapartari eskandalua deitzen diyo zen-baitek; baña ez da ala Galbidia zer da?. Urko-laguna-ri (projimuari) erortzeko bidia ematen diyon esan edo egite oker edo oker-antzeko bat itz batez esanda: es-kandalua da *ejemplo charra* ematia; grazizko bizitza kenduaz besteren anima galtzen dualako, eskandalua-ri deitzen zayo *galbidia* edo *illbidia* eskandalua ematen duana berriz *galbidetiya* edo *galtiya* izentatzen da.

Galbidia zeñ aginduren kontrako pekatua da? Bos:-garrenaren kontrakua, galbidiak besteren ani-ma erakuste charrez illtzen du-ta.

Galbidia gai askotan eman al diteke? Bai; barrengo pekatuak berezi ezkeró, gañerako pekatu guztiyak galbidedunak izan ditezke; fedegabekerizko galbidia, blazfemizko, jai-austezko, moskorkerizko, lujurizko edo beste oayetako galbidiak badira, ta oyetako bat egiten danielan, geyenian pekatu *bizkiya* egiten da.

Pekatu galbidedun batzuek aitatuko al dizkit. Bai: emaziaren edo beste baten aurrian paper edo liburu debekatuak irakurtzen



dituanak, bi pekatu batian egiten ditu: aurreneko aginduaren kontra bat, fedia pozoitzen dualako: galbidezkoa bestia, besteren animari illibidia ematen diyolako (au da: bere aldetik urko-lagunaren animia illtzen dualako); lagunena, anayen, echekeen edo beste norbaiten aurrian birau gorriyak esaten dituanak, blasfemiz gañera, galbidezko pekatua egiten du; bestiak dakitela, igandez mezik entzun ez duanak, bestiak ikusten dutela jai-osoz lan egiñ duanak, bestien aurrian gurasuakin edo urko lagunarekiñ erritan edo joka dabillanak. bakoitzian bi pekatu egiten ditu ta oyetako bat galbidezkoa; izketa lasayak, jostaketa debekatuak, jazketa pistugarriyak, kanta lizunak edo egite loyak **BESTEREN AURRIAN** egiñ dituanak, bakoitzian bi pekatu egiñ ditu: seigarren aginduaren kontra bat: eta bost-garrenaren kontra bestia, galbidia eman dualako onelasse beste gayetan ere.

**BI GOGORAKETA EMEN.** — 1-<sup>kua</sup>. Galbidia eman diyozun anima lenagotik galdua zegola badiyozu, eran-tzugo dizut, lengo zauriz gañera, beste zauri illtzallia galbidez eman diyozula, ta argatik beraren sendapena zailldu dezula; anima galdu bazendu bezelakoſe oker berdiña egin dezu ba, zure aldetik galdu dezu-ta.

2-<sup>na</sup>. Fekatu ez dan gauza eginda ere galbidia eman diteke; *esate baterako*, igandez *agiriyan* lan egiten badezu, ortarako daukazun erriko Erretoriaren baipena izkutatuaz, irugarren aginduaren kontrako pekaturik ez dezu egiten, baipena daukazulako; bai ordia galbidezkoa, baipena azaldu ez dezulako; gurasuak galbidia eman dezakete, berai ezkontzaz debekatu-gabiak, bestiak oartzen dirala, egiñ ezkerok; onengatik esan genduan *oker-antzeko* gauza besteren aurrian egitia ere galbidia dala.

## Galbidiaren zabalketa.

Galbidez Satanas-ek galdu-erazi zituan milloika aingeru; itz leunen galbidez diabruak Eba ta onek Adan galdu zituan; geroztikan ere galtiyak makiña-



bat kalte egiñ dute, bada blasfemiya zer dan ere ez litzake jakingo, blasfematzalle galtikak izan ez balira; erlijiko gañian ainbeste gaizki-esate egiten da, paperez, esatez edo egitez galiyak gezurra zabalitzen dutelako, ikusten degun aña berandu-echeratze ez giñuzke ikusiko, guraso galti batzuek bestiai galbidia (ejenplo charra) emango ez baliye; beste pekatu askoren zabalketa ere onelañe gertatu da. Bai; mundu, diabru ta aragiya, alkar-artuta ta galiya beren morroi dutela, anima galtzen dabilta; galiyak semietara, lagunetara edo errikuetara gaitz itsaskorren antzera, pekatua zabaltzen dute.

## Galbidiaren kaltekeriya.

Pekatu galbidedunari gogor eta aserriena Jesusek ekiten ziyon; beñgo batez, aur bati deitu, denen erdiyan bera jarri ta Apostoluai esan ziyen : « Nigan siñisten duten aur oyetako bati galbidia ematen diyonak, lepotik errot-arriya erantsita, itsas-ondora botako balute, obe luke ».

Jesusek arrazoiz ziyon ori; bada ikaragarriyak dira pekatu galbidedunaren kaltiak; pekatu larriyak pekatariyari bakarrik kalte egiten diyo; pekatu galbidedunak ordia bi pekatu larri erasten dizka pekatariyari geyenian biñipiñ: agindua urratu dualako ba, eta galbidia eman dualako bestia; urko lagunaren (projimuaren) animari berriz bere aldetik eriyotza ematen diyo.

Alde batetik jarri ditzagun lapur sonatuen oker eta gizon-illtziak, beste aldian berriz gaibidia; ayen aldian kaltegarriyagua da galbidia, bada lapurrak munduko ondasunak edo korputzaren biziya geyenez kentzen dituzte; galiyak ordia besteren animatik lapurtzen ditu grazi santutzallia, ta animako aberastasunak.

Bernardo Santuak geyago diyo : galbidia ematia Jesukristo illtzia baño oker aundiyagua dala. Ara zergatik: Jesusek bere korputzaren biziya baño geyago maite zituan gizon-animak, bestela berengatik ez baitzan illko : beraz urko-lagunaren anima illtzia au da : galbidia ematia, Jesus illtzia baño oker gizenagua da: galiyak orduan juduak baño illtzalliaguak dira. Juduak baño okerraguak dirala diyot? Baita diabrua baño ere galgarriyaguak dira,



bada diabruak ekiñaldiyak gizonaren buruari bakarrik egiten dizka, galtiyak berriz begi, belarri, biyotz eta beste zatiyai ere erasotzen diye.

GAÑERA. — Galtiyak ez bakarrik bere pekatuen kastiguak inpernuan izango ditu; berak erakutsitako pekatua munduan egien dan bakoitzian, kastiguak ubarituko zaizka inpernuen; galdutako animak inpernuratzen diranian berriz, madarik aziyoz beteko dute galtiya beti-aldi (eternidade) guztiyan.

KRISTAU GALBIDETIYÁ. — Zure anima galtzia naikua ez balitz bezela, besteren animak pozoitzen, ondantzen eta inpernuratzen zer zabilta? Ez dezu ikusten zure gaistakeriz zenbat dijuazen inpernura? Erruki zaitut, Jaungoikuak anima ayen ordez anima eskatuko dizu-ta; au ala izanik galbidezko pekatua biar bezela ez aitortzia, edo ez ordaintzia, chit negargarriya da.



## BITORIKO OBISPADU ONTAN,

OBISPO JAUNAREN BARKAMEN-PERAKO BAKARRIK, BERE-  
ZITUAK DAUDEN PEKATUAK.

- 1) Auzitegiyan egindako gezurrezko juramentua.
- 2) Navez egindako gizon-illtzia, ta ortarako laguntza nai dala besteri ematia.

3) Kalte egiteko gogoz, echiak edo soro-uztak (*gari, arto, artachiki garagar edo oluak.....*) sutzia, arbolak edo mastiyak purrukatzia edo alperrik galtzia

Eliz-legez, Bitoriko Obispadu ontan Pazkuazko-aldi ta beste aldi banaketan ez bestietan, Obispo Jaunak eta onek eskubidetutako apaiz jaun batzuek bakarrik, pekatu aben barkapena eman dezakete.

Gurutze-bulda artzen degun españitarrai beste bide errezagua ematen zaigu, bada bulda au artutako urte bakoitzian, bein (*eta eriyotzeko arreisskuan beste bein*) eta bi bidez bulda artu ez kern, bi aldiz (*eta eriyotzeko arraisskuan beste bi aldiz*) edoseiñ konpe-salarik pekatu abek litzazkiguke.



# EGI SAMIÑAK

## BIGARREN MORDOSKA

### INPERNUA

#### Argigarriya.

**GAISSTOTEGI LATZENA.** — Españiñ eta beste erridiyetan legiak jarriyak daude, bizitzalliak gorde ditzaten: Gipuzkoako bizitzalliak oker nabarbena egiñ duanian, Donostiko erabakilariyarengana eramaten dute; onek okerraren eran zentzaldiya (kastigua) ematen diyo: ala agertzen badiyote (bere gurasuak ondasunak galdu dituztelako) ariote ta gosiak dagon aurra, juezak bialtzen duan Fraisoroko edo beste nunbaiteko aur-echera; aur-echian ondo egiñ arren, naiko zoriion-eza badauka aurrak, guraso-gabe, ondasun-gabe eta loturan bizi biarrez jau dena gurasuen arretagabekeriz!

Oker ariña egiñ duana, juezaren aginduz eramaten dute Donostiko Antiguan dagon beko mallako gaistotegira (carcel correccional-era), aurrerarako ezi dediñ: gizon-illtzalliari edo gaitzgille sonatuari (eriyotza erabakitzen ez badiyo biñipiñ) bere bizialdi guztirako kastigua ematen diyo juezak, eta eramaten dute Zeutako edo beste nunbaiteko goiko mallako gaistotegira (carcel penal-era), an bere okerra ordaindu dezan. Bizi-aldi guztirako gaistotegi latzenian dauden biziera negargarriya ikusi dezagun. An daudenak nola bizi dira? Naikua janez eta edanez? Ez, gosia ubari, jakiya urri dutela; neguz eta otz dagonian, otz-ikarez dardar egiñaz daude, ta otzak ill ez ditzan, burnikate lakarrak arrastaka dituztela, pausuak eman biarrian arkitzen dira; udarez eta bero dagonian berriz, beroz lertzeko zoriyan daude.

**KORPUTZA NOLA DAUKATE?** — Gosez iyartua, auldua, burnikatez lotua edo elbarritua; arpegiya nazkagarritua daukate, begiyak berriz beren tokiyetatik ateratzeko zaletuak daudela badirudite; begiyak alde guztiyetan ikusten dituzte zikinkeriya, gel madarikatua, eta beren antzeko gizon gaizkilliak; birau, orru, marru, madarikaziyo, gilitza-soñu, kate-soñu, makill-otsa ta burni-otsa entzuten dituzte sarritan beren belarriyak; chumuch kozkalariyen usaya ta beste usanbre nazkagarriyak sumatzen ditu beren usaimenak. Gaistozayak maiz asko ematen dizte bizkarrian edo beste zatiyetan makillkazuak edo burnikazuak.

**BIYOTZA NOLA DAUKATE?** — Gorrotoz, espaz eta gaitz egiteko zalez betia; echekuak eta erritarrak gorrotatzen ditu, beren oroipenik agertzen ez dutelako; gaistozayak eta ango lagunak biyotzez eta itzez madarikaziyo betetzen ditu; ichiyan ez balende, gizon-illtze pranko egingo lituzkete oraindik orrelako gizonak.

Beren echetik, erritik, ongillietatik eta atsegiñ-tokiyetatik urrutituak daudé; echekuak, errikuak, lagunak eta gurasuak ere, gizon ayen aitapenik nai ez dute, ta berietakuak dirala aitortzeko, lotsatzen dira.



Errukarriya aben biziera! Beti gaizki; inondik beñere pozik ez, eta eziñ iges egiñ; eguna juan, eguna etorri ta beti berliartan. beti giltzapian beti ziorpian.

## Erantsiera

Au egiten zaye, Españiko erridiyan gizon-legiak autsi dituztenai: kastigu gogorra eman arren, gizon biyotz-bigunak ere ondo topatzen dute biziera ori, okerren erakua da-ta. Ez bakarrik errege, baizik Erregien errege ta gizon guztiyen Jabia da Jaungoikua, bai egiñ gaitualako, bai une bakoitzian biziya luzetu digulako, ta bai bere zañetako odolez erosi giñualako. Jaungoiko Egille ta Emalliak aginduak jarri dizkigu, denak gordetzeko biartuaz «serva mandata»; gizona ill orduko, Jaungoikuak gizon-anima bakar-auzira (bakar-juiziyora) eramaten du; emen Jaungoiko erabakilariyak bakoitzari dagokiyona ematen diyo: Adanen gaistakeriz animako arlotekeriya edo jatorrizko pekatua daukana, bialtzen du aurren inpernura (aurren linbora); onera dijuazenak ez dute, ez Jaungoikorik ez zerurik beñere ikusiko. Pekatu ariñak (benialak) egin dituana, Garbilekura (Purgatoriora) bialtzen du, ango susko kastiguz pekatua ta onen zorrak kitotu ditzan; pekatu larriya egin duana berriaz pekatartegi aundira au da: kondenatuen inpernura bialtzen du.

## Kondenatuen inpernua.

Jaungoikozko egiyak gizon-arrazoyez garbi eziñ azaldu ditezke, alaere ordia gizon-arrazoyak egi-aldia zerbait argitu dezakete; aldan garbiyena inpernuaren ba-izatia azaltzeko ba, Jainko-arrazoyez gañera, gizon-arrazoyak ere emango ditut, lenendik aitortuaz adieragarririk siñisgarriyena Jaungoikuaren eta Elizaren esanak dirala.

Gaurko kristaben artian, inpernurik baote dan edo ez, buruan dabilkiten batzuek badaude; ardandegiye-tan eta beste toki askotan ainbeste bider entzun dute inpernurik ez dala, ta bere buruan al-otia edo zalau-



tza sartu da; ezagutu nuen alde guztiyetan « Kalderarik (1) ba alda edo ez » galdezka benetan zebillen kristau zabar bat; inpernurik etzala erantzuten bazi-yoten, poztutzen zan denbora guchirako beenik; etzan ordia oso lasaitzen, berriz ere, inpernua baote zan iruditzen zitzayon-da.

Inpernua izaterik nai ez duten beste batzuek, gañerako gizonaa baño geyago balekite bezela, maisu antzera, aba betian, lañezaz eta arrunkaz diyote, inpernurik ez dala, ta itz bildurgarri au apaizak sortu dutela, gizonak ikaragatziagatik eta menderatziagatik.

Inpernurik ez dala diyoten abek nortzuek dira? Ah, gizon iltzalle, lapur, arrapari, kontzientzi zikiñeko gizon guztiyak ukatzen dute inpernuaren izatia ta oyecek dira inpernurik ez dala diyotenak; jonek asko esan nai du! Inpernurik ez dala ¿nork esan ote diye oyei? Beren erabaki tontorduna entzundakuan, badirudi Jaungoikua dala esalia, ¿nork esan diye ordia? Jaungoikuak ez, baizik beren antzeko gizon zar-patsu, galdu, arroško ta alproja batek; abek bezelakua balira gizon guztiyak, mundua bera naiko inpernu izango litzake, inpernuaren atakik-gabe, lapurreta, oker, ta gaistakeri geyago munduan egongo litzaketa; gizonak munduan bizitzeko ere, inpernua izatia konbeni da beraz; ona emen bertan inpernuaren baizaterako egokitasun bat

**ESATE ONEN ZAÑA**—Esate onen zaña badakizute zein dan? Beren gaistakeriya; onek berriz barrenen sortzen diye inpernuaganako bildurra; berai ichodoten dagon inpernua ikusten dute, gogoraziyo au burutik eziñ bialdu, ta inpernurik ez dala diyote, esate utsak piskabat beenik poztutzen ditu-ta; inpernua ez danik ez dute siñisten baizik, ez-izatia nai lukete;

(1) Inpernua, Pedro Boteroren pertza esan nai zuan.



onengatik «inpernurik ez da» esateko ordeztu, «inpernua izaterik ez degu nai, bildurra diyogu-ta» obetogago esana legoke.

Oyetakunai beñere entzun al diyezu zerurik ez dala? Ez noski, zeruaren izatia bildurgarriya ez baita

ADIERAGARRIYA — Gizon zintzo baten ondotik gaistozayak (guardia zibillak) igarotzen diranian, gizon ura ez da batere larritzen; gaistotegiyak (presondegiyak) ikusten baditu ez da estutzen, eta kale-ertz bakoitzian gaistotegiyak ikusiko balitu ere, ez litzake batere plametituko, berakiñ zer-ikusirik ez dauka-ta; gizon gaizkilia ordia, gaistozayetatik katazka igesi dabill, ikuste utsak barre-na dardarizatzen diyo; bere lagunen artian berriz, gaistozayez gaizki-esaka aritzen da: biyotzgabiak dirala, beren biarrik ez dagola esanaz. Gaistotegiyak; ¡bai eziñ ikusi dituala! ta aurreratuak gaudelako, gaurko egunez gaistotegiyen biarrik ez dagola isilludgabe diyo. Zergatik esaten ditu etengabeko eragabekeri abek?

Gaistozayak bere etsai ta arrapalari diralako, gaistotegiya bere bizitoki amorragarriya dalako, itz batez: bildurrak zulatzen dualako. Era berian, sarritan konpesatzen dan gizon elizkoyak, pekato-gabe arkitzen dan kristauak, apaizez ezdu gaizkirik esaten; inpernua danik berriz ez du aitatzen, ta milla inpernu izango balira ere lasai egongo litzake, aara joateko usterik ez daukata; gizon pekatariyari ta eliz-etsayari ordia apaizen soñeko beltzak inpernua gogora-erazten diyo ta gaizki esakari ekiten diyo; goitik edo betik zuzenetik cdo ziarretik inpernua mingañeraten du.

Ah! Kontsientsiyaren akulluak, barrengo kezkek etr bildurrak zulatu, esnaatu ta miñ eman diyo Inpernurik es baldiñ bada; ¿zergatik onenbeste bider mingañeratu? ez dan gauzak oinbeste miñ ematen aldiyo?

Akelarko sorgiñak ez dira biñpiñ onenbeste aldiz aitatzen.

INPERNUA BADALA SIÑISTIA IÑOZOKERIYA (ERGELKERIYA) EZ DA. — Inpernuagan siñistia iñozokeriya (ton-tokeriya) dala esaten badizute *ezetz* erantzun zayezu, egi ori ez siñistia dala iñozokeri galanta esanaz; ortarako, datorren aterakaya goguan artzazu:

Bide zabal batetik baomen zijuazen bi erlijioso, autsetan sarturik, oñak minberatzen, izerdi patsetan eta beroz lertzeko zoriyan;



inguru artatik igarotzerakuan, zaldi gañian zetozen bi galayetako batek bestiari esan zion: « Praile gizarajo oyei begira zayezu; zsrurik ez baldin bada oyen biziera latzak churi joko du; zer ez izan ustegabia topatu biar duten », izketa au erlijioso batek entzundakuan, erantzun zion: « Entzun zaldunak: inpernua baldin bada, zuek bai arkituko dezutela ustegabeko zoricharra ta atarramentua, zuen oraingo ustiak orduan gaizki aterako zaizkizute, inpernura joango zerate-ta. Erlijosuak egiya zion eta bere erantzuerak zaldunetako bat kristautu erazi omen zuan. Inpernua bada siñisten duanak eta siñispen onen eran bizi danak, bi aldietatik joku segurua egiten du: inpernurik ezpada, inpernura ez da joango, inpernua izanda ere ezta: inpernurik ez dala siñisten duana edo ez balitz bezela bizi dana ordia, inpernua izan ezkerro galduko da betiko; alde batetik bakarrik dauka ba joku segurua; inozuena ta burugabiena da beraz inpernurik ez dala siñisten duana

AGERGARRIYA. Bururatu dezagun lau bide dauzkan eche bat, bi bidetan lapurrik ez dagola, beste biyetako batian berriz badaudela; echeke seme bat aruntz-onuntz lapurrik ez dagon bi bidietatik dabill; beste semia berriz arraiskuko bidietatik. Biyetan zentzugabienor da? Arraiskuko bi bidietatik dabillena da alegiya; gizonen artian ere inpernua danik siñisten ez duana da inozuena, alde bateko bidia ichiya dauka-ta.

INPERNURIK BA-ALDA? — Bai bada; Jaungoikna badala, eguzkiyak argi-egiten duala, zu amaren semia zerala eziñ ukatu ditezken egiyak dira; inpernua badala oyek beziñ egiya da; inpernurik ez dala badiyozu edo pekatuzko bizitza eramaten badezu, eun urte baño len, zedorrek aitortuko dezu inpernua badala, aara joango zera-ta; onenian laister, zuk uste baño len, inpernuan orruka esango dezu «ergo erravimus» «gure ustiak oker atera zaizkigu»

## Inpernuaren ba-izatia.

¿Nundik dakigu inpernuaren ba-izatia, edo, nork esan diga inpernua badala?

1) Legia dagon erridiyan lege-urratzalliak kasti-



gua dauka ta alaſe ematen zayo, bestela legiak ez lirake gordeko; kastigu ori izaten da gañera lege-austiaren erakua. Gizon-erridietan ori egiten baldin bada, zuzentasun bera ta munduko erridien zuzenbide dan Jaungoikuaren erridien, lege autsitzalliak (pekatariyak) kastigua biar du; munduko agintariyak okergillientzat gaiztotegiyak badauzkate ta ¿oyek bano zuzenagua dan zeru-lurretako erregiak pekatari-tegiyak ez ditu ba izango? Bai baditu; pekatu ariña egin duanari Jaungoikuak kastigu ariña ematen diyo Purgatoriyuan; pekatu larriya egin duanari, kastigu larriya ematen diyo inpernuan; eta pekatu larri bakoitzak azkengabeko gaistakeriya daukan ezker, betiko inpernua ematia bidezkoa da gañera.

GEIGARRIYA. — Pello, seme billau, guraso-iltzalle, arrapari ta odolzalia da; Josek berriz denak maite ditu, eskaliai on egin eta eriyai laguntzen diye. Biyak berdin merezi aldute? Ez alegiya. Pellok gizonen kaltez ezezik, Jaungoikuaren kontra ere oker asko egin ditu: blazfematzalle amorratua, mezik entzuten ez duana, Jaungoikua gorrotatzen duana, eta pekatu larri ubariyen jabe da. Josek berriz Jaungoikuaren gogua egitiagatik Jaungoikua agurtzen du eskariyak eta egite onak eskeintzen dizka ta bera aginduak zintzo betetzen ditu; pekatugabia ta birtuteduna da.

Abek biyak, beren Egille ta Nagusiya dan Jaungoikuagandik sari berdiña artuko al dute? Ez, Joseri sari aundiya bidez emango diyo, Pellori berriz kastigu latza, okerraren erako kastigua: au da inpernua.

MARATILLA BATI ERANTZUERA = Esaten badirazu Jaungoikua ona dala ta inpernu-kastigua geyegiya dala, erantzungo dizut Jaungoikuak ona dan aldetik, pekatariyari inpernua ematen diyola, bere okerra neurrigañekua dalako; gizon-iltzalliar barkaziyua ematen diyon jueza, ez juek ona baizik juez zabarra ta juez-tza merezi ez duana da, bada juez onak gaizkillia kastigatu biar du; Jaungoikuak ere ONA danez Jainko-iltzallia (pekatariya) kastigatzen du.

2) Egite askoz, mirari ubariz eta batez ese bere pistutzez Jaungoiko zala azaldu zuan Jesusek; inper-



nuaz Jesusek zer esan zuan ikusi zazu: Jesus jayo baño len makiña bat aldiz esan zuten igarlariyak inpernua bazala; esan oyei denai Jesusek bayetza erantsi zíyen, bada lurrian bizi izan zan bitartian, asko bider gizonen aurrian Jesusek esan zuan inpernua bazala; infernum (1) (inpernua), gehennam ignis (2) (susko leiza), ignem æternum (3) (betiko sua), ignem inextinguibilem (itzali esiñ diteken sua), ta beste orrelako itzak, *amabost-bider* guchiyenez Lege berriko Liburuetan Jesusek esanak daude; Jesusen ordez Apostolu ta Ebanjelariyak maiz berritu digute inpernuaren ba-izatia. Garbiyago zer nai dezu? gauz guztiyen egille ta inpernugilliak berak inpernua badala, diyo ta ¿berak beziñ ondo nork daki? gizon batzuek, gizon askok, edo gizon guztiyak esango balukete ere inpernurik ez dala, alaere inpernua badala siñistu biarrian arkitzen gera beraz, Jesusek 'gezurrik' eziñ esan zezakian-da.

3) Jesusek emandako doayez, Aita Santuak fedeko eta oituretako gayian eziñ utsegin dezake (au siñisten ez duana, ez kristaba baizik fedeaustria (herejia) da.) Aita Santu denak, Pedrotik gaurko Benediktorañokuak, fedeko egitzat jarri ta erakutsi dute inpernua badala ta ango kastiguak betikuak dirala. Aita Santuak ba gizon-gañeko jakinduriz diyotelako, kristau denak biartuak gaude siñistera inpernuaren ba-izatia.

—4) Munduaren asieratik gaurdaño gizon guztiyak, arrosko batzuek berezi ezkerro, erlijiyoren bat, gezurrezkua dala, edo egizkua dala, siñisten dute; erlijio denak berriz (judu, gezurrezko jaink-zale, mahomatar eta Luterotarrak ere barrenen sartuta) siñistu ta era-

(1) •Math 11—23 Luc 10—15•

(2) •Mar. 9—42•

(3) •Math 25—41•



kutsi dute inpernua badala; nundik dator erlijiyodun denak, gure erlijiyuan siñisten ez duten gizonak ere, inpernuaren izatia siñistia? Arrazoyaren indarretik; arroskuen esanai utzita, gizon-siñistiari gai ontan jarraitu ditzayogan.

5) Burua nastua ez badauka biñipiñ aberiak baño bildur geyago diyo gizonak eriyotzari; gizon artian berriz justuak baño bildur makurragua diyo pekatariyak eriyotzari; onen gogoraziyo utsak pekatariya izutzen du; onengatik gogoraziyo au burutik bialtzen sayatzen da ¿Onek zer esan nai du? Eriyotz-ondorian zerbait badala, ta ¿ain urruti bildurra sortzen duan gauza zer da? Kastigu aundiya, inpernua, kastigu ariñak ez luke onenbesteko bildurrik emango-ta; pekatariyaren barrenak berak ere deitzen du inpernua badala.

## Inpernuko biziera

Inpernuko biziera nolakua da? Oso mintsua; 1) Inpernuko miñ bat da *barrengo naigabia*: ontasun azkengabia dan Jaungoikuagandik urruti egotia (1); Jaungoikua ikusi-gabe bizibiarra guztiz mintsua da, bada miñ onek Santuen esanez, bere tokitik ateratako ezurak baño eziñ esan aldiz biziyo naigabetuko du kondenatuen biyotza; Jaungoikua galtziak, eta zeruko zori-ontasun gabe bizitziak ar madarikatuaren antzera (2) orru amorragarriyak atera-eraziko dizka.

2) *Susko oñaziak* dira bigarren miña; Jesusek esana dago inpernuan: « caminum ignis » « susko labia » : « gehennam ignis » « susko leiza » dagola; in-

(1) • *Discedite á me.* •

(2) • *Vermis eorum non moritur.* •



pernuko suak oñazetzen du kondematua ez bakarrik azaletik, baizik barrendik ere bai (1); su orrek kiskaltzen du kondematua, osiñak erretzen duan eraz: errekiña batere austugabe; illunpe itokorra jartzen du berriz inpernuan suaren kiak (2).

Munduko suak inpernukuaren onduan ichurezko su epelak dira, Bernardino Santuak diyonez; mundu ontan su kementsuak badaude ba: Bilbaoko Altos Hornos-ko labe gorituetara erortzen dan gizona, burni-urtuan ezur eta mami urtua une batez geratzen omen da; urase da su indartsua; alaere Bernardino Santuaren esanetik ateratzen danaz su orrek inpernuko suaren onduan su-ichura besterik ez du; 1873 garren urtian abere basotiyak barrenen zeuzkan kayolak Nueva York-en su artu zuanian, katomotz, leoi, artz, chimu eta beste abere askoren orru, zalapart eta istilluak, burniyen goritasunak, kayoleko gar eta kiak, an zeudenak dardarizatu zituan jara bertan kondematuen eta inpernuaren antzgai egokiya!

Su ta burni urtu oyen barrenen egongo altziñake? Karobiko surtara sartzeko biyotzik izaigo altzendu-ke? Ez noski, ta munduko suben gañian dagon inpernuko su gartsura joango zerala jakiñik, pekatu larriya egiten dezu? Agiñeko edo sabeleko oñaze pitñ bat eziñ eraman dezu ta ¿begi, belarri, buru, biyotz, ezagumen au da: korputz-animak) susko oñaze biziya betiko zuretzat artzeko gai altzera? Munduko gaistotegiya eziñ ikusi dituzu ta ¿zergatik gorrotatzen ez dituzu inpernua ta onen emallia dan pekatu larriya? Diabruari nola jarraitzen diyozu, bera inpernuko suaren nastutzallia dala jakinda?

(1) «Omnis enim igne salietur.»

(2) «Tenebras exteriores» Math. 8—12



Arriya biguñduko luteken gogoraziyo abek peka-  
tariyaren biyotza biguñdu ta samurtu bezate.

## Inpernuaren beti-aldiya.

1) Inpernua betikua alda? Bai; Jesusek esan zuan inpernuan : « ignem æternum » « betiko sua » : supplicium æternum « betiko oñazia » : ignem inextinguibilem « itzali eziñ diteken sua » : vermis eorum non moritur « illtzen ez dan arra » dagola; bukaeragabia da beraz inpernua.

2) Elizak ere Trento-ko Goi-billerad pœnas œternas mœreri « pekatariyak betiko miñak merezi dituala diyodian, inpernuaren betiko-aldiya adierazten du.

Atanasio Santuaren siñisgai-mordoskak erakusten du, okerrak (aundiyak) egiten dituztenak, betiko surtara joango dirala (1).

3) Beti-aldiyak zer esan nai duan ba-aldakizu? Aldi ori bukaeragabia dala; au esatia, garbi azaltzia baño errezagua da; mundu osua ertz batetik bestera, esku-bitik ezkerrera, numero chikiz beteko balitz; ze salla agertuko litzaken! onenbeste urte noiz edo noiz bukatuko dira, baña bukatutakuan ere, len beziñ urruti agiriko da inpernuaren azkena; beste asko bider, urte salla bera igaro ezkerre ere asieratik beziñ urruti agertuko da inpernuaren buka-garaya. Milla urte bakoi-tzian ur tanto bat itsasuetatik aterako balitz, munduko itsasuak ¿noizko agortuko lirake? Ez dakigu; itsasauk agortu ondorian betialdiya len bezelase egongo da.

(1) •Qui vero mala in ignem æternum•



## Galde-erantzuerak osagarriak.

1) INPERNUA APAIZAK SORTUA ALDA? — Ez, apaizak izan baño lenagotik gizonak, Adan-dik asita, inpernuaren baizatia bazekiten; zenbaitek ala uste arren, apaizak ez dute inpernua izaterik nai; apaizak beste aginduak ezezik elizagindu berezi asko gorde-biarra daukate ta pekatu larriya egiñ dezakete; pekatuan ill ezkerro berriz, inpernura joango dira; au ez da noski naigarriya izango? « Aurrerassiago goazen ». Donostiko sendalariyak (medikuak) etsipen osua gaisoaren gurasoari ematen badiyo, bere buruari kalte egiten diyo, bestela berrizko senda-aldiyetan chanpon geyago apika irabaziko zituanda; apaizai inpernuz alatsu gertatzen zaye; illen-elizkizunez, errespontsuz, mezez, diru-mordoz edo beste nolabait animak inpernutik atera ditzazkete esan edo zabalduko baluteke, apaizai etorriko litzayoteke inpernua izatia, gero andik ateratzekotan, pekatariyak, askok biñipiñ, dirua utziko liyekteta; inpernua badala diyotenian ordia, betikua dala ta inpernutik animarik ateratzerik ez daukatela adierazten dute; aldeontatik inpernuak kalte egiten diye. Ara zergatik Kaiñ edo Judasentzat nork mezak aterako zituan? Inpernutik ateratzerik ez bai dago! Pekatari gogortu bat, edo konpesiyo-gabe edo pekatuko une berian illtzen darian, bururatuaz inpernuan egongo dala, bestela mezak aterako lizkiyotenak meza-gabe uztea dute; « zergatik dirua alperrik emango degu inpernuan egongo da-ta » arrazoiz diyote; etsipen onek ba, meza-sariak eta beste irabazkizunak apaizai lermatzen dizte.

Lenguak alde batera utzirik « eziñ dezakegu inpernurik iñor atera » aitortu biarra, umilgarriya litzake, apaizak inpernuaren sortzalliak izan ezkerro.

ORAINDIK GEYAGO: Apaizak etsai asko dauzkatela denok badakigu; gizon gaizkille, lasaka, goiko ta beko ajolakabiak apaizen etsayak dira; abek denak gorrotatzen dituzte apaizak eta albaluteke apaizak begiyen aurretik urrutira bialduko lituzteke. Onenbeste etsai; zergatik dauzkate apaizak? Ah Apaizen soñekuak, predikuak eta izatiak aginduen gorde-biarra ta inpernuaren ba-izatia adferazten dutelako; aginduen (batezere seigarrenaren eta zazpigarrenaren) gorde-biarrik ez dagola, ta inpernurik ez dala, apaiz denak erakutsiko baluteke, pekatariyen begiyetan apaizak onak izango



lirake; apaizak orduan pakian pacharan, eta etsaigabe biziko lirake.

Uste gezute apaizak sortu dutela ainbeste gorroto, etsaikeri ta pakeeza ekartzen diyen inpernua? Ez, apaizak ere lagun-zale ta pake-gizonak dira-ta Aitortu dezagun orduan inpernua apaizen sorketa ez dala.

2) INPERNUA BADALA ESATERA ¿BESTE MUNDUTIK IÑOR ETORRI AL DA? Galdetzalle oni galde zayozu zuk «Zeutako gaistotegiya badala esatera Zeutatik iñor etorri al zazu?» Ez alegiya; gaistotegiyan betiko daudenak, nola etorriko dira ba? Orisse nai luteke, pisska bateko beenik andik ateratzia; inpernutik ere (berak nai dualako biñipiñ) iñork ez dauka etortzerik, betiko inpernuko bizilari bai-dira; au onela izan arren, Jaungoikuak ala naita, gizonai bildur osasungarriya ematera etorri izan dira batzuek, gerossiago ikusike degun bezela.

Beste mundutik iñor etorri al dan? Bai, Jesukrtsto beste mundutik etorri zan eta Jesusek, len ikusi degunez, askotan esan zuan inpernua badala; ez da beraz egiya, beste mundutik iñor etorri ez dala.

3) INPRERNUA IÑOR JOATERIK ¿JAUNGOIKUAK NAI AL DU? Ez; juez onak gaistotegira iñor joaterik ez du nai; baizik gizon denak okergabiak izatia nai du; alaere, goguaren kontra beenik, gaizkiliari kastigua eman biarrian arkitzen da; seme maitia gaizdun dagon bitartian, gurasua leyatzen da semia sendatzen, bañan ill ezkeru, lur-zulora bialtzen du, korputz illak nazkatzen du-ta; gizon denak zerura joatia nai du Jaungoikuak (1) denengatik ill bai-zan; pekatuan illdakua ordia nai ta nai-ez inpernura bialdu biarrian dago. Denak zerura eramanda Jaungoikuak zer galduko luke? Pekatariya zerura eramango balu Jaungoikuak zuzentasuna galduko luke; zuzentasuna galdu ezkeru ez litzake Jaungoiko; beraz pekatariya zeruratu ezkeru edo-inpernugabe utziko balu, Jaungoikuak Jaungoikotza galtzen luke.

4) JAUNGOIKUA AIN ERRUKITSUA DALA TA; ¿INPERNUA KASTIGUTZAT NOLAZ EMATEN DU? Zu, gizon prestua zera noski? alaere chingurriyak oñetik kozkatuko baziñu, aguro asko lerdekatuko zenduke; zure zakur amorratuak eltzen badizu, laister illko dezu; zure morroyak sabeletik labana sartuko balizu, echetik gaistotegira berialasse bialduko zeuduke; bidegabekeri abek egitia baño aundiyagua da pekatu larriya egitia, bada pekatariyak pekatu la-

(1) «Vult omnes homines salvos fieri»



rriz bere aldetik illtzen du, bera bañon, ez milloi bat aldiz, baizik ezin konta ala aldiz aundiyagua dan Jaungoikua; alaz guztiz ere, errukitsua dalako, ez du Jaungoikuak pekatugillia lerdakatzen, baizik illarte ichodoiñ eta, damutzen baldin bada, ta konpesioz barkatzen diyo; pekatuan illtzen bada ordia su-leizera (infernura) bialtzen du, zubaitz usteldua moztuta surtara botatzen dan antzera. Obetoago esan genezake berriz, ez Jaungoikuak, baizik pekatariyak berak bere burua inpernuratzen duala; gaistakeriyak izkutatzeke, ez ba Jaungoikuaren errukjrik mingañeratu.

5) Une batian pekatu larriya egiten da ¿ta Jaungoikuak nola ematen du argatik inpernu betialdiduna? Zeutako gaistotegiyan daudenak une batzuetan, eriyotz, lapurreta eta okerra egiñ zuten; alaere urte askotan edo betiko bertan egon-biarra daukate. Inpernura joaten diranak ere beti anchen egongo dira. ¿Badakizu zergatik? Pekatu larriya egin duanian, zitalkeri ikaragarriya egin du pekatariyak; alaz guztiyak ere pekatu larri utsez inpernura ez du bialtzen Jaungoikuak, bestela pekatu larriya egin duten denak inpernuan egongo lirake oraiñ; pekatariyak inpernuratzen ditu illarte pekatuan irauten dutelako; pekatuan ill dana betialdi guztiyan pekatuan biziko da, inpernuan barkaziyorik ez dago-ta (1); betiko iraupenari betiko kastigua ematia ondo da. Aitatutako chingurri edo zakur amorratuak ortzak zure zankuan sartuak badaukate, berak jotzen edo zanpatzen ariko ziñake, kozkatzen ari diran bitarte guztiyan; kondenatua beti-aldi guztiyan Jaungoikuarekin aserre egongo da, beti Jaungoikuari zitalkeriyak egiten ariko da (2), onengatichek ba kondenatuaren kastigua betikua da.

6) ZENBAT PEKATUK GIZONA INPERNURATZEN DUTE? — Pekatu larri batek bakarrik gizona inpernuratzen du, pekatuko egoeran eriyotzak arrapatzen badu; Lion-go Eliz-billerak erabakitako fededo egiya da au; pekatu larri batek ba, pentsamentu utsezkua izan arren, gizona inpernuratu dezake. Une batzuetako gosso pisika bategatik inpernura joan biarra ta an oñaze, miñ eta naigabez beterik betiko egon biarra ¿ze negargarriya dan!

7) INPERNURA ASKO JOATEN AL DIRA? — Bai, geyegi; Jesusek esan zuan zerurako bidia estua bala ta inpernurakua berriz zabala (3); Teresa Santuak ziyon animak jessten dirala egunero inpernura neguko gabez elur-maluak lurrera erortzen diran beziñ ubari; Fedeko egiya da pekatu larriya egiñ duana, pekatutik irten-

(1) « Quia in inferno nulla est redemptio. »

(2) « Reus æterni delicti Marc ». 3—29.



gabe illtzen bada, inpernura joango dala ize pekatu asko egiten diran ikusteko, gizon artera begiratu besterik ez dago! blasfemi, fede-ukatze, jostaketa lizun, irakurtze charreko... pekatu larriyak ubari ta nolana egiten dira. Damuz edo konpeziyoz pekatua kentzen al dute? Pekatu-bidia utzi al dute? Eriyotzeko garayian benetan damutzen al dira? Obia litzake; guchik berriz egizko konpeziyua eriyotz-aurrian egiten dute, geroago ikusiko degunez; negarrez beenik aitortu dezagun ba inpernura esko joaten dirala.

8) KONDENATUEN KORPUTZA ERE INPERNURA JOANGO AL DA? Bai; ill ondorian bi auzi izango ditu gizonak: ill da beriala egiten dan banakako auziya (juicio particular) bat: emengo erabakiz pekatariya animaz bakarrik inpernura joango da, ta pekatariyaren korputza lur-pian geldituko da; beste auziya izango da azken-auziya (azken juiziyua, lenen juiziyua); auzi onen aurretik, aingeruaren tuturrutuaren aginduz, gizon guztiyen korputz-animak alkartuko dira betiko; justuak zerura joango dira; pekatariyak berriz inpernura animez eta korputzez.

9) PEKATU LARRI ASKO EGIÑ DITUANAK ETA GUCHI EGIÑ DITUANAK, ¿INPERNUAN KASTIGU BERDIÑA IZANGO AL DUTE? Betiko kastigua izango dute biyak, bañon asko egin dituanak, kastigu geyagua ta aziyagua izango du; bi pekatu egiñ dituanak biren kastigua izango du. bat egiñ duana batena.... Florenziko Eliz-billerak erakusten digun egiya da au.

10) INPERNUA NUN DAGO? Ez dakigu; azkeneko asnasa eman-go degun tokiya, gure lur-zuluaren tokiya; Garbilekua (Purgatoriyua) ta zerua nun dauden ez dakigu; banakako auziya ta denen auziya nun egingo diran ez dakigu; ez da ba arritzekua inpernua nun dagon guk ez jakitia, ez Jesusez. ezta Elizak ez digute esanda; onengatik Krisostomo Santuarekiñ batian esango dizut « inpernua nun dagon jakiten ez dezagun denborik alperrikan galdu, baizik inpernutik iges egiten leya gaitian ». Galdutako chanpon edo beste gauzak dauden tokiyak ez dakizkigu, ta galdutako animen tokiya au da inpernua nun dagon jakiten ibiltzeko orde ez egi-te sarigarriyak pillatzen saya gaitezen.



## Agertze batzuek.

Inpernutik inor etorri izan alda? Bai, Jaungoikuak ala naita, agertu izan dira kondenatuak aldi batzuetan; datozen agertziak ez dira fedeko egidak, Elizak siñis-biartzat jarri ez dizkigu-ta, baña gizon-fedia berai eman biar diyegu, gizon jakintsu ta ezer-gatik gezurrik esango etzutenak esan dizkigutelako.

1) FRANZISKO JERONIMO SANTUARI EGINDAKO AITORPENA.— 1707<sup>garren</sup> urtian, Napolesko (Italiko) kaltetan Franzisko Jeronimo Santua predikuan zebillela, entzunle ubariyai, inpernua bazala ta ango oñaziak izugarriyak dirala, esaten ari zan egun batez; ortan ari zan bitartian, Katalina zeritzan auzoko emakume galduak, arrokeriz eta lañezaz oju ta pazi-otza ateratzuari bere echetik ekiñ ziyon, onela egi ayen entzutia berari ta entzunlai galerazteko asmoz; Franzisko Santuak oju egiñ ziyon esanaz «Ene Katalina: biyurtzen ez bazera, gaur-zortzi baño len, Jaungoikuak kastigatuko zaitu»; itz asarre abek Katalina etzuten asko estutu-erazi; berriz ere eraso ziyon bizi-bizi ots ateratzuari. Zortzi egunen buruan Katalinaren eche-atariyan Franzisko Santua predikuan osterari zala, Katalinaren echetik otsik etzeterren; orduguchiren aurretik Katalina bat-batetan ill zala, auzotarbatek berri eman zuan; au entzun orduko Santuak entzunlai esan ziyen «Katalinaren echera goazen eta ikusi dezagun inpernuari farrik egiten ote diyon»; entzunle-salla atzetik zuela, korputz illa zegon gelara sartu zan eta Jaunari eskariya egin ondorian korputz



illari galdetu zion «Katalina, nun zauden ezaiguzu» itz oyen aginduz Katalina-zana pistu zan; burua alchatu, begiyak iriki tatrumei marruaren antzera esan zuan «Inpernuan, inpernuan nago» au esan beziñ laister, Katalina bizigabetu zan osteria; ezurretarañoko bildurra ta beren bizitza guztiyan irauñ [zuan ikara entzuliai sartu zion Katalinaren aitortpenak.

Gertaera onen egitza orduko ikusle ubariyak zionez (juramentuz) eta leyaz aitortu zuten; Erroman gordetzen dira oraiñ ere, juramentupian egi au sendotu zutenen izenak; Franzisko Santuaren bizitzan irakurtzen da gañera egi au; siñistu diteke beraz.

2) (ITALIKO) FLORENZIKO ARZOBISPO IZANDU ZAN ANTONINO SANTUAREN LIBURUETAKO BATETIK ARTUTAKO AGERTZIA. — Eliz-legietan chit jakintsua izan zalako, eliz-legien ikaslariyak gordelaritzat (patroitzat) Antonino Santua autua daukate; berak diyo, oraiñ datorren gertaerak amairu-garren gizaldiyan bizi ziranen artian, bildur osasungarriya zabaldu zuela.

Egindako pekatu larriya aitortzeko biyotzik izan etzuan galai batek; maiz konpesatu arren, pekatu larri ura konpesatu-gabe, ta gero konpesatzekotan zute zuan; kontzientziyaren ezten zorrotzak barrena zulatu zion; bera paketuko zuelakuan, penitentzi arrigarriyak egin zituan; bere artian berriz zion: »Pekatu ori geroago aitortuko det» erlijioso sartzeko asmoz erlijioso-eche batera joanzanian, ango buruzayak berentzat pozik artu zuten, ¡galai ontzaz bai zeukaten!; erlijioso-echian bizi zala, gaitz billau batek arrapatu zuan; aren samintasunez izututa-berentzat esan zuan «aitortugabeko pekatua ta bizitz guztiko gañerako pekatuak konpesatzeko garai egokiya auñen da» izkututako pekatua aitortu zuan; ez ordia pekatuaren gogorkeriz apaiza oartzeko eran; urrengo



eguneraño utzi zuan pekatu lotsagarriyaren aitortze osua; gizarajua urrengo eguna baño len ill zan Santutasunian ill zalako ustietan, illdakuaren korputza elizaren erdiyan praile-anayak ipiñi zuten, biyaramoneko elizkizuna bukatu arte anchen egon zediñ; urrengo egun sentiyan erlijioso kanpailariyak illdakua ikusi zuen ill-kuchatik ateria ta sugarrez eta kate gorituz estaliya Garai berian galayak orruka esan zuan «Neretzat ez erregutu, betirako inpernuan nago-ta» ikustalduyak emandako ikaraz kordegabetuta zerraldo lurrera erori zan erlijosua; beste erlijiosuak ere elizara etorri ziranian, ikusgai malkogarri ura topatu zuten, onekiñ batez elizan usai naskagarri bat sumatzen zutela.

3) **SEGUR-EK DAKARREN AGELTZE BAT.** — M. Segur liburu-sortzalle jakintsu ta apaiz prantzitarrak, ama-aldeko bere aitonak (Roktopineko konde ta jeneral prantzitarrak) berari esandako gertatze au bere liburuetako batian dakarki.

Aitapen ona edo jatorri ona ondorenguai ez kentziagatik, eta Elizaren nayaren eran, jeneral V.-ren izen osorik ez du jartzen.

Roktopineko kondia (Segur-en aitona) ta Orloff-ko kondia alkar maitiak ziran (Orloff fede galdukua ta kristau-etsaya zan); beste jeneral V. adiskide zuteu biyak.

1812 garren urtian, Napoleon gudan zebillela, iru jeneral abek Rusira joan biarra izan zuten; Orloff eta Roktopine Moskouko urira ta jeneral V. Moskoutik urruti zegon beste uri batera joan ziran.

Goiz batian Orlof, alkandora utsian, ille tentetuak eta begi chinpartatuak zekazkiyela, ikaraz zurutua asnaska ta katazka Roktopine-gana etorri zan.

Roktopinek galdetu ziyon «Onenbeste istillurekiñ



zer dakarzu? Garai ontan, orrelako jantziz eta ichura ortan zatoz onera? »

Orlof-ek erantzun ziyon « Jeneral V etorri zait, beregatik erotzeko zoriyan nago.

ROKTOPINEK. Baña gizona, jeneral V. etortzerik ezin diteke, emendik chit urruti dago ta.

Orlof-ek (Orain» esatera nuana, zedorrek ikusiya ta ondo asko dakizuna da) Oraindik denbora asko ez dala, inpernuari par egitiagatik, inpernurik etzala jeneral V-ek eta nik alkarrri esan giñiyon apal-ondo batez, eta inpernua balitz, biyotan aurren-illdakua alkarrri berri ori ematekotan gelditu giñan; agindu onen siñaletzat eskuak alkartu giñuen; ontan gaude-la, gaur goizian esnaa nagoala jeneral V. etorri zait eta sabel-gañian eskuak jarrita esan dit «Inpernua ba-da, anchen nago ni»; au esatez bat, izkutatu da; ontatik ateratzen det jeneral V. illa izango dala nun-bait.

Roktopinek esan ziyon ichurezko azaltzia edo ameslariyen irudipenen bat izango zuela; bañan itz abek etzuten Orlof lasaitu, baizik berian gogor leyatu zan; bada berriz eta berriz itz-pian eta juramentu-pian ere egizko azaltzia ikusi zuela ziyon.

Andik amar egunera Moskou-n jakiñ zan bala batez jeneral V. ill zala, Orlof-i azaldu zitzayon egun eta ordu ayetan berietan.

4) SEGUR-EK DAKARREN BESTE AGERPEN BAT. — Aitatuko degun emakumiaren aide zan apaiz agurgarri batek berari esan ziyon beste gertatze au, dakar Segur-ek.

1848 garren urtian Londres-en bizi zan lord (ministro) zan galai batekiñ adiskidekeri debekatuak zeuzkan, eta alarguntza lasaikeriyan zeraman aundizkitarretako emakume alargun bat.



*Nobelak* irakurtzen ari zan gau batez, emakume oni lasaikeriko adiskidia, suz estaliya azaldu zitzaion, eta eskumuturretik elduaz, alargunari esan zion « inpernuan nago »; ehekoandriaren diadar, zalaparta eta bildurgarrizko karrasietara mirabilia etorri zanian, ikusgai kupigarriyaren aurrian arkitu zan: *azufre* gisako usaya zabaldua zegon gelan, kordegabetua ta lurrian zegon ehekoandria; onek eskumuturra ezurreraño kiskaldua zeukan; gañera oñazpiko oletan susko oñ-zuluak garbi-garbi agiri ziran. Biyaramonian jakiñ zan gaberdi aldian galayak bere burua ill zuela.

Segur-i apaizak azkenik esan zion « Gertatze onen egitza ondo dakit, egibide onetik ikasi det-eta; gañera gaur bertan (1859garren urtian) alargun au Londres-en bizi da, eskumuturrian erre-siñalia daukala ta urrezko edergarriz dera estaltzen dualarik.

5) GIPUZKUAN GERTATUTAKO AGERPENA. — Berriyagua ta bertagokua dan beste agerpen bat nai badezu, oraindik urte asko ez dala Gipuzkoan gertatua, ara bertan.

Beterri batian jayotako (Maria zeritzan) neskach bat, bederatzi urte ezkeroztik, fedegabeko ta loikerizko hizitzari oso emana zegon; bera beziñ galdua zan beste neskach bat adiskide zuela, gaistakeriyari la sayago oraindik jarraitu zion; pekatuko unian bere laçuna bat-batetan illtzen ikusi zuanian zarrara esnagarriyak barrena larritu zion Mariari; alaere ordia laister lasaitu zan ostera; amasei urte izatera irichi zanian len baño nolabaitekuagua ta galduagua zegon Maria; bere goguaren kontra beon k, leziatuko zutelako ustian, ezi eche batera gurasuak eraman zuten; baita an ere, biziera berdintsua zeraman; Jaungoikorik ez dala, gure erlijiyoko siñisgayak gezurrak dira



la, bere pekatuak, ez pekatu, baizik usariyokoegitiak zirala, sarritan ziyon; ezi-echeko gañerakuai galbidia ematen ziyela ikusita, erlijiosa, ezilariyak gel ichi batian sartua zeukaten; Jesusen eriyotzaren eta bere atarramentuaren gogoraziyo z limurtuko zutelakuan, makiñabat leya egin ziyoten; alperrik ordia, algara ta ajolakabekeriya azaltzen zuan-da; oju ta kantu lizunak kantatzen ari zan batian, erlijiosa bat, Mariaren gaistakeriz ta gogorkeriz kupiturik, eta Jesusen Sakramentatuaren aurrera j anikan, neskach galdu arentzat damutasuneko doaya eskatzen zegon; bat-batetan orru bildurgarriyak egitiari ekiñ ziyon Mariak, zerbait gertatzen zala oarturik, erlijiosa Mariaren gelara joan zan; çan zer ikusi zuan ordia? Malko-putzuan etzanda, negar eta oju dardarkorrek egiñaz zegon Maria ikusi zuan; Onek ziyon «Pekatu etako nere lagun zana, inpernura joan zan eta oraiñ orchen orchen dago, ta ur bedeinkatua zabaldu beza emen» erlijiosak ura isuri zuanian, Mariak jarraitu zuan «Badijua bañan oraindik ez da izkutatatu» Erlijiosak esan ziyon kontriziozko damua egiñ zezala; au egiñ orduko, alaiturik ziyon «joanda» Larri-aldiya igaro ondorian, galdetzalliai erantzun ziyen, gaistakeriko bere lagun-zana agertu zitzayola, beregana joateko kiñuak egin zizkala, begiyak ichi arren garbi ikusten zuala ta ondoratuta, susko eskus arpegiya ikutu ziyola; oyezaz gañera, ez bakarrik egun artan, ezta ere urrengo iruretan biyotzik etzuan iñork izan gel-artara sartzeko, usai nazkagarri berezi bat gelatik bai-zetorren.

Agerpen onek frutu ta ondorenak laister eman zitzuan, bada Maria damu irazekiz, altzuan lenena, konpesatu zan eta andik aurrera bizitz pekatugabian, denai on-bidia emanaz, iraun zuan. Mariaren ongiruak (birtutiak) usandu zitzuan galai ase batek, emaztetzat




artu zuan; bizierako zer-eginak zintzo betiaz, Sakramentuak sarritan artuaz bizi zala (ezkondu ondorengo illabete batzuen buruan) gaitz illtzallia Mariari sortu zitzayon; lau illabetian iraun ziyon gaitz-aldian sarigarri asko egin zituan, gaitzaren erasuak alai eramanaz; ezi-echeko erlijiosa batzuek gasuari joan zitzaizkanian, beregatik egindako sayaketagatik eskerrez bete zituan; azkenik eriyotz aurreko Sakramentuak artuta, egizkobiurpenaren agerkiyak utziyaz, Jaunari eskerrak ematen ari zan unian ill zan.

Maria ondo-asko ezagutu zuen jaun agurgarri batek gertatze onen berriyak aurreneko aldiz eman zizkidan; geroztik ezi-echeko liburuetan neronek irakurri det gertatze bra; bai jaun agurgarri ura, bai aitatutako erlijiosa, gaurko egunez bizirik daude.









# EGI SAMIÑAK

IRUGARREN MORDOSKA

PEKATU BENIALA (ariña)

Argigarriya.

Oker aundiyak ezezik, beko mallako gaistotegiya merezi duten lege auste ariñak ere badira; gurasua oso aserretu ez arren, bera naigabetzen duten okerrak, semiak egiten dituzte batzuetan; lege auste edo oker abetatik pekatu benialaren argigarriya atera dezakezu.

Pekatu beniala.

Pekatu oni *beniala* deitzen zayo, pekatu chikiya berez dalako ez, baizik pekatu larriya bañon askoz chikiyagua ta barka-erreza dalako. Pekatu beniala da *berez* oker ikaragarriya, bada Jeronimo Santuak diyon bezela, pekatu benialak ere zeru-lurren Erregia, azkengabeko Jaungoikua ofenditzen du, ta Jaungoikua ofenditzia bañan oker aundiyagorik eta kaltegarriyagorik eziñ arkitu diteke.

Pekatu ariñ bategatik agindutako toki zoritsura sartugabe Moises ill zan; pekatu ariña egiñ zutelako, Nabad eta Abiu zerutik jechitako suak kiskali zituan. Pekatu benial bategatik, Aza ill zan bat-bate-tan. Pekatu ariñ bat egiñ zutelako 50.000 Betsamotar Jaungoikuak ill-erazi zituan. Dabidek egiñ zuan pekatu benial batengatik bakarrik 60.000 gizon ill ziran. Pekatu beniala oraindik obetoago gorrotatze-ko, beste munduak ematen zayon kastigua edo Purgatoriyua ikusi dezagun.







# EGI SAMIÑAK

LAUGARREN MORDOSKA

PURGATORIYUA (Garbilekua)

Argigarriya.

89 garren orriyan ikusi genduanez, lege-auste ariña egiten duana juezaren aginduz beko mallako gaistotegira (carcel correccional-era) eramaten dute, ango bizi-aldi samiñez okerra ordaindu dezan eta ar-rererarako ezi dedin. Donostiko Antiguan dagon gaistotegiya malla-ontakua da, ta purgatoriyuaren autz-gai egokiya nai badezu, ango bizierari begira zayozu.

Garbilekua ba-da.

Garbilekua ba-dala Elizak erabakitako fedeko egiya da (1). Garbilekua badalakuan, Jacob-entzak eta antziñako beste illdakuentzat illetak egiñ ziran. Judas Makabeotarrak 12.000 drakma (diru) eman zituan, illdako bere soldaduak Garbilekutik ateranayez. Jesusek berak adierazten digu beste munduan (Garbilekuan) barkatzen diran pekatuak badirala (2), ta Garbilekuko presondegitik ateratzerik ez dagola alik eta azkeneko zorra kitotu arte (3) Paulo Santuak ere egi au aitutzen du (4). Illdakuen alde mezak, illetak, errespon-suak barkapenak (induljen-

(1) «Purgatorium esse animasque ibi detentas fidelium suffragiis, potissimum vero acceptabili altaris sacrificio juvari». Trid ses. 25.

(2) «Non remittetur neque in hoc saeculo neque in futuro». Math. 12-32

(3) «In carcerem mittaris et non exies inde donec reddas novisimum quadrantem». Math. 5-26.

(4) «Ipsa autem salvus eris, sic tamen quasi per ignem». 1 Cor. 3-15.



tziyak) eta elizkizunak Elizak jarriyak dauzka; Garbilekua ba-da beraz.

Pekatu benialak bakarrik dauzkatela illtzen diranak izaten dira: oyek inpernura bialtzia ez da bidezkoa, graziyan dauden eta Jaungoikuaren semiak diran ezkerro; ill da beriala zerura eramatia zuzena ez da, anima itsusitua daukate-ta. Jaungoiko zuzenak gnora bialduko ditu ba? Garbilekura, an garbitu ondorian zeruratu ditezen; beraz arrazoyak ere eskatzen du Garbilekuaren ba-izatia.

## Garbilekuko biziera.

Inpernuko miñak bukatze-dunak eta Garbilekukuak berriz bukatze-gabiak dirala, baño gañerakuan biyetako oñaziak berdiñak dirala diyo Tertulianok; eta «BUKAERA DUAN INPERNUA» Garbilekuari deitzen diyo. Tomas Santu Akinotarrak berriz diyo inpernuko ta Garbilekuko miñak berdiñak dirala ta Garbilekuko oñazerik chikiyena munduko miñ guztiyak baño biziya-gua dala. Pazisko Magdalena Santuak ziyon Garbilekuko suaren onduan munduko sua loretegi atsegintsua dala. Agustin Santuak diyo, kondenatua oñazetsen duan sua eta Garbilekuan justua garbitzen duan sua ber-bera dala (1), ta jartaitzen du onela: «Jakin beza mundu denak Garbilekuko suak ematen duan miña, gizonak munduan izan ditzaken miñ guztiyak baño kementsuagua gala». Kapuan erlijiosen buru izandu zan bere arreba agertu zitzayola esaten digu Tomas Akinotarrak; guztiz malkotsu ta nai-gabetsua zegon arrebak anayari erregutu ziyon, beraz kupitu zedilla, Garbilekuko su-garretan zegoala-ta; mezak atera ta beste kitogarriyak zuzendu zizkanian, arreba ostera agertu zitzayon, zerura igo zala berri emanaz.

Ze kupigarriya dan Garbilekuko animen biziera; munduko negar, miñ, naigabe, gaitz eta eriyotzak utsa bezela dira beren oñazien onduan!

Galanki sufritzen anchen egongo dira ojuka gure guraso anai edo aideren batzuek.

(1) «Eodem igne purgatur justus et torquetur damnatus». S. Ag.



## Galdera ta erantzuerak osagarriak.

1) GARBILEKURA NOR JOATEN DIRA? — Pekatu benialak bakarrik dauzkatela illtzen diranak, eta baita ere barkatutako pekatu larriyen zorra kitotu gabe ill diranak.

2) ANIMAK NOIZ ATERAKO DIRA GARBILEKUTIK? — Berai jarritako garbi-aldiya bukatzian; bitartian zerura joateko ustia beste pozik ez daukate; andik ateratzeko berriz berak eziñ dezakete ezer egiñ.

3) Garbilekuko egon-aldiya moztutzeko: au da, animen zor osua kitotzeko zerbaite egiñ aldezakegu guk? Bai munduan bizi geran kristabok asko egiñ dezakegu kitogarriyak animai bialduaz; barauz limosnez, Sakramentu-artzez, induljentziz eta batez ere Meza Santuko Sakrifiziyoz Garbilekuko egon-aldiya moztu edo baita beren zorra kitotu ditzakegu, oyen bitartez animak zeruratuz (laguntz bide obiena ta indartsuena Mezeko Sakrifiziyua da; Trentoko Elizbillerak alasse diyo; Jesukristok berak Garbilekuko animen alde mezetan eskatzen bai-tu.

Ara ba animentzat zenbat egiñ dezakegun! Ondasunak bati ematia, osasuna gassuari biyurtzia, egite sarigarriyak dira; askoz aundiyagua da ordia Garbilekuko presondegitik ateratzen animai laguntzia; au egiñ ezkerro, animak, zeruratzen diranian, eskerrez eta laguntzez beteko gaituzte; Jaungoikuak berriz egite aye-gatik grazi bereziyak eta ubariyak emango dizkigu.







# OKER-ZUZENTZIA

ORRIYAN	ERRENKARA	OKERRA	ZUZENA
3	11	saritzaz	saritzat
3	12	chorichuaren	chorichuen
6	17	generake	genezake
6	32	goimallak	goimallan
8	33	esan-nayan	esan-naya
10	21	egingo	egongo
14	23	esanai	esanari
15	2	ta tachado gañerako	ta gañerako
15	31	desteche	destecha
16	18	lenegarra	legenarra
17	27	eztarriya	estaliya
19	17	ziyoteneko	ziyeneko
20	9	nayo	naya
21	3	erragetzagabe	erregetzagabe
26	15	esandakuak siñiten	esandakua siñisten
27	15	egiezarik	egi-ezik
42	6	ana	anai
42	7	arituta	artuta
42	29	argatik bai	argatik ba
45	26	duan	dituan
47	1	eguzkiyak	eguzkiyak illun diya
51	17	jarri	jarriko
54	1	milloi	milloi izar
57	22	onek	onen
64	22	bauban ceorrek	bauban edorrek
65	15	esaten	eraten
66	20	oituratigak	oituratiyak
67	14	zakiuz	zakuz
68	24	iarretik	larretik
70	30	edo bere	edo beregan edo bere
73	16	garrakibo	garrak
77	33	ere	eze
87	17	ezkern	ezkero
91	8	gizonaa	gizonak
96	12	urruti	urrutitik
98	10	goibillerad	goibilleran
98	12	diyodian	diyonian
99	13	ditzazkete	ditzazketela
99	14	apaizai etorriko	apaizai ondo etorriko
104	22	zute	uzten
107	17	dera	bera
109	14	bra	bera
114	12	bukatzedunak	bukatzegabiak
114	13	bukatzegabiak	bukatzedunak
114	21	jartaitzen	jarraitzen

«kete» ta «teke» \*...: «batzuek eta gañerako okerrak, bakoitzak zuzendu bitza.









# ARKI-BIDEA

	<u>ORRIAN</u>
Eskeñiya . . . . .	3
Irakurliari . . . . .	5
Erakuste Batzuek . . . . .	7


## EGI-SORTACHUA

IRU EGI KEMENTSU	I. — Jaungoikua ba-da . . . . .	9
	Egi onen zabalketa . . . . .	13
	II. — Jesukristo Jaungoikua zan	14
	Jesusen mirari batzuek . . . . .	14
	Jesusen ikarpenen betetzia	18
	III. — Aita Santua Jesukristoren	
	ordezkua da . . . . .	23
	15garren Benedikto . . . . .	25
	Sinismenaren bidia . . . . .	26

## KONTU ALAI TA EGI MARDULAK

EGI POZGARRIYAK	I — Grazi santutzallia . . . . .	32
	Grazi santutzalliaren almena	33
	Grazi laguntzallia . . . . .	38
	II. — Zerua . . . . .	41
	Zeruaren edertasuna . . . . .	42
	Zeruko atsegiñak . . . . .	47
	Zeruaren betikotasuna . . . . .	49
	EGI SAMIÑAK	I. — Pekatua . . . . .
1) Pekatu larriya . . . . .		52
Pekatu larriyaren billau-		
keriya ta gal-takeriya . . . . .		56
Pekatu larriyaren ondorenak		58
2) Pekatu nabarben batzuek		73
Oiturako pekatua . . . . .		64
Erorbideko pekatua . . . . .		67
Pekatu bizkiyak, iruzkiyak		80
Galbidezko pekatua . . . . .		83
Bitoriko Obispadu ontan . . . . .		78
II. — Inpernua . . . . .		89
Inpernuaren ba-izatia . . . . .		93
Inpernuko biziera . . . . .		96
Inpernuaren beti-aldiya . . . . .		97
Agertze batzuek . . . . .		103
III. — Pekatua beniala . . . . .		111
Pekatu benialaren gogor-		
keriya . . . . .		111
IV — Garbilekua . . . . .		113
Garbilekua ba-da . . . . .	113	
Garbilekuko biziera . . . . .	114	
Oker-zuzentzia . . . . .	117	







# Bijili-egunak eta barau-egunak Españin

## Aragi-bulda artu dutenentzat

Otsail	Garizumako zazpi asteazkenak	<i>Barau-egunak</i>
Marcho	Garizumako zazpi ostiralak	Bijili-egunak <i>barau-egunak</i>
edo Apirillian	Garizumako zazpi larunbatak	<i>Barau-egunak</i>
Mayatzian	Espiritu Santuaren Pazkoa-aurreko larunbata	Bijili-eguna <i>barau-eguna</i>
edo Garagar-illian	Espiritu Santuaren Pazkuatik urrango ostirala ( <i>Tenporak</i> )	Bijili-eguna
Aguztuko 14 <sup>en</sup>	Maria Birjiñaren jaso-jayaren aurreko eguna	Bijili-eguna <i>barau-eguna</i>
Agorrian	Tenporetako ostirala	Bijili-eguna
Abendu-illian	Tenporetako ostirala	Bijili eguna
	Eguarri-aurreko (Tenporetak.) larunbata	Bijili eguna <i>Barau-eguna</i>



## Al datela aragi buldanik artu ez dutenentzat

Urtero	Urte osoko ostiralak	Bijili-egunak
Otzaillian	Garizumako igandiak	Bijili-egunak
Marchuan	Garizumako gañerako egun denak (Jose Santuaren jai eguna ez bestiak)	Bijili-egunak <i>barau-egunak</i>
edo Apirillian		Bijili eguna, <i>barau eguna</i>
Mayatzian	Espiritu Santuaren Pazkoa-aurreko eguna	Bijili-egunak <i>barau-eguna</i>
edo Garagarillian	Espiritu Santuaren Pazkuako Tenporetako asteazken ostiral, eta larunbatak	Bijili-eguna <i>barau-eguna</i>
Garagarilleko 28	Pedro Santuaren jai-aurreko eguna	Bijili-eguna <i>barau-eguna</i>
Aztuilleko 24	Santiago Apostoluaren jai-aurreko eguna	Bijili-eguna <i>barau-eguna</i>
Aguztuko 14	Maria Birjiñaren jaso-jayaren aurreko eguna	Bijili-eguna <i>barau-eguna</i>
Agorrian	Tenporetako asteazken ostiral, eta larunbata	Bijili-eguna <i>barau-eguna</i>
Urriko 31	Santu guztiyen jai-aurreko eguna	Bijili-eguna <i>barau-eguna</i>
Ubendu-illian	Tenporetako asteazkenak	Bijili-eguna <i>barau-eguna</i>
	Abenduko ostiralero ta larunbatero ( <i>Tenporak sartuta</i> )	Bijili-eguna <i>barau-eguna</i>
	Eguarri aurreko eguna	Bijili-eguna <i>barau-eguna</i>



